

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

34 zk.

2007

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, nahitaez, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.



Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, 2007. Serie “Hor konpon, Marianton!”.

© EIZIE

© Artikulugileek, testuena.

© Juan Azpeitiak, marrazkiena.

ISSN: 1132-2152

Legezko gordailua: SS-1152/01

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Karlos del Olmo

Zuzendariordea:
Maite Imaz

Abolku taldea:
Gotzon Egia
Juan Garzia

Helbidea:
Zemoria, 25
20013 DONOSTIA

Tel.: 943 27 71 11

Fax: 943 27 72 88

senez@eizie.org
<http://www.eizie.org>

EUSKAL BIKOIZKETAREN INGURUKO JARDUNALDIA

Atarikoa

BEATRIZ ZABALONDO.....	11
------------------------	----

Bikoizketa, hizketaren lantegia

JESUS EGUZKITZA, <i>EGUZKI</i>	13
--------------------------------------	----

Euskarazko Bikoizketa-Topaketa

IÑAKI ZUBIZARRETA, <i>XUBI</i>	31
--------------------------------------	----

Zinemarako euskarazko bikoizketa

MARIAN GALARRAGA.....	51
-----------------------	----

Bezeroaren ikuspegia

ASIER LARRINAGA LRRAZABAL.....	63
--------------------------------	----

Laburpena

BEATRIZ ZABALONDO.....	71
------------------------	----

BESTE ARTIKULU BATZUK

Zazpi ohar Kataluniako telebista-bikoizketari buruz

JOSEP M. CARBÓ.....	75
---------------------	----

Euskarazko Bikoizketaren Historia

ASIER LARRINAGA LRRAZABAL.....	83
--------------------------------	----

Itzulpengintza eta bikoizketa Galizian

XOAN MONTERO DOMÍNGUEZ.....	105
-----------------------------	-----

Esku artean duzun *Senez*en zenbaki hau, irakurle, hirugarrena duzu 2007an. Ikus-entzunezko itzulpenaz diharduen monografikoa da.

2006ko udazkenean, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak antolaturik, *Euskarazko Bikoizketaren inguruko Jardunaldia* egin zen Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateko campusean, HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak lagunduta. EIZIEk azaroaren 23rako gonbidatu zituen HUHEZIk areto nagusira euskaraz aritzen diren bikoizketa-erakundeetako ordezkariak. Egun hartan egokitutako hizlariak esandakoak eta entzuleek egindako ekarpenekin ondu dugu liburuki honen lehen zatia; bigarrena, berriz, Euskal Herriko, Galizia-ko eta Kataluniako bikoizketaren egoeraz diharduten beste artikulu batzuekin osatu dugu.

Ikus-entzunezkoen itzulpengintzaz ez dira sarri argitaratzen artikuluak gurean. Jardunaldi publikorik ere ez da egin izan euskarazko bikoizketa eta azpida-tziak gai monografiko gisa hartuta.

Artikulu bakan batzuk badira lehen urteetako *Senez* aldizkarian: 1, 10, 13 eta 28 zenbakietan (1984, 1990, 1992 eta 2005ean, hurrenez hurren). *Jakin* aldizkariak ere eman zion tartetxoak alor honi, komunikabideei eskainitako 99. zenbakian (1997), eta oraintsuago 151. zenbakian (2005). Hitzaldiren batzuk egin eta jaso izan dira, bai, *Trasvases Culturales: Literatura, Cine, Traducción* goiburupeko Itzulpengintzako jardunaldietan. 1993tik hasita, EHUKo Ingeles eta Alemaniar Filologi eta Itzul-

pengintza eta Interpretazio Sailak antolatu ohi ditu saiook lau urtean behin, Gasteizen. Gainerakoan, euskarazko ikus-entzunezko itzulpengintzari dagokionez, ETBren eta bikoizketarako lanean diharduten etxeen arteko esparru pribatura mugatu dira aspaldion jardunbide profesional horri dagozkion gaiak eta gorabeherak. Eztabaida horien ondorio dira erabili.com atarian Asier Larrinagak 2000. urtetik tarteka agitaratzen dituen artikuluak.

EIZIEk 2006ko udazkenean antolatutako Jardunaldiak benetako interesa piztu zuela ikusita, hitzaldiak liburuki batean biltzea erabaki genuen: *Senez* aldizkariaren izaerari lotu-lotuta dago gaia eta, gurean hain gutxitan plazaratutakoa izanik, alorraren nondik norakoak eta egoeraren berri jasota uzteko helburua izan dugu.

Euskarazko Bikoizketaren inguruko Jardunaldian parte hartu zuten hizlarien mintzaldiak jaso dira zenbaki honen lehen atalean. Hitzaldien ondoren, entzuleak gogo onez solastu ziren hizlariekin, eta galde-erantzun nagusiak ere bildu dira.

Jardunaldian parte hartu zuten entzule guzti-guztien berbaldiak ez daudela jasota ohar liteke baten bat. Ez dago asmo txarrik horretan: grabazioaren zinta aldaketetan gertatu ohi ziren saltoak eragin dituzte hutsuneak transkripzioan.

Liburukia biribiltzeko, propio eskatu genituen bikoizketaren inguruko beste artikulu batzuk. Euskaraz ez ezik, galegoz eta katalanez diharduten beste telebista batzuetako profesionalengana jo genuen, eta

hor dituzue Xoan Monteroren eta Josep M. Carbóren idatzi bana. Valentziako telebistarako lanean dihardutenengana ere jo genuen, hango egoera ezagutarazteko asmoarekin. Agenda kontuengatik ezina adierazi ziguten, baina ez ditugu ahaztuko hurrengo saio baterako.

Euskal Telebista (ETB) sortu zela 25 urte dira: 1982ko Gabon Zaharrean egin zuen lehen emanaldia, eta 1983ko Urte Berriarekin hasi zen egunero emititzen. Hurrena, Televisió de Catalunya (TVC), 1983ko irailaren 10ean hasi zen lanean; Televisión de Galicia (TVG), berriz, 1985eko uztailaren 25ean hasi zen emititzen. Tokian-tokian bide eta garapen propioak izan dituzten anai-arrebak dira hiru telebistok, hein batean. Televisió Valenciana (TVV) 1989an hasiko zen.

Mende laurdenean hizkuntza minorizatuotako telebistek izandako garapena garapen, perspektiba ez galtzea komeni da: 25 urte oso denbora gutxi da hizkuntza baten bizitzan, eta, gutxien irudituta ere, ezin uka: aurrerapen handiak egin ditugu. Bestela, irudika ezazu, irakurle, duela 30 urte non geunden: telebistarik ere ez geneukan, pentsa! Gaurko itzultzaile gazteek ez dute ezagutu euskarazko telebistarik eta egunkaririk ez zen garairik. Baina oso atzera ez da jo behar, eta gutako askok bizi izan dugu euskarazko komunikabideak posible/bideragarriak ote ziren gizarte-eztabaiden sasoia. Egingarri eta bideragarri ez ezik, modu egokian lantzeko gauza izan gara. Gauden honetara iritsi gara. Ibilbidean zer utzi dugun, bidea osatzeko zer geratzen zaigun begira

gaude. Aurrera egingo badugu, etorkizunak eskatuko dizkigun lanei aurre egiteko prestatu behar dugu, nola teknika alorreko egitekoei hala hizkuntzakoei.


Hizkuntzak ez du bekaturik: hiztunok eragin behar diogu errotarriari, goroldioa itsatsita bira eman ezinik gera ez dakigun. Komunikazio tresnatzat daukagu hizkuntza, baina euskarazkoa zorroztea ahazten zaigu maiz: herdoilduta daukagu. Ibiliaren ibiliz baino ez dugu finduko eta txorroxuko. Orduan baliatuko dugu zehatz, nahi dugun egoeran nahi duguna esateko. Erdaretara jo beharrik gabe. Hizkuntzaren erregistro faltan, itzulpenean, bikoizketan, ahotsetan edo dena delako aitzakia-maitzakiatan geure burua zuritu gabe.

Beatriz Zabalondo

Euskarazko Bikoizketaren inguruko Jardunaldia

2006ko AZAROAREN 23A

ESKORIATZA





Atarikoa

BEATRIZ ZABALONDO

Egun on, eta ongi etorri Eskoriatzara.

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpena mintzagai hartuta, eta gai monografiko gisa, batik bat, gutxitan antolatu da jardunaldirik Euskal Herrian. Gaurkoa, beharbada, publiko aurrean egiten den lehen jardunaldia dela esango nuke. Jakingo duzuenez, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen ekimenez antolatu da, HUHEZIk lagunduta (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea).

Halaxe ba, gure fakultatean bildu nahi izan ditugu gaur lanbide honetan diharduten etxe nagusietako ordezkariak. Hemen izango ditugu Mixer enpresako bi ordezkari (Jesus Eguzkitza eta Iñaki Zubizarreta), Tinko Elkartekoa (Marian Galarraga) eta EITBkoa (Asier Larrinaga). K2000koak ere

gonbidatu genituen, baina etorri ezina adierazi zuten.

Euskarazko bikoizketa gaur ETBrako egiten da gehienbat, eta, zoritxarrez, askoz gutxiago zinemarako eta DVDtan zabaltzen diren filmetarako. Zoritxarrez diogu zeren zinemarako ere asko bikoiztuko balitz, esate baterako, beste egoera batean geundeke gaur: euskarak presentzia handiagoa eta normalagoa izango luke, bai kalean, baita gure bizimoduan ere.

Dakizuenez, Euskal Telebista 1982ko Gabon zahar gauean hasi zen emititzen: orduko lehendakari Carlos Garaikoetxeak Urteberrirako mezua eskaini zuen. Ondoren, hamar minutuko dokumental bat eman zuten: *Euskadiko Ibilbideak* izenekoa. Gero, marrazki bizidun batzuk eskaini ziren, *Espaziozainak*, eta *Poxpoloak saltzen zituen*

neskatoa izeneko telesaila. Hori izan zen Euskal Telebistaren lehenengo emanaldia, 1982ko Gabon zaharrear.

Emanaldi horren aurretik, bistan da, norbaitek lan egin zuen eta jende asko pres-tatu behar izan zen: euskarak ez baitzuen tradizioz telebistan, are gutxiago bikoizke-tan. Horretarako, 1980ko udazken aldean-
edo antolatu zen Donostiako Prim kalean Irrati-Telebista Eskola izan zena, eta han trebatu ziren bikoizleak, esatariak, kazeta-riak, itzultzaileak... denetik. Eskola haren itzalean antolatu zen lehenengoz Filmak Bi-koizteko Zerbitzua, FIBIZE, eta zerbitzu hori arduratu zen ETBren lehenengo urtee-

tako bikoizketa guztiaz. Handik irten ziren euskaraz bikoiztutako lehenengo produk-tuak.

Euskal Telebistaren “historiaurreko” ga-rai horretatik 25 urte igaro dira jada, eta ha-maika jendek egindako urratsen lorratzean gaudela esan liteke gaur. Uste dugu denbo-ra horretan eginiko lanaren eskarmentuak nahikoa ikuspegi zabala ematen digula lan-bide honen ezaugarri eta berezitasunak az-tertzeke eta gure hizkuntzaren biziberritze eta normalizazioan izan dezakeen garran-tziaz jabetzeko.

Hori da gure gaurko gaia. Besterik gabe, ekin diezaiogun.

Bikoizketa, hizketaren lantegia

JESUS EGUZKITZA, *EGUZKI*

Mixer-Edertrack. Bilbo.

Jesus Eguzkitza *Eguzki*, bizkaitarra da, Arrazolan jaioa.

EITB sortu zenean, lehen aipatu dugun garai hartan, Bilboko Herri Irratian zebilen Eguzki, esatari lanetan. Donostian lehenengo profesionalak prestatu zirenean, Bizkai aldera jo zuten jendea formatzera eta Bizkai-ko lehenengo promozioetakoa da Eguzki. Lehenengo Galdakao Estudios izena zuen enpresan aritu zen lanean, (gero, K2000 bihurtuko zen enpresa hori), baina K2000 bihurtu baino lehenago Galdakao Estudiosen zebilen jende talde bat bildu eta beste enpresa bat antolatu zuten euren kasa, Edertrack izenekoa. Enpresa hori Bilbon egon da beti, eta Eguzki bera izan zen sortzaileetako bat.

Gero, orain dela bi urte, Edertrak eta Donostiako beste enpresa bat, Irusoin, bikoizketarako bat eginda, Mixer enpresa sortu zuten. Hala, bada, Eguzki Mixerren dago, baina, esan dudan bezala, Bilbon lan egiten du.

Bikoizketarako gidoigintzan ez ezik, bikoizle ere aritu da eta aritzen da. Laster antzemango diozue ahotsean, oso ezaguna baita.

Hitza = Arnasa

Gauzatxo batek ekarri nau batez ere hona eta horixe esan gura nuke. Nire nagusi guztiak hemen aurrean daude eta ez dakit nik zer esango dudan; egia esan, nik baino askoz ere gehiago dakitenak dira eta beti etortzen zait burura behinola hark esandakoa: “Nor da hemen nor, eta ni ez naiz inor, museora joan eta Rembrandten koadro ba-

teko emakumeari aurpegia gorri gehitxoago egiteko”. Baina, Beatrizek esan duen bezala, urteak, bai, badaroadaz –aldean ere, 60 urte egin behar ditut–, eta hainbeste urtetxo badaroadaz euskalgintzan-edo; hau da, euskara bere menditik gaurko mundura jaisten, ekartzen, zabaltzen, esparru bat egiten... hor nabil aspaldiko urteetan eta beharbada harritu egingo zarete, baina, **hitza** errebindikatu nahiko nuke.

Zeinen garrantzia gutxi ematen zaion hitzari, zeinen jainkotu dugun edo goian jarri dugun idatzia, baina nik ez dut aipatu nahi antzinako iruzur hori: idatziak izan behar duela ahozkoaren jarraibide. Ni bestee-takoa naiz. Nik gehiago errebindikatu gura dut hitza eta hari hortatik jokatu, azken batean hitza dugulako bizi-arnasa.

Zer edo zerk bereizten bagaitu, nik uste dut hitzak bereizten gaituela, eta zeinen eder egiten den hitz hemen, eta mendi ostean ere bai, eta gure herri guztietan; hau da, euskaraz egiten den toki guztietan eder egiten da hitz, eta guri dagokigu, hau da, komunikabideetan gabiltzanoin hitzaren ederra zabaltzea, hitzaren berezkotasuna, hitzaren itzala, nolabait esateko, eta nik horixe kantatu gura dut.

Norbaitek esaten zuen ondo esandako hitzak iraultza bat egiteko gaitasuna daukala, eta hitz horri soinu pittin bat ipiniko bagenio, iraultza hori askoz ere gogorragoa izango litzatekeela, eta gaurko munduan hitzetzeko soinu horri irudia ezarri nahi bagenio edo ezartzen badiogu, orduan, ez dago munduan indarririk hori geldituko duenik.

Telebista, neurri batean, horixe da: irudia, hotsa, doinua, hitza... dena batera saltzen den bide bat da, eta euskara telebistan sartzen ez badugu edo kikilduta geratzen bagara edo porrot egiten badugu, nekez jasoko du burua Euskal Herriak euskararen ikuspegitik. Horixe errebindikatzerat etorri naiz, eta beste esateko handirik ez daukat.

Gero, bai, azpimarkatu gura nuke, eta, gainera, zoli eta sendo, zorionez aspaldiko denborotan ETBko zuzendaritza, ETBko euskara arduradun eta ETBrentzako lan egiten dugun enpresen artean inoiz baino ardura, hartu-eman eta jarraibide zehatza-

goak eta gardenagoak jorratzen gabiltzala. Eta pixka bat ildo horretatik ere joan gura nuke.

Gure mendi oste horretan esaten da: “Minik gabeko arrana uhertu egiten da”, eta egiten ez den hizketa ere hildu egingo litzateke. Ba al dakizue zer den *hildu*? Arrana bai, ezta? *Mina* ere bai, *uhertu* ere bai... *Hildu* da moteldu, indarmehetu... *hiletik* etorriko litzatekeela uste dut; nik ez dakit, hizkuntzalariak badira hemen eta eurek jakingo dute, baina egurra usteldu baino lehen, lehengo hildu egiten da, bizitasuna galdu egiten du, eta gero azkenean usteldu egiten da. Bada, hori litzateke: hizketa hildu egingo litzaugukeela. Eta arranari zer gertatzen zaio? Erabili ezean edo ez badauka minik jotzeko, bada, uherrak jan egiten duela. Irudi polita da eta asko erabiltzen da hemen, mendi ostean behintzat, eta horregatik esan dizuet hori.

Zein da euskara komunikabideetara, telebistara eroateko biderik zuzenena eta zuhurrena? Nire iritziz, eta urte luzeak horretan ibili ondoren diodan gauza bat da, gure buruan irudiak sortzeko gai den hizketa litzateke komunikabideetara eroangarri litzatekeen hizkuntza. Egia esan, hizkuntzalari handiek ere diote ezer ere ez dela hizkuntzara heltzen, lehenengo hizketaren lapikoan egosi ezik. Hizketaren lapikoan egosi behar da, nik uste, dena, eta apurka-apurka helduko da hizkuntzara, hartuko du itzala, egingo du gerizpe, baina lehenengo zatiak huts egiten badigu, ez daukagu zer eginik. Eta niri gustatu egiten zait esatea, gainera, hizketa irudi-sortzailea asmatu behar dugula.

Umetxoek horrelaxe ikasten dute euskaraz; umetxoek ez dute ikasten entzutez ba-

karrik, entzutez eta ikusiz ikasten dute. Zuk umetxoari erakusten dizkiozu giltzak eta zaratatxo ateratzen dute, irudia ikusi egiten du, eta “giltza, giltza” esaten diozu, eta bere buruan sartu egiten da. Pixka bat hori litzateke, hau da, irudia hor daukagu, film batean, esate baterako. Guk ez dugu irudirik asmatzen. Zarata eta soinuak ere hor dauzkagu, hau da, musikak eta *soundtracka* deritzogun hori hor daukagu: pauso hotsak, haizearen durundia, eta abar, hori guzti hori hor daukagu. Guk gehitzen dioguna da, pixka bat, hizketaren arnasa, hango argumentuari.

Era horretan gure hizketak irudiarekin bat joan behar du, eta hau jada teknika bat litzateke. Irudiarekin bat-egite horrek lanak ematen ditu, eta guk hiru arlotan bereizirik daukagu orokorrean bikoizketa deritzogun lanbide hori.

Bikoizketaren hiru esparruak

1.- **Aurreprodukzioa** da lehenengoa, eta hor sartzen dira gidoiak euskarara ekarri, gidoi horiek itzuli ez ezik egokitu ere bai... Eta zertara egokitu behar dira? Bada, egokitu behar dira, batez ere, jatorrizko irudian ikusten dugun erritmora, *tempusera*, aktoreak egiten dituen keinuetara, ezpain mugimenduetara, esaldiaren etenetara... Hau da, guk mugimendu bat ikusten dugu hor, interpretatzeko era bat ikusten dugu, edo buruari eraginka ikusten dugu norbait... Buruarekin ezezko keinuak egiten baditu guk pantailan ikusten dugun horrek guk ezin dugu *bai* esan, *ez* esan beharko dugu, normala den moduan; bestela, ez litzake irudiarekin bat joango.

Pantailan ageri den mutil, neska, agure, ume... dena delako horrek bere berriketaldian etenak egiten baditu, nik egiten ditudan moduan orain, bada, guk euskarara ekartzerakoan hori guzti hori etenka eraman beharko dugu, baina eten ustelak egin barik. Eten ustelak diot: euskarak esateko modu bat dauka, euskaraz hitz egiteko era bat dago; guk ezin dugu bortxatu, ezin dugu derrigortu, ezin dugu hala behartu... Pantailan ikusten dugulako eten bat hemen egiten duela, horra heldu gara eta blast aizkorarekin moztu eta hor konpon ezin dugu egin, zeren gero atzetik datorren esatariak, lokutoreak ez du ondo dramatizatuko. Hau da, euskaraz latz etorriko zaigu belarrietara esamolde hori. Zergatik? Behartu egiten dugulako euskararen berezkotasuna.

Orduan, alde batetik izan behar du itzulpen egokitua. Beharbada zuek ikasiko dituzue teknikak horretan: Beatriz urteetan ibilitakoa da eta lanbide horretara hurbildu bazarete behintzat teknika horiek apurka-apurka ikasten dira. Guk ez dugu zorte hori eduki, guk geure modura ikasi behar izan ditugu: ez zuek baino azkarragoak garelako, baizik eta zuek baino zaharragoak garelako, eta ekinaren ekinez ikasi behar izan dugulako.

Beraz, irudiarekin bat-egite horretan eta euskarara ekartze horretan, hango mundu hori geure egin behar dugu neurri batean, baina badira aspektu batzuk derrigorrez errespetatu beharrekoak. Guk ez dugu asmatu han ageri diren pertsonaien aurpegierarik, guk ez dugu asmatu ekinza hori gertatzen deneko tokirik. Hori guzti hori han dago, hori guzti hori errespetatu egin behar da, izenak, eta abar. Baina, oster, hango esangarritasuna, hango estiloa, hango ja-

ria, hango *tempus*ak, hango erritmoak eta abar, horiek guztiak guk euskarara ekarri behar ditugu.

Bat-batean konturatuko zarete hau ez dela itzulpen literarioa edo ipuin baten itzulpena; ez dauka zer ikusi handirik. Itzulpen hutsak ez digu ia-ia ezertarako balio, argumentua ulertzeko bakarrik, beste ezertarako ere ez. Ezkutuko lana da, bakar-kako lana da, lan gogorra da. Ez zaituztet desanimatu gura, norbaitek arriskua hartu gura balu itzultzaile-egokitzaile izateko, bueno... Gainera, hor badago lanbidea; egon badago, baina lanbide gogorra da. Kendu dezagun burutik “artisteo” hori, hau ez da txalo tartean lainotzen den mundu bat. Hau lanbide bat da eta horregatik jarri nion hitzaldi honi izenburu hau: **Hizketa-ren lantegia**. Lantegia lan egiteko modu bat delako eta ofizio bat delako, eta, gainera, errebindikatu egin behar dugu ofizio hori, ofizio moduan.

Uste dut gizatasunari zor zaion gauzarik inportanteenetarikoa dela hizkuntza. Eta gure hizkuntza nahiko epeltxo ikusten dugun sasoi honetan, eta hainbesteko eraginez inguraturik ikusten dugun sasoi honetan, inoiz baino batuago, indartsuago, xaloago... jokatu beharko dugula. Eta argiago ere bai. Askoz ere argiago, zentzu honetan: nik uste dut herria egiten gabiltzala eta, frailekeria bat botako dut, baina uste dut egia dela: San Joanek ere badiosku: “Eta hasieran hitza zen eta hitza Jainkoan zegoen eta Jainkoa...”. Jakina, batek esan lezake: “Guretzat oso mundu ezezaguna egiten zaigu mundu hori edo fraile mundu hori edo elizako mundu hori...” Nik uste dut horren barruan egia handi bat dagoela, “gaitza” ulertzeko alde batetik. Zergatik?

Bada ohituago gaudelako, hau da, zuk zer irabazten duzu hor, hau da, greziarrek egiten zuten erara, munduaren sorkuntzako gaiak oso objektiboak izatearen joera hartuta gaude gu ere, oso ohituta gaude lurra, sua, ura eta haizea aditzera, eta horiek dira munduaren sorkuntzako gaiak, berezko gai naturalak. Eta badator hor erdi zoro bat, Joan, eta dio: “Ez! Hitza. Sorkuntzako gaie-tan hitza dago, hitza, hasieran hitza”. Hori-xe errebindikatu nahi dut, ez San Joan za-lea naizelako bereziki.

Uste dut ETBk nahiko ondo deskribitu-rik daukala, bide honetan –eta gaira etorri-ko naiz pixka bat zehatzxoago–, zer litzate-keen bikoizketa orokorrean. Eta honelako deskripzio bat egina dauka: “ETBrentzat bi-koizketa da kanpo gaiak euskarara ekartzea, euskaldunak ahalegin apartekorik egin ba-rik, ondo entretenitzeko, eta ondo komuni-katzeko”. Nahiko azalpen erraza eta sinplea da, baina guk uste baino zailtasun gehiago dakartza. Gauzak gaitz egiteko joera zelan nagusitu den gure artean ez dut ulertzen. Ez dut ulertzen zelan egiten ditugun horren itzulpen –itzulpen, esaten nabil– horren itzulpen kaskarrak, eta neure buruari harria botatzen dihardut; ni ez naiz libratzen hor-tik. Baina, ahalegin plusik egin barik ondo entretenitzeko helburua badauka bikoizke-tak kanpoko materialak gurera ekartzerako-an, orain baino xaloago eta berezago egin behar ditugu lanak eta ez hain katea motze-an eta ez hain labur, hain *mekanotubo*, hain ondoegi, zelanbait esateko.

Nire eskuetara egunero heltzen dira tes-tuak, testu pila bat, eta ez dago huts bakar bat ere. Ez dago txarto ezer eta horrek bero-rrek mindu egiten nau ni, zeren euskaraz guk berez-berez, barra-barra erabiltzean de-

rigor egin behar ditugu hutsak. Nik gehiago esango nuke hutsak barik akatsak izan daitezkeela. Denok dakigu gramatika guztia eta gehiago, denok dakizkigu subjuntiboko nor-nori-nork eta zer guztiak. Eta jakin egin behar dira. Baina gauza bat eduki behar dugu argi; hau da: horrek, irudi bat jarrita, zigarroa pizteko pospoloak baino ez dira, eta behin zigarroa pizten dugunean, pospolo hori bota egiten da. Orduan, gramatika ez da jainkoa; gramatika ikasi egin behar da, jakin egin behar da gero ahazteko. Eta [hori gertatzen da] behin hizketaren berezkitasunak geure somatizatzen ditugunean.

Konturatzen nabil joera bat hartzen goazela apurka-apurka. Ez dakit hemen bertan hori gertatuko den, baina euskaraz egiten arrotzu egin gara, kanpotartu egin gara; hau da, nekeza egiten zaigu euskaraz egitea. Nekez hurreratzen gara jaietan neskato batekin edo mutiko batekin euskaraz egiteko, nekez, gero eta nekezago ikusten dut euskarako joera hori, berezko joera hori. Eta berriro diot: hori errebindikatzera etorri naiz.

Labur-labur aipatuko dizkizuet gure prozesuaren gauzatxo batzuk, eta agian jakingo dituzue. Akaso, Iñakik zehatzago jokatuko du horretan –ni baino serioagoa da, gainera–, eta zehatzago esango ditu gauzak. Ni pixka bat adarretatik nabil, bueltakabuektaka, inon sartu barik zehatz eta mehatz. Gurago dut baztertuta-edo ditugun beste albo eragin batzuek ere mahairatzea, plazaratzea.

Azken batean, esan nahi nuena da ETBko hizkuntza sailekoekin elkarlanean gabiltzala. Oraindik ez ditugu guztiz zehaztu, baina, nik uste dut nahiko bide onetik joan daitezkeela gauzak, zentzu teorikoan behintzat: zelan jokatu, zer kriterio erabili, zer

irizpidez ekarri euskarara kanpo materialak, eta abar. Hor gabilta lanean, hartu-emanen, egunerokotasunak sarritan jan egiten gaitu eta batzuetan hor uzten ditugu gauzak bazterrean, baina nik uste dut nahiko ondo enfokatuta goazela eta, lehenengo eta behin, esan dudan moduan hartu-eman es-tuan; hori sendotu egin behar dugu gainera, derrigorrez ikusten dut, eta herritarren eskakizuna ere izan liteke: “Aizu, mesedez, ETB: nire telebista zaren aldetik, nik nahiko nuke ganorazko produktu bat, ondo elaboratutako produktu bat eskaini diezadazu, ez naiz tontoa eta”. Hori exigitu egin behar genuke, zeren bestela dauzkagu nahiko arazo. Hau da, produktu kaxkarrak; laster begiak ere japonestu egin behar zaizkigu, hainbeste marrazki bizidun japonierazkoekin, eta hor denak dira kritikagarriak, baina... Arratialean esaten den moduan –hemendik urruntxo dago hori, baina–: “Ahal denean, dena, eta ezin denean, ahal dena”, eta badirudi bigarren zatian gabiltzala “Ezin denean, ahal dena”. Horko ildotik ote goazen susmoa daukat.

Bikoizketarako irizpide nagusiak

Hala, bada, bikoizketarako irizpide nagusiak-eta jorratzen gabilta. Nik garrantzi handia ematen diot honi: zer irizpide darabilgu lan bat aztertzerakoan eta lan bat kalifikatueran? Adar nagusi bi jarrita ditugu azterketan, eta dira, batetik itzulpen-egokitzapenaren ikuspegia, eta aurreproduktio deritzon alderdiari dagokio. Eta beste adarra, ahotsak jartzea eta dramatizazioarena da, produktioarena.

Irizpide bateratu batzuetara heldu gara ETBko hizkuntza arduradunak eta gu, eta

uste dut ondo daudela. Ezaugarri batzuei erreparatu behar zitzaienenez gero, kontuan hartu ditugu **lau irizpide**:

- a) Alde batetik, **itzulpen hutsa**: ea egokia den edo ez den egokia, jatorrizko gidoian esaten dena euskarara zehatz, argi eta ondo ekarrita dagoen ala ez; hori litzateke ikuspegietako bat. Hau da, esate baterako, jatorrizkoan 1990 badio guk ezin dugu 1908an jarri; hori itzulpen kaxkar bat da. Adibide tonto bat jartzearen. Normalean horrelako hutsak egiten dira despisteengatik, baina normalagoak izaten dira esaldi ilunak, hau da, argitasun falta nabarmena daukaten itzulpenak. Horiek dira arazoak sortzen dituztenak, eta hor gama oso zabal bat dago. Beraz, laburtzeko, itzulpena egokia den edo ez hartzen da kontuan lehenik.
- b) Beste alde batetik, lanbide honek daukan berezitasunik handienetakoari erreparatu behar zaio, lehen aipatu dizuedan horri: erritmoetara, *tempu*etara, *ezpain*karietara, luze-laburrera, intentziora, hitza bere keinuari dagokion tokian jarrita dagoen ala ez... Irudiaren menpeko gara eta testu hori **ondo egokituta** ote dagoen ala ez hartzen da kontuan.
- c) Beste alde batetik, hori horrela delarik, lehenago aipatu dizuedan **zuzentasun gramatikala**. Nik uste dut hori gaur egun nahiko gaindituta daukagula, zorionez, eta nahiko bateratuta gabiltzala zentzu horretan; iki-mikikeria edo txotxolokeria batzuk gertatzen dira, zalan-tzan dauden gauzatxo batzuk ere bai; suertatu liteke gaur Euskaltzaindiak arau hau plazaratu duela eta handik

hiru hilabetera beste arau batek menpean hartzen duela arau hori... Horrelako txikikeriak gertatzen dira, baina nik uste dut hor ez daukagula beste munduko arazorik.

- d) Eta azkenik, beste baremo bat erabiltzen da, guk **estiloa** deitu izan duguna, hau da: zer gehigarri dauka euskarara ekarritako itzulpen-egokipen lan horrek, zer gehigarri dauka, zer *plus* dauka? Hau da, hango ideia jarria bikain ekarrita dago, han agertzen diren irudiak sekulako ondo ekarrita daude euskarara? Badauka gatzik, piperrik? Hori guzti hori, *plus* hori ere kontuan hartzen da.

ETBrekin daukagun hartu-emanen, irizpide horiek guztiak aztertzen dira lane-tan, jo dezagun, film batean, dokumental batean, marrazki bizidunetako atal batean, spot batean... Izan ere, gehienbat horiek dira gure arlo nagusiak: spotak, marrazki bizidunak, dokumentalak, serieak, film luzeak, dramatikoak eta abar. Horiek dira lantzen ditugun gaiak, nagusiki.

Orduan, gai horietan, grabaketa aretora sartu aurretik egin beharreko lana aurreprodukzioa litzateke, eta aurreprodukzio horretako nahasmen hori guztia, aipatutako hori guztia jada argitu ondoren, orduan sartuko genuke produktua produkzioa, hau da, aretora ahotsak jartzeko.

2.- Produkzioa. Hasteko, ahotsak jarri behar izaten dira; ditugun ahotsekin; eta ga-bezia handiak dauzkagu: Ahots askoren falta daukagu. Ea animatzen zareten, gu jada zahartzen hasita gaude eta; ez, gu jada zahartuta gaude, eta agurearenak egiten hasi beharko dugu laster, baina, mutil galant

gazteenak egiteko ez daukagu aukerarik, sasoiak berak dioenez. Ahotsak falta zaizkigu: batez ere, gazteen ahotsak falta zaizkigu, edo, hobeto esanda, ahots gazteak falta zaizkigu. Ez noa esaten umeen ahotsak falta zaizkigunik, egia-rik handiena hori da-eta. Baina umeekin lan egitea oso konplikatua da; oso konplikatua, alderdi guztietatik: etxetik, gizartetik, zeren ume bat lanean jartzea, ez da samurra: produkzio lan arruntetan, esan nahi dut. Noiz edo noiz, esalditxo bat egiteko eta horrelako zeretarako, tira; baina produkzio normalean jartzea oso konplikatua da, eta normalean konturatuko zaretenez, umetxoen paperak-eta neskek egiten dituzte, neska ahotsak nabaritutako dituzue umetxoen paperetan, konturatzen bazarete. Baina, bai, badaukagu behar handia ahots gazteetan, batez ere, mutilenetan.

Beste alde batetik egia esan, ez da egoten aukera handirik ikastaro eta unibertsitateetan, ez dut uste gauza handirik dagoenik...

Ahotsen esparruan ari gara, beraz, eta normalean hauxe egiten da: guk prestatuturik daukagunean gidoia eta ETBko Euskara sailekoekin jada onartuta daukagunean, “bale gidoi horixe joango da grabaketa-aretoa”, orduan, pertsonaien izendatzea egiten da, hau da, nork zer pertsonaia egingo duen. Horretan, kontuan hartzen dira filmeko pertsonaia horren ezaugarri fisikoak, aktorearen berezko ahotsa...

Gu ohituta gaude gaztelaraz-eta entzuten artista inportanteen ahotsak, interpretazioak, eta sarritan gero gertatzen dira nola-baiteko harri-garritzko gauzak ere: zuk buruan daukazu Urtia aktorearen ahots sendoa eta betegarri hori entzuteko gogoz zaude eta halako batean “mimi-mimi” entzuten duzu [ahots mehe bat imitatuz], eta aibala!

“Hau al zen ere nire aktore ospetsu hau?”. Naturalean era bateko ahotsa edukitzen dute eta gero sarritan baita jatorrizko filmetan ere, euren bikoizlaria edukitzen dute, euren ordezkoa ahotsa edukitzen dute, gero estudioetan grabatzen dutena. Esan gura dut inportantea izaten dela horrelakoetan artista bakoitzak edukitzea jada ahots tipiko bat, karakteristiko bat, eta ezagutzen den ahots bat. Guk horretarako aukera handirik ez daukagu, zoritxarrez uste dut nik. Lan kopuruak berak ere ez dizu aukerarik ere ematen horrela jokatzeko, eta, zoritxarrez, garenak gara eta espektatiba usteliek ezin duzu sortu. Lanbide honek ematen duena ez da beste mundukoa. Gainera, bikoizketa bere osotasunean ere gain behera etorri den mundu bat da, ez dira sasoirik onenak jende-ari espektatiba berriak sortzeko.

Ni nahasten nabil, Beatriz, gauza pila bat: lanbidea, ofizioa, eta abar. Bihoz-kadak eta nik sentitzen ditudan gauzak gehiago dira eta behar izanak eragindako gauzak ere badira. Orintxe gabilta ahotsaren eztaba-ida hau aztertzen, ea nondik jokatu ote du-gun ahots berriak lortzeko, ahots berriak egiteko, prestatzeko... Hau ez da enpresa batetik edo lantegi batetik deitu eta zu idaz-kari lanetarako hartzen zaitut, ez dakit zen-bat pultsazio dituzulako, edo polita zarelako eta kito, ez. Hemen lanbide hau egin, egin behar da, eta luze joaten da. Lanbide hone-tan eskua hartzea ez da hain erraza, pixka bat kostatu egiten da. Itzulpengintzan beste horrenbeste gertatzen da: denbora pilotxo bat behar da eta ukondoak sarritan apurtu behar dira.

Joan egiten naiz eta itzul nadin ahotsen kontura. Beraz, nahiko arrunta da, baina

oso problematikoa, pertsonaia bakoitzari ahots egokia aukeratzea. Hori da bat.

Ahotsei lotutako beste kontu bat hau da: Zaindu dezagun esateko era, modulazioa, euskararen berezko esamoldeak, esateko erak. Nik badakit: Aramaion era batera esango da eta gure herrian beste batera esango da, eta hemen beste era batera esango duzue: esateko modu asko daude, egia da; inflexio era asko daude Euskal Herrian, batzuk beste batzuk baino neutrotxoagoak dira, eta guk apur bat neutraltasunera jotzen dugu, baina kontuan harturik izan daitezela euskarazko inflexioak. Sarritxoegitan entzuten ditugu-ta erdal kutsuko inflexio arrotzak. Baina hori denoi pasatzen zaigu, niri pasatzen zait, eta elkarriketatutako jendeari ere pasatzen zaio... Ez dakit, pixka bat generikoa da: mikrofono bat aurrean jartzen digutenean, ez dakigu non gauden, burua joan egiten zaigu eta pixka bat galdu egiten gara.

Azaldu berri dudan kontuari **erranbidea** deitzen diot, nolabait deitzeko, eta, beraz, hauxe da: gauzak esateko era jatorra, gauzak esateko berezko era naturala, ez bortxatua, berezkoa. Eta hor, nahiz eta era asko egon, batzuk berezkoak dira eta geureak dira, eta beste batzuk ez dira geureak, arrotzak dira.

Hori zaindu egiten da aretoan eta ETB-ko Euskara sailekoek ere hori zaindu egiten dute eta beste baremotzat daukate. Beraz, orain arte esandakoak biltzeko: produkzioaren atal honetan kontuan hartuko dira ea ahotsak egokiak diren, ea ondo esanda dagoen esan beharreko guzti hori, eta horrez gain, ea antzezpena egokia den.

Aktoreek antzezteko modu asko dituzte. Film batean era askotako moduak ikusiko ditugu: guztiz histrionikotik oso lasai hitz

egiten deneko estiloetara, era guztiak dau-de; orduan, jatorrizkoak kontuan harturik, antzezpena ondo eraman behar da, dramatizazioa zaindu egin behar da.

3.- Postprodukzioa. Eta azkenik, beste esparru nagusi bat daukagu, inportantea dena. Aurreprodukzioa eta produkzioa azaldu ditugu eta, horien ondoren postprodukzioaren esparrua dator: alor teknikoarena. Nahiz eta teknika hutsa izan, sentsibiltate handia eduki behar da hainbeste gauza ondo nahasteko.

Aurreprodukzioan materiala prestatu ondoren, produzitu egiten da aretoetan ahotsa jarriarik, eta gero postproduzitu egiten da guzti horri nolabaiteko oihartzun jakin bat emateko, guztiarekin halako harmonia biribil bat lortzeko. Eta hor dituzu era guztietako ahotsak unean-unean oihartzundu beharrekoak. Ez da berdin hemen berbetan egon eta zelanbaiteko oihartzuna entzun beharko litzateke –barruak ematen duen oihartzun hori–, edota kanpoan egon: ahotsak ez dauka hormarik eta, beraz, garbiago zabaltzen da. Orduan, unean-unean ahotsari ere eman behar zaio behar duen oihartzun hori edo ez, edo gardentasunari gardentasun hori, edo eman behar zaio hurrekotasun hori, zeren ahots batzuk gainjarrita daude beste batzuen aldean... Batzuk hor hitz egiten egon daitezke eta ikusten ditugun protagonista biak lehen planoan hitz egiten ari dira, orduan, lehen planoko horri eman behar zaio ozentasun gehiago, han bigarren planoan dabiltzanei baino: hori guzti hori daukagu, alde batetik. Eta gero ditugu musikak, trumoiaren hotsa, trenaren txistua edo dena delakoa... eta elementu guztiok bateratu egin behar ditugu, baina

belarrian minik egin gabe berez-berez joan daitezen. Hori izango litzateke pixka bat lanbidea berba bitan esanda.

Nik gustura erantzungo nuke zuen galdera edo bihozkaidei, oinarria hartu dezadan zuen kezka bidez eta dakidantxoaz alduko dizuet edo erantzuteko gai banaiz erantzungo dizuet.

Entzulea (Josu Barambones).– Egun on. Eskertuko nizuke azalduko bazenu *take* aketa lana zertan den Edertracken.

Jesus Eguzkitza.– Ingelesetik hartutako hitza da *take*, “toma” bat berez. Hitz horren inguruan sortzen da unitate bat, esan dezagun. Hau da, *takea*, “toma”, gure erabileran, adar biko kontzeptu bat da. Alde batetik, lan egiteko txatal bat. Filma txatalkatu egiten da, zatitu egiten da hasieratik azkenera, hau da, *take*atu egiten da, moztu egiten da.

Lehen, sistema optikoekin egiten zen; gaur egun, sistema birtualagoekin, kodigo baten bitartez zatitzen dugu, denbora kode baten bitartez zatitzen dugu. Denbora kode horrek orduak, minutuak, segundoak eta koadroak dauzka. Film munduan, koadroak hogeita lau irudi hartzen ditu segundoan, hogeita lau irudi sartzen den tarte hori da koadroa; beraz, segundo bakoitzeko hogeita lau eta batzuetan –filmetan– hogeita bost koadro ere sartzen dira. Horrek sortzen du mugimenduaren inpresioa filmetan; guk koadro gutxiago sartuko bagenu segundo batean, hamar esate baterako, orduan igarri egingo litzateke, jo dezagun, erbiaren ibilera kolpeka doala. Marrazki batzuetan, batez ere marrazki zaharretan eta, ikusi egiten da; ikusten da ez dauzkala hogeita lau edo hogeita bost koadro mugimendu horrek segundoko, gutxiago dauzkala. Koadroa gel-

dia da, geldi dago, argazki edo fotograma hori geldirik dago, baina geldirik dagoen fotograma horri mugimendu apur bat gehitzen badiozu eta gero hurrengo fotograman beste bat eta beste bat, eta gero segundoan hogeita lau hogeita bost irudi edo koadro sarturik, orduan mugimendua sortzen da, eta gure begiek ez dute antzematen geldirik dagoenik. Pentsatzen dugu martxan doala hori. Bada horixe da mugimenduaren inpresioa.

Orduan, filmak daraman denbora kode horren bitartez txatalkatu egiten da film osoa, hau da, *take*atu egiten da film osoa, eta *take* horiek hartzen dira unitate moduan. Unitate horrek zentzu bikoitz bat dauka: alde batetik, ordainketa-unitatea da eta beste alde batetik lan-unitatea.

Lan-unitate moduan, berezitasun batzuk dauzka: edukiaren berezitasuna dauka eta denboraren, iraupenaren berezitasuna. Zeri begira egiten da *take* aketa? Alde batetik, ordainketa-unitate bat den aldetik –sindikatuarekin zerikusia dauka–, zuk zenbat *take* egiten dituzun edo zenbat *taketan* parte hartzen duzun horren arabera kobratuko duzu. Dena dela, ordainketa arloan, beste kontzeptu bat dago, eta da deialdia: zuk disonibilibitate bat eskaintzen duzu eta dei egiteak, deialdiak, honenbesteko balio bat dauka. Beraz, egiten dituzun *take* ak kontabilizatu egiten dira eta *take* bakoitzak horrenbesteko balioa dauka, eta horrenbeste *take* gehi deialdia: horrenbeste diru ateratzen duzu eta kito. Hori da ordainketa-unitatea, bi kontzeptu horiekin ateratzen dena.

Baina nik uste dut hemen inportanteago litzatekeela lan-unitatea definitzea. Eta lan-unitate moduan, *take* ak sindikatuarekin eta adostuta egoten dira, eta tokian tokian

ere aldatu egiten da kontua, baina norma-lean, esate baterako, Galizian hogeita hamar segundokoak dira *takeak*, beste leku batean hogeikoak, eta horrelako gorabehera batzuk izaten dira, negozioazio mailan sartzen direnak. Izan ere, hor ere bi kontzeptu erabiltzen dira: alde batetik, zenbat lerro dituen *take* horrek, zer kontinuitate duen, eta bestetik, zenbat aktorek parte hartzen duten *take* horren barruan: bat, bi, hiru, zein hamar.

Jo dezagun, teorian, hogeita hamar segundoko *takea* balitz, egon litezkeela honenbeste aktore; bat bakarrik balego, sei lerro baino gehiago ez lituzke eduki behar. Zergatik? Oso zail egiten delako. Hau da, sei lerro jarraian *take* batean, pertsonaia batentzat larregi da, eta orduan ez da onartzen. Eta sei lerrotik pasatzen bada, nahiz eta hamar segundo eduki, moztu egin behar da *take* hori, gehiago ez delako onartzen. Hau da, lan-unitate moduan kontuan hartu beharrezkoak dira luze-laburrak, zenbat jendek hartzen duen parte eta, beste alde batetik, *take* edo eszena horren egokitasuna ez apurtzea.

Hori ere inportantea da: imajina dezagun momentu batean gazte pila bat borrokan dabiltzala eta hogeita hamar segundo baino gehiago irauten duela borrokaldi horrek, baina denak elkarren gainean dabil-tza zarataka, borrokan, kolpeka, mugimenduak egiten eta denak ostikoak hartu eta gero dena zurrumbilo ikaragarri bat da, eta oso gaitza da hementxe moztea, borrokaren erdian. Eta mozketak hori egiten baduzu ere lagun pila bat sartu behar dituzu mikro baten inguruan, jende asko da beraz, eta eze-goki geratuko litzateke. Orduan, zer egiten da? Errespetatu dezagun eszena horren

egingarritasuna eta egingarritasun horren barruan ipini ditzagun kondizionante batzuk. Eta zeintzuk izan daitezke kondizionanteak? Esan dugu: *take*atu dezagun, bai, eszena oso hori, baina gero eszena oso hori jarraian grabatu dadila aretoan, zeren bestela lehenengo zatian gaur arratsaldean egiten baduzu eta hurrengo zatia hurrengo goizean jada ez zaude borrokan sartuta: zarartetan ahots desberdina aterako zaizu, ez zaude bizi, motelago zaude: dena aldatzen da, eta gero hori grabazioan igarri egiten da. Horiek dira kondizionanteak edo baldintzak. Baina, labur-labur esanda, *takeaketa takea*-rekin lotuta dago eta ez da besterik filma txatalka jartzea baino, lan-unitate egokia izan dadin lana egoki eta eroso egiteko, batetik, eta, beste alderdi batetik, ordainketa-unitatea delako.

Entzulea (Beatriz Zabalondu).- *Take*-aren kontua beste ikuspuntu batetik azaltzearen: ordainketa-unitatea da bikoizle-entzat, eta lan-unitatea, berriz, itzultzaile-egokitzaileentzat eta produkzioa antolatzen duenarentzat. Hau da, ni baldin banoa bikoiztera Edertrackera pertsonaia bat dauka-telako niretzat, ordainduko didate joategatik, hau da, deialdiagatik, gehi nire pertsonaiari ahotsa jartzeko egin ditudan hainbeste *take*. Hori da bikoizle lana egiten badut. Baina, gidoia prestatzen duenak, ez dauka kontuan zenbat ordainduko dioten *takeko*, baizik eta berak *takeak* egin behar ditu egoki (edukiari, denborari eta egingarritasunari erreparatuta), Eguzkik esan duen bezala, bikoizleek lana egoki eta eroso egiteko.

J.E.- Horixe litzateke, bai. Balio dizu gutxi gorabehera?

Entzulea (Iñaki Zubizarreta).- Nik gero ere izango dut aukera hitz egiteko, baina, galderatxo bat, Eguzki: Ez dakit argi geratu den, ahotsak jartzerakoan, protagonista ezagunak direnean, etxeen artean saiatu izan gara beti bikoizle batek egin dezan Gary Cooper bat edo... Ez dakit hori argi geratu den. Esan duzu, Ameriketara-eta aktore ospetsuei ahots bat jartzen zaiela, baina hemen ere saiatu izan gara...

J.E.- Ez dut uste aipatu dudarik. Nik ondo ikusiko nuke zuk diozun hori, gauza bat gertatzen zaigu: Zenbat film luze ematen dira ETB 1en?

Hori nahiko zintzo errespetatzen zen saioi batean: film gehiago egiten ziren, eta hiru bat etxe bagenbiltzan lanean... Orain pixka bat gain behera etorri da hori guztia. Hori alde batetik. Beste alderdi batetik, oso film gutxi bikoizten dira, oso gutxi; gutxi, eta sarritan txarrak, ba... Galdu egiten dira perspektibak zentzu horretan. Egunerokotasunak murgilduta bizi garenok burua gehiago daukagu marrakiz bizidunetan... Zergatik? Gure eguneroko lanaren %95 hori delako, orduan, beste perspektibak galdu egiten dituzu. Eta filmeen bat datorkizunean poztu egiten zara. "Sikiera ere: gano-razko lan bat", baina gure eskumenetik kanpo daude horrelako gauzak. Orain: ahotsaren errespetua nik uste dut berreskuratu egin beharko genukeela edo aukera daukagun guztietan horrela izan dadin saiatu; hori ondo legoke.

Entzulea (Kaiet Estrada).- Hasieran esan duzu euskaraz bizitzeko behar dugula bikoizketa. Guk orain badugu produktu bat egina, badaude bikoizketa batzuk eginak eta ikusten ari naiz nola ateratzen ari diren DVDak. DVDak ahalbidea dauka hizkuntza

bat baino gehiago erabiltzeko eta ikusten ari naiz, bikoizketa egonda, nola izenburu asko ez diren aprobetxatzen. Gainera orain TDT dator, hau da lurreko telebista digitala, eta aukera hori ere badago: adibidez, orain Antena 3 *Shin Chan* ematen ari da. *Shin Chan* euskaraz bikoiztuta dago. Teknologikoki Antena 3ek euskaraz emititzeko aukera dauka, baina, ez dute ematen. Orduan, ikusten dut badugula produktu bat, baina ez dugula erabiltzen edo ez dugula kalera ateratzen, eta hori egiten ez badugu euskara zabaltzeko eta euskara finkatzeko aukerak ere kale egiten du. Nola ikusten duzu arazoa? Zerbait egin liteke bide horretatik edo...?

J.E.- Nik uste dut galdera oso garrantzitsua dela hori; erantzunik ez daukat, horixe da gauza. Esango dizut, alde batetik, gurako nuke hori zabal erabiliko balitz, alde batetik. Teknika horrek, hau da, DVDek-eta aukera hori eskaintzen digutenez gero, eta produktu horrek daukan kostua eginda dagoenez gero, zergatik ez sartu DVDan? Horretaz, Marianek [Galarragak] gero zerbait esatea nahiko nuke, baina ez dut gaia alboratu nahi eta Marianen lepora ez dut bota gura ardura hori; ardura hori, nire iritziz, gehiago dago gure Administrazioan. Administrazioan diodanean, hizkuntz politikan, kultur politikan, hezkuntza politikan... gehiago dagoela uste dut, zeren, jada lanari bide bat ematea da, azken batean.

Nik badakit film batzuk sartzen direla DVDan, baina beste asko eta asko ez dira sartzen, eta bestetara ere esan diezazuket: ETBrako ez diren film batzuk ere egin izan dira eta hor dabilta zirkuituetan, eta, ostera, ETBk ez ditu horren eskubideak erosten. Baina ni beste esparru batzuetan sar-

tzen nabil, hau da, ETBren, Eusko Jaurlaritzaren, diputazioen eginkizunetan. Eta horren lepora botatzen dut erantzukizuna? Bai, noski!

Esan nahi dizudana da ez dela aprobe-txatzen behar beste posibilitate tekniko hori. Egia da badirela eskubide arazoak eta horrelako zerak ere, baina joko desberdina daroala uste dut, esate baterako, Kataluniak. Egia esan, hango herriko errealitatea ere dezente desberdina da. Katalunian oso zabal dabil hori, badakit; oso zabal dabil, baina, Kataluniako posibilitateak, hizkuntza alderditik, politika alderditik, Adminis-trazioak daukan arduraren alderditik eta abar, ez daukate parekorik hemen. Ez dakit larregi esaten nabilen edo gutxiegia esaten nabilen, uste dut handiagoak bota beharko nituzkeela.

Lehen azaldu dut hitzaren garrantzia zenbaterainokoa den herri baten biziraupenerako eta esaldi bat sartu nuen ez dakit gero jarri dugun hemen, agian bai... Euskaraz maitatzeko, saltzeko, asmatzeko... gai ez bagara, bada, gureak egin du. Badirudi esaldi ponpoxo bat dela. Ez, ez, ez; nik hori benetan diot. Eta horregatik ikaragarritzko ahaleginak egiten ditugu –nik uste dut denok–, bada, esate baterako, edozein gai edozein gauza saltzeko, gauzarik soilenetik hasita. Eta esan dut: nik horiei ere garrantzi handia ematen diet, ez bakarrik “Txertatu zaitez gripearen aurka” eta holakoei. Badirudi hori euskaran saldu egin behar dela eta, oster, ez litzatekeela saldu behar “Eros ezazu Wonderbrarik berriena”. Eta zergatik ez dugu bada guk saldu behar Wanderbra edo dena delako produktu edergarriak edo apaingarriak edo dena delakoak. Zergatik ez? Eta ni baietxean nago.

Kontua da ez dela erraza euskaraz saltzea, baina, ahaleginak egin, nola ez. Eta hor kate bat dago, katea nahiko luze bat dago, lan-kate bat dago hor. Eta badakigu lan nola egiten dugun: egun batetik bestera. Eta ETBko jendeak ere badaki hori. Nik atzo arratsaldeko bostetan jada gaur goizean egiteko sei spot preparatuta utzi nituen eta esan diot gaur bati: “Hi, egintzan haiek, zeren gaur entregatu behar ditun”. Horrela funtzionatzen gabilta. Horrek ez du esan gura ez dela modua lan egiteko. Baina ez da lan egiteko modua zure bururako, baina merkatuak hori agintzen du, eta merkatutik kanpora zaude zu eskakizun horri erantzuteko gai ez bazara. Uste dut, bailara honetan, mundu hori oso ondo ezagutuko duzuela: hasi Fagorretik eta enparauetara.

Hau da, euskararen erabilgarritasun hori, zuk diozun hori, zergatik ez aprobe-txatu? Nik hor uste dut Administrazioak ez duela behar beste lan egiten. Akaso, ez dago bere arduren barruan, “Ah, euskera, eso cultura, eso política lingüística, eso... no, vete a cultura de la Diputación...”, eta horrelakoak entzuten ditugu. “Eso, eso...”, bada, “Eso...”, zer? Eta nire jarrera da: “Eso, sí!”. Hori oso garrantzitsua da, eta zabalkundea ematea. Oso garrantzitsua da. Ni zurekin guztiz bat nator horretan eta ez dut uste behar beste lan egiten denik edota behar den beste inbertitzen denik horretan. Baina, bueno, hori nire helmenetik kanpoko zer bat da, hau da, gogoaren eta gurariaren barruko zerbait da, adar bat da, baina ez dago nire eskumenean.

Entzulea (Asier Larrinaga).– Gai honi errematea emateko: Hori planteatu izan da inoiz ETBren barruan, DVDen kontu hori eta planteatu izan da. Hor badago arazo bat,

teknikak ematen du erraztasun hori, baina produktuen bizitza komertzialak ez du ematen erraztasunik. Produktuek badute bizitza bat: lehenengo zinema-aretoetara joaten dira; gero, dendetan jartzen dira salgai DVD eta horrelako formatuetan; gero, hortik joaten dira ordainpeko telebistetara; gero, hortik joaten dira telebista doakoetara, eta normalean laugarren urrats horretan etortzen dira ETBra: orduan bikoizten dira, orduan jartzen dira euskaraz. Horrek zer dakar? Produktu hori merkatuan jartzen dena, DVDA, urrats bi lehenago egin da. Orduan, ez da egoten modurik gero jada merkatuan dagoen produktu horretan euskarazko bertsioa sartzeko edo. Euskarazko bertsioa, ETBk prestatzen duena, askoz ere geroago prestatzen da, orduan, ez da egoten modurik hori merkatuan jartzeko.

Entzulea (Marian Galarraga).- Hala ere, zuk [Asier Larrinagari diotso] esan duzun horretan arrazoi duzu, baina gaztelerazko bertsioan da aurrena zineman, gero DVDRa pasatzen dute eta azken urrats bezala ETBk euskaratzen duenean jada DVDan dago, baina, gazteleraz; ez, euskaraz. Orduan, aprobeitza daiteke euskarazko bertsio hori beste DVD batzuk ateratzeko. Eta esate baterako, oraintxe Woody Allenen bost film jatorrizko bertsioan atera ditugu eta katalanez, euskaraz eta gazteleraz azpidatzita. Hau da, berregiterik badagoela, nahi izanez gero.

Entzulea (Kaiet Estrada).- Azaldu nahi nuke nik DVDaz hitz egin dudanean, ari nintzela lehendik euskaraz bikoiztuta dauden produktuez. Batzuetan gertatzen da bikoizketa gero egiten dela, DVDA merkatu-ratu ondoren, eta ulertzen dut DVDan ez sartu izana. Baina, esate baterako, aste honetan edo hurrengoan atera behar dute Pas-

soliniren *Pasioa*. Film hori izan 83an emititu zuen ETBk euskaraz. Beraz, bikoizketa horrek badarama denbora erabili ahal izateko eta DVDAk ez du ekarriko euskaraz.

Ni beti nabil hitz egiten bikoizketa dagoen kasuan; bikoizketa gero egiten bada, gauzak ulertzen dira, baina bikoizketa asko dau-de eta ikusten ari naiz, bada, *Star Wars*, *Indiana Jones* eta ez dakit zenbat film euskaraz ETBn ikusita nagoena ez daudela DVDan. Zinemako bikoizketa batzuk geroak dira, baina, ni beti nabil hitz egiten lehendik daudenaz: telesail pila bat ere badira, eta produktu bat egonda, ez erabiltzea...

Kataluniaren kasuan, akordio batzuetara heltzen dira ez gertatzeko lehen esan duena, bikoizketa gero egiten dela. Hango telebistak filmak aurretik erosten ditu eta horrekin lortzen du zinemetara katalanez bikoiztuta heldu ahal izatea, eta gero bikoizketa hori norbaitek DVDan erabili nahi badu, ez dio kobratzen: materiala ematen dio eta ez dio kobratzen bere logoa DVDan agertzen bada. Baina beste egunean egon nintzen ETBz galdezka eta badirudi hemen euskarazko bikoizketa sartu ahal izateko bikoizketaren kostuaren erdia kobratzen diotela edo hori dela erreferentzia prezioa. Ikusita gure merkatua txikiagoa dela, gaztelera edukita merkatu osora heltzen direla, eta dirutza bat dela euskaraz jartzeara, orduan, noski, nik ikusten dut: editatzailea banintz, nahi izanda ere ez nuke jarriko: azkenean, produktu bat da, merkatu bat da, eta dirua dirua da...

J.E.- Datu interesgarria da aipatu duzun hori. Gogoratzen egon naiz: orain dela urte batzuk izango zen eta ahaztuta daukat zer film zen, baina nik uste dut oihartzun handiz etorritakoa zela —normalean, Amerike-

tatik etortzen dira filmak oihartzun handiz, hau da, ikaragarritzko publizitatez eta abar-, eta Pujolek deklarazio publikoak egin zituen eta defenditu zuen hori katalanez jarri egingo zuela eta ez dakit zer. Jakina, nik, orduan, Ardantza egongo zen gobernuburu-barkatu: ez daukat argi nor eta zer izan zen-, baina nola ez den egon argibiderik horretan edo, hobeto esanda, bide argirik horretan, berdin zait Ardantza izan zeinen gaurko lehendakaria izan, nik ez nuen imajinatzen gure lehendakaria –dena delakoa izanda ere–dena delako film bat euskaraz jartzearen aldeko deklarazioak egiten; orduan ez nuen asmatzen eta gaur ere ez dut asmatzen; bai deklarazio generikoak-eta egiten, baina produktu konkretu baten harikokak, ez. Baina Pujolen deklarazio haiek gugana ere heldu ziren. Horregatik diot: hain plano diferentean gaude, hain estamentu diferentean gaude!

Baina interesgarria da datua; interesgarria da zuk diozun hori.

Hemen badago Hizkuntza Politikarako eta kultura politikarako eskakizunik [Entzuleei, oro har].

Entzulea (Aitor Zuberogoitia).– Nik beste galderatxo bat. Hor aipatu da dirutza, garestia dela filmak bikoiztea. Eta beste batetik ere aipatu du azpidazketarena. Nik nahi nizuke galdetu ea nola ikusten duzun azpidazketaren aukera hori kontuan hartuta Europar leku askotan horrela egiten dela: ingelesez ikusi filma eta azpidatzita norbere hizkuntzara: bai Portugalen, Herbehereetan, Eskandinavian eta leku askotan horrela ikusten dela.

J.E.– Nik uste dut gauzak aldatuz joango direla. Horrelako bitarte batean gaude: bitarte horrek zer esan nahi du? Alde batetik,

bai penintsulan eta baita Euskal Herrian ere ohituta egon gara filmak gazteleraz entzuten eta gazteleraz jarraitzen, eta gainera gaztelerazko bikoizketa nahiko ona ZEN. Gaur egun, denetik entzuten da. Diot: bazeukan itzal bat. Batez ere zinemarako egiten ziren filmetan, bikoizketa polito zaintzen ZEN, eta horregatik oihartzun indartsua zeukan Espainiako bikoizketak.

Zu irteten bazara eta Irundik gora bazoaz eta Paris pasatzen baduzu, eta hona edo harantz bazoaz edo Alemaniara edo horrelako lekuetara –noski, guk agureok ez dugu eduki aukera gehiegirik hortik zehar ibiltzeko-eta-, bat-batean konturatzen zara, gaur egun, ingelesik ez badakizu, galduta zabiltzala. Galduta zabilta. Orduan, nola dator-kigu etorkizuna? Gure umetxoek, zorionez, esate baterako, nire seme-alabek –hiru dauzkat eta hirurek dakite ingelesez-, gaizki edo ondo, baina munduan zehar ibiltzeko badira. Ni nekez ibili ninteke munduan zehar nire ingeles pattalaz. Baina gure umeek denek jakingo dute ingelesez nahiko txukun antzean, eta helduko da momentu bat, bada, filmak, ingelesez badator behintzat, ingelesez entzuteko ohitura hori hartuko dena. Eta egia da: Europako herrialdeetan, Norvegian, Finlandian, eta abar bazoaz eta han normala da filma jatorrizko bertsio originalean entzutea eta gero azpidatzirik ikustea film hori. Hona helduko ote den hori? Nik baietz uste dut, hori gainean daukagula; hau da, urteak aurrera egin hala gure biztanleriak ingelesaren jabetza edo behintzat jabetza minimoa eskura edukiko du, eta, beste alde batetik, interesgarria izango da ingeles hori menperatzea mundurako.

Orduan: nik uste dut gauzak bai aldatuko direla zentzu horretan. Orain: jarraitu,

jarraituko du euskarazko emisioak ere, baina, agian, gehiago jarraituko du beste zentzu batez. Baina hori igarkizunetan ibiltzea litzateke. Kontua da azpidazketaren mundu hori asko jorratu izan zela lehen ETBn, hau da, telebistaren lehenengo urteetan den-dena azpidazten zen. Zu oraindik gaztetxo zera, baina hasierako urteetan –urte luzez, gainera–, filmak bikoiztu ez ezik, azpidatzi ere egiten ziren. Orain urteak dira jada azpidazketa kendu egin izan dela, eta badirudi azpidazketaren posibilitate hori aztertzen ote dabiltzan entzunda daukat ETBn. Behintzat aspaldian badabilta hor zurrumurruak eta, baina gorrentzako eta beste era batzuetako arazoak dituztenentzako zer berezi moduan, edo pixka bat orientazio berezi batekin-edo egingo ote diren-edo... Hor ere dena izango da “Poderoso caballero es Don Dinero”. Hark esaten zuena: “Hain pobrea zen ze, hain pobrea, dirua besterik ez zeukan”.

Ez, posibilitate moduan hor dago zer emango duen? Nik hor bai indarra eman nahiko nuke eta gai hori gehiago litzateke nirea, hau da, bide administratibo eta horiek baino gehiago hauxe litzateke: zelan azpidatzi beharko litzateke? Bai, gai tekniko da, eta ez gara sartuko horretan.

Asmarena erabili beharra daukagu dena dela. DVDarena asmaketa ez ezik asmarena ere bada, eta guk ez diogu probetxurik atera. Azpidazketarena asmatuta dago, eginda dago, esperimentatuta dago... Ez da egin jatorrizko bertsioa entzun eta azpidatziz jarraitze hutsa. Hor ez gara ausartu. Gauza asko tartekatzen dira.

Entzulea (Josu Barambones).– Kontua da edo arazoa da zuek aipatzen duzuen aro hori dagoeneko iritsi dela. Euskaraz izan

ezik, gainerako hizkuntzetan, gaztelaniaz eta ingelesez, gaur egun, telebista digitala duen edozeinek aukera dauka telebistak emititzen dituen programak –beti ere programak emititzen dituen telebistak aukera hori zabaltzen badu–, film hori edo telesail hori, nahi duen hizkuntzatan ikusteko ingelesez, gaztelaniazko azpidatziekin, ingelesezko jatorrizko bertsioan... Gaur egun hori badago merkatuan eta nor bere etxean, beti ere telebista digitala baldin badauka, eta ETB 1ek oraingoz aukera hori, nik dakidala behintzat, ez du eskaini eta ez dakit eski-ko duen. Hori batetik.

Beste kontu bat edo beste datu bat ere eman nahi nuke: Katalunia aipatu duzue eta oker ez banago, iaz, Katalunian, areto komertzialetan bakarrik, 130 film estreinatu ziren. Hemen ez dakit: hamabi bat-edo? Gero, agian, Marian Galarragak emango dizkigu datu zehatzagoak, baina, aldea izugarria da. Gero, hiztun kopuruak kontuan hartzen baditugu, aldea ere oso handia da: han bost milioi katalan hiztun daude, hemen bostehun-seiehun mila, ez dakit, hor nonbait.

Eta azkenik, nik ez nioke Administrazioari erru guztia botako. Ikusleek ere erruaren zati bat ere izango dute. Ezin dugu pentsatu Administrazioak salbatuko gaituela, hau da, ikus-entzunezko itzulpenei dagokionez, hau da: “Administrazioak diru guztia jarri behar du”. Bai, ondo, baina gero ikusleek ere erantzun beharko dute, jakin beharko genuke gaur egun euskaraz dauden DVDak zenbatek erosten dituen. Arazoa konplikatu da.

J.E.– Egia esan beti goaz moralina horretara eta joera daukagu errua besteek daukela esateko. Nik neuk diot Administrazio-

ak erru potente bat daukala. Eta guk, lanbide horretan dihardugunok ere badugu erru zati bat, baina *mea culpa* ematen jada lepoa minduta daukat; orduan, neure buruari ez diot *mea culpa* gehiagorik esango eta kito, baina, egia da: guk gauzak hobeto egiteko posibilitatea badaukagu. Lana hobeto antolatuko bagenu, hobeto estrukturatuko bagenu, hobeto gai egiteko bagi... bagara, gainera. Bagara. Hortaz, errua, diot, horretan dihardugun enpresok ere badaukagu. Zergatik? Garbigailu hori ez dugulako fin amaitu, Fagorren kasuan, eta gure kasuan beste horrenbeste. Hau da, itzulpena ez dugulako egin behar besteko zolitasunez eta segurtasunez eta erakargarritasunez, hori gurea ere bada. Produktu onak beti dauka salmenta hobe eta hori gure errua da.

Eta beste arlo bat da zuk zeuk aipatzen duzuna. Galdera da, ETBren hasieran egiten zen galdera, eta gogoan daukat –Amatiñok egiten zuen galdera hori–: Nola egin bostehun mila lagunentzako telebista bat? Kontuan harturik telebistagintza, bere orokorrean, produktu garestia dela, kostoso dela. Gaur, teknikak eskura aukera gehiago eskaintzen dizkigu. Pentsa ezazue nola diren gauzak, eta txotxolokeria bat dela esango duzue, baina, horrela da: ni lanean nabilen enpresako nahasketa mahaia lehenengo genuena Tack markakoa, mahai hau baino handiagoa zen, dena botoiz eta teklaz eta trastez beterik, dena argiz eta dena... Pentsa zenezakeen Ilargira gindoazeneko horrelako suziriren bat zela. Eta ordaindu genuen hamaika milioi peseta, orduan. Orduan, sekulako inbertsioa zen. Gaur, lanbide berdinerako, zeregin berdinerako, hau da, nahasketak egiteko darabilgun mahaiak 70 cm ez ditu edukiko, eta mahai handi hark

baino aukera gehiago dauzka eta zazpiehun mila peseta balio ditu. Pentsa zelan aldatu diren gauzak!

Eta zuk diozuna: eskura daukagu botoitxo bati sakatu eta bertsio originala entzuteko, zein azpidatzirik entzuteko, zein gorrentzako aukeraz entzuteko, zein bikoizketa bakarrik entzuteko, zein... Hori, lasterrera, ez bakarrik denok eskura; lasterrera ez da beste aukerarik izango. Analogikoa jada kenduko da eta produktuak zentzu horretan sartuko dira haizeetara, eta gero zuk zeure errezeptorean zer nahi duzun haritik entzungo dituzu. Hori nahi izanez gero, gaur hor dago, baina, produktu guztiak ez daude elaboratuta zentzu horretan, hori ere horrela da. Hemendik bi urtera edo urte eta erdira-edo, legez kendu egingo da sistema analogikoa eta dena digitalizatuta egongo da. Orduan, derrigortuta zaude zuk telebista digitala edukitzera, eta telebista digital batek –eta gainera merke egongo dira hainbatean–, bada aukera horiek guztiak ditu. Hori gainean daukagu. Asuntxo da: gu gertu gaude datorkigun aukera edo euskarri teknologiko horri erantzun egokia emateko? Hori da bat. Bai Administrazioetik, bai horretan dihardugunon aldetik eta baita entzulegoaren aldetik ere. Oso erraza da gaur egun, besaulki apatz-apatz batean eseri eta hartu urrutiko agintea (“mandoa”) eta pi-pi-pi pi-pi-pi egin. Bai ba: “Homo zapings” gehiago gara *Homo sapiens* baino-edo. Hori, errealitate bat da, eta utzi dezagun alde batera.

Gero beste alde batetik, guk gaztaroan eta edukitzen genituen amets oso herrizaleak, “euskararen alde odola eman behar da”, eta horrelako gauzak. “Olvídate, tio”. Hori ez da existitzen jada. Existitzen da: “E, hi, ni

euskalduna nauk". "E, hi, nik eskubideak zauzkat". "E, hi, nik nahi dudanean"... Baina nire etxeko askatasun esparru horretan, nik egiten dut neuk gura dudana eta aukera teknikoek eskaintzen didaten guztia. Eta zein da? Bada, nik tik egin eta: *Erromeria Aretxabaletan*. Ostera sakatu, tik, eta: *Tintin eta Txernol*. Jode, marrazki bizidunak!: *Kotxikame* edo *Shin Chan* edo "Pin-txon"... Bai, nabil hitz egiten pixka bat zentzu despektiboan, baina gure eskumenera egongo da aukera. Eta, nik uste dut denok ahalegindu beharko dugu, aukera horiek eskura jartzen ahalegindu beharko dugu, baina ikusiko da, ze hemen beste "roilo" bat dago hor norbaitek esan duena: bai, Administrazioak ordaintzen du, noski, ordaintzen duela! Baina gero telebistek ere beste obligazio bat daukate, ez dakit, %30 edo publizitateetik lortu behar dute, eta publizitatearen legea bat da: "entzuten da, sartuko dut; ez da entzuten, ez noa sartzera. Zenbat entzuten da? Honenbeste sartuko dut". Beharkizunak alde guztietatik daude.

Nik ez dakit etorkizuna triste jarri duan edo ez, baina gauza bat nahi nuke, bertsolari hark esaten zuena: "Kantatu nahi dut bizitza, usteltzen ez bazait hitza / mundua dantzan jarriko nuke jainkoa banintza".

Entzulea (Kaiet Estrada).- Bi gauzatxo, azpigituluiez. Nik argi jarri nahi nuke azpigituluak orain arte ez zirela erabiltzen analogikoki nahi zenuen aukerarik ez zegoelako, orain arte ezin zen egin; baina azpigituluak egitea nahiko merkea da: bikoizketa egiten denerako, itzulpen hori hartu eta egokipen txiki bat egitea nahikoa da, eta hori ordu erdian-ordubetea egin daiteke, gutxi gorabehera... Itzulpena edukita azpigituluak moldatzea ez da hain, aurreko lan bat apro-

betxatu daiteke behintzat eta horren berezko kostua asko txikitzen da.

Eta gero bestetik: batek galdera egin du lehen, ea zenbatek erosten ditugun DVDak. Niri gertatu zait, erosi *Dark Water* film japoniarra, beldurrezkoa, eta nire harridura: aparatuan sartu eta euskarazko bikoizketa zekarren, baina, kutxan ez du jartzen euskarazko bertsiorik duenik. Hor badira produktua, baina nola salduko dira, nola jakingo du norbaitek film hori euskaraz ikusi dezakeela ez badago informaziorik. Alde horretatik, dendetan eta erostera joaten zarenear, produktu baten euskarazko bertsioa ez badugu publizitatzen ez du inork erosi; noski, esan dezakegu "ez du inork erosten", baina kanpoko azalean ez badu esaten ezaugarri hori baduenik, nola salduko da?

J.E.- Ondo diozu hori: Publizitatzen ez bada, nola saltuko da? Eta gutxi erosten badira eta publizitaterik egiten ez bada, orduan eta gutxiago, baina hala da. Lehen aipatu dut: publizitatea egiten da saltzen den produktuekin, saltzen ez diren produktuekin ez da publizitaterik egiten garestia delako, publizitategintza garestia delako, hori bat.

Beste alderdi batetik, gure herrian erabiltzen den irudi batekin erantzungo dizut, azpidazketak direla eta ez direla: "Beroena kendu". *Beroena kendu* esan nahi du zuk esajerazio bat esaten duzunean edo handikeria bat botatzen duzunean... "Bueno, bueno, hainbeste ere ez duk izango, ezta?", eta orduan esaten da "Hi, horri beroena kendu iezaioi". Hau da, ordubetea azpidatzi daitekeela film bat... Bueno, jada gaurtik kontratatuta zaude nire enpresan, gaurtik. Eta, gainera, nik baino gehiago ira-

baziko duzu. Hori horrela balitz, baina nik badakit hori horrela ez dela...

Ez, baina esan nahi dizut: egokitze lanarekin gertatzen den antzera, azpidatziak ere bere erritmoak dauzka eta dauka bere irakurgaitasuna, hau da, ikuslearen edo kasu honetan irakurlearen irakurtzeko gaitasuna, eta nik badakit segundo bitan zenbat irakurri daitekeen. Eta gauzak jada segundo bira ekarri behar dituzunean, ikaragarritzko sintesi lana egin behar duzu, eta, beste alde batetik, ezin duzu bertan behera utzi filma aurrera doala... Eta bost minutuka ezin duzu subtitulu bat sartu –zeren ordubetea egin nahi baduzu bost minutuka sartu behar duzu subtitulu bat, zerena bestela ez duzu amaitzen–. Baina zuk segundo birik behin

edo hiru segundorik behin subtitulotxo bat sartu behar baduzu eta azpidatzi horrek ezin ditu eduki 32 karaktere baino gehiago eta, gainera, bi lerrotan idazten baduzu, konplikatu egiten duzu irakurketa gaitasuna eta beste zazpi mila kontu oso tekniko... Barkatu, baina, ordubetea ez dituzu egiten lau minutu; ez dituzu egiten.

Hori diotsut esperientziaz, eta horregatik, “beroarena kendu”. Eta beroarena kendu da, orain, sasoi honetan, txerria egiten denean, zuk auzokoarekin egiten baduzu erdibana txerri hori, pisatukeran, hil bertan berotan daukan gehipisua kendu egin behar diozu. Hau da, gehiegizkoa kendu egin behar diozu; hotzetan gutxiago pisatzen du eta.

Euskarazko Bikoizketa-Topaketa

IÑAKI ZUBIZARRETA, *XUBI*

Mixer-Edertrack. Bilbo.

Iñaki Zubizarreta, *Xubi*, gipuzkoarra da, Azpeitian jaioa.

Frailletzan 11 urte egin zituen: bost urtez Humanitateak ikasi zituen; hiru urtez Filosofia eta bi urtean Teologia ere bai. Gero, utzi bizimodu hori eta Donostiako Herri Irratian sartu zen 1970ean. Kulturako saioen ardura izan zuen irratian eta euskarazko saioak prestatzen zituen: prestatu, idatzi, lokutatu... dena, bere esku.

Irratian lanean ari zela, Lingüistika Erromanikoa ikasi zuen (1970-1975), Donostian. 1983an, irrati utzi zuen eta FIBIZEn ikastaroak eman zituen. (FIBIZE, goizeko aurkezpenean esan dugunez, Irrati-Telebista Eskola hartako zerbitzu bat izan zen, Euskal Telebistarako lehenengo bikoizketak egin zituen). Iñaki Zubizarretak berak FIBIZE horretan ikastaroak eman zituen: jendeari mikrofono aurrean hitz egiten eta irakurtzen erakusten ibili zen.

Segidan, ikus-entzunezkoetako Eresoinka enpresa sortu berrian hasi zen lanean, Donostian; gero, enpresa horrek Irusoin izena hartu zuen –Andoainen izan zuen egoitza lehendabizi eta ondoren Donostian–, eta orain Mixer enpresan da, Irusoinen eta Edertrakek euskarazko bikoizketarako bat egin dute eta. Eresoinkan, Irusoinen eta Mixerren, hiru enpresetan, hizkuntzaren ardura izan du beti Xubik.

EIZIEko kide ere bada sorreratik beretik, eta bi urtez lehendakari ere izana da.

Lehendabizi esan nahi dizuet oso gustura nagoela zuen artean.

Izango duzue, noski, Beatriz eta Josuren liburu honen berri [Barambones, J. eta Zabalon-
do, B. (2006): *Ikus-entzunezko itzulpena*. UEU, Bilbo]. Bertan zehatz-mehatz azaldu dute zer den itzultzea eta egokitzea, eta ez dugu hemen xehetasunetan sartu beharrik. Nahikoa izango dugu ezaugarri nagusiak nabarmendu eta argitzea. Ez ahal ditugu bederen ilunduko!

Audiodeskripzioa

Gure gaiari zuzenean heldu baino lehen, hemen oraindik oraintsu hasiak diren bi komunikazio modu berri aipatu nahi nituzke, liburuan ez datoz-eta: audiodeskripzioa itsuentzat eta azpidatziak gorrentzat moldatuak, ezagunago zaizkigun bikoizketari eta azpidatzi normalari gehitzekoak.

Ez da oraindik gure artean plazaratu, baina Mixerren itzulia dugu *Aupa Etxebeeste* filmaren gidoi audiodeskribatzailea itsuentzat, gaztelaniatik euskarara, gaztelaniaz gu baino lehen hasiak dira-ta horretan ere. Gaztelaniazkoa ikusiko dugu, zuek jabetzeko gutxi gorabehera zer den audiodeskripzioa.

[Segidan, *The Silence of the Lambs* (*El silencio de los corderos*) filmaren “La fuga” sekuentzia proiektatu da. Audioa: gaztelaniazko audiodeskripzioa]. Hona transkripzioa:

“Sobre la mesa de Lecter una pequeña grabadora con una cadena en el asa suelta. Al lado hay un dibujo de la joven policía, con un cordero en el brazo. Al fondo, tras el biombo, con camiseta y pantalón blanco, está Lecter de pie. Dos policías se acercan. Uno de ellos lleva una bandeja con comida.

—Cuando usted quiera, doctor.

—Un momento, por favor.

Lecter, tras el biombo, escucha la música con los ojos cerrados. El policía pone la bandeja en el suelo, mientras el otro abre la red.

—El hijo de puta ha pedido otra comida. Chuletas de cordero muy crudas.

—¿Qué querrá para desayunar?

—¿Algo como la porquería del zoológico? [RIEN]

Uno de los policías le pasa al otro la defensa. Lecter, todavía con los ojos cerrados, saca por entre sus labios el clip del lapicero. Abre los ojos y lo coge con la mano.

El policía le da al otro un spray de defensa química. Lecter sale de detrás el biombo mirándolos y se acerca.

—Buenas noches, caballeros.

—Bien, doctor. Al suelo, vamos.

—Como siempre.

Lecter oculta entre los dedos de su mano izquierda el clip. La cierra, y de espaldas a los barrotes se sienta en el suelo con las manos atrás.

—Cuando usted quiera, sargento Pembry.

Éste saca las esposas del cinturón, se agacha y se las pone en las muñecas del homicida, que ha sacado las manos por entre los barrotes. Una vez puestas, se asegura de que están bien sujetas, tirando de la cadena que las une.

—Ya está.

Casi sin emitir sonido, el asesino tararea la música.

Lecter con el clip abre las esposas.

El policía con la bandeja entra.

—Gracias. Cuidado con los dibujos, por favor. Gracias.

El policía mira donde ponerla. Al final la pone en el suelo, junto a Lecter. Se levanta y enrolla los dibujos que hay encima de la mesa.

El otro policía saca la llave de la cerradura. Cuado éste va a coger la bandeja, Lecter le pone una esposa en una mano y la otra la cierra en uno de los barrotes.

Lecter le da una patada a la puerta, golpeando al otro policía. Después se levanta y con la cabeza cogida del policía le da un bocado en la cara. El sargento mira impotente cogido con las esposas en los barrotes. Lecter con la boca llena de sangre, golpea la cabeza contra los barrotes. Luego coge el spray del policía y le pulveriza en los ojos. Éste cae al suelo frotándose los ojos. Un trozo de carne le falta en su mejilla.

El sargento mientras trata de abrir las esposas, mira desfavorido lo que está sucediendo. Lecter lentamente blande la defensa del policía y lo golpea varias veces.

En el suelo, junto al brazo del policía caído está la bandeja. Junto a ella hay unas llaves, un encendedor, una navaja y la defensa del policía. Cerca de la cabeza hay charco de sangre.

Lecter, con la mano manchada de sangre, sigue el sonido de la música. Con los ojos cerrados mueve su cabeza rítmicamente”.

Esan dizuedan bezala, guk egin dugu *Aupa Etxebeste* filmaren audiodeskripzioa. Oraindik argitaratu gabe dago. Horregatik ezin izan dut ekarri hona, zuei erakusteko.

Esan egingo dizuet hitzez nola den. Ohar hauxe egiten digu kontalariak hasieran, DVD horretan:

“*Aupa Etxebeste* filmaren DVDaren menuan zaude. Aldagailuaren Gora ta Behera geziekin menu honen aukeretara sar zaitezke: audiodeskripzioa eta ohiko menua.

Audiodeskripzioa aukera hautatu duzu. Sartu nahi baduzu, OK sakatu.”

Eta halaxe sakatuta, audiodeskripzio honetako zati bat irakurriko dizuet neuk, tamalez ez daukagu-ta eskura oraindik DVDa.

“Aupa Etxebeste!

Musika banda bat proba saioak egiten lokal batean. Zuzendariaren atzean erraldoiak eta buru-handiak.

Tabernan Patrizio hizketan, Luis eta Julianekin, eta bezeroak ere adi. Zezenaren gainetik ezten haga altxatzeko plantak egiten. Mugikorra atera du. Badoa. Luis eta Julian barran. Luis eta Julian tabernariari begira.

Emakumeen ile apaindegi batean. Maria Luisa sartu da.

Musikariak badoaz lokaletik, musika tresnak soinean gurutzatuta.

Iñaki eskaileran gora doa plazarako bidean. Goian hiru lagun dauzka zain, eta haiekin doa oinez. Kanpandorrera doaz.”

Jabetuko zineten honezkero komunikazio modu berri honek euskarari ekar diezaiokeen onuraz, aurrera egiten badu eta zabaltzen bada, noski.

Azpidatziak, gorrentzat moldatuak

Aupa Etxebesteren azpidatzi hauek ez dira euskaratu, izan ere gorrek ez dakite euskaraz irakurtzen, ez dute-ta oraindik ez irakaslerik ez ikasbiderik. Horregatik gaztelaniaz utzi behar izan ditugu.

Azpidatzion ezaugarrietako bat da efektuak adierazi beharra. Horrela dira *Aupa Etxebesteko* batzuk:

“Agua sobre parabrisas. Música. Murmullos. Campanada. Pitido. Apertura de puerta. Cierre de puerta. Ventilador de secado. Picaporte ventana. Maullido...”

Beste ezaugarrietako bat kolorea erabiltzea da: pertsonaia bakoitza kolore bati lotuta, entzumen urriko ikuslea aise ohartuko da nori dagokion elkarrizketa-lerro bakoitza.

Azpidatzia eta bikoizketa

Liburuan aipatzen da labur eta aurreko saioan ere zerbait aipatu da azpidatziari eta bikoizketari buruz. Alde honetatik, baten batek idazten du biek dutela bere bidea eta abar. Aldeko eta kontrako, arrazoi asko atera daitezke.

Hizkuntzaren ikuspegitik ez dago, nire ustez, inolako zalantzarik. Bata ala bestea hautatzekotan, bikoizketaren alde egin beharra dago apustua, izan ere hizkuntzaren diakronian, eta sinkronian ere bai, ahozkoa da aurrena, funtsezkoa. Idatzia gero dator, gerokoa da. Idatziak ahozkoan du oinarria, lehen eta orain. Beti.

Frantzian eta Espainian ondotxo dakite hori: ezinbesteko dute ingelesetik babesteko. Guk, hemen, arrazoi doblea dugu: ingelesetik eta gaztelaniatik edo frantsesetik babesteko, alegia.

Hizkuntzan, garrantzizkoena hitza da: belarria eta mihia. Azpidatziak ez du hori lantzen. Azpidatzia idatzi hutsa da. Hizkuntzari zeinek zerbitzatzen dion hobeto, ez dago zalantzarik, nire ustez, zeinek laguntzen dion lantzen.

Eta honenbestez, gure gaiari helduko diogu.

Itzulpen-egokitzapena

Euskara lantzeko bide oparoa da, artisau lana, nolabait. Eta langaia hizkuntza bera da. Artisau lana bakarrik ez, sortze lana ere bada.

Hiru arlotan egiten dugu lan, batez ere, gaur egun: Film, dokumental eta marrazki bizieta. Garai bateko telesailak, bai gazteentzakoak bai helduentzakoak, atzenduak ditu erabat ETBk. Adibide batzuk ikusiko ditugu:

[*Lagun Kutun Berria* filmeko sekuentzia bat]

[*Gizaki ipotxak: Floresko hobbitak* dokumentalaren zati bat]

[*Anne Etxe Berdekoa* marrazki bizien zati bat]

Filmak bere gidoia izaten du: aurrez sortu eta landutako ahozkotasuna da ikus-entzunezko testuetan ageri dena. Ahozkoan du oinarria testuak. Eta hizketan komunikazioa berehalakoa da, gertaeraren harian doana. Elkarrizketa biziak dira filmen ezaugarri.

Beste estilo bat dute dokumentalek: kontakizuna da funtsean: edukia leial azaldu, euskaraz kontatuta. Dokumental mota asko daude edukien arabera: herrien kultura-ohiturak, zientzia, animalien jokabideak...

Marrazki bizieta ere, filmetan bezalaxe, elkarriketa da nagusi. Haurren hizkera zuzena, baina ez pobrea: ez dira tontoak, aise hartzen dute dena, eta ikasten.

Artisau lana dela esan dugu, eta haxe irakurri dugu Beatriz eta Josuren liburuan: “Esaldi bat idatzi, probatu egokia den, eta ez bada, beste bat idatzi eta berriz probatu, harik eta esaldi egokiarekin asmatu arte”. Lehen bertsioa, jatorrizkoari leiala. Bigarrena, begiak itxita. Nola esan euskaraz hori? Ez du zertan denboran izan aurren/bigarren, euskaraz berehala etor dakioke lan horretan trebatuari.

Neu ere ibilia naiz itzultzen, eta anekdota txiki bat kontatuko dizuet. Pio Barojaren *Mari Beltza* ari nintzen itzultzen –argitaratu gabea da; etxerako– eta zati honekin bueltaka ari nintzen orain dela urte batzuk:

“¿Por qué lloran los hombres cuando nacen? ¿Será que la nada, de donde llegan, es más dulce que la vida que se les presenta?”

Ezereza, nondik datorren eta antzeko esapideen inguruan bueltaka ibili eta gero, halako batean *jatorrizko* hitza bururatu zitzaidan, hain ezaguna. Honelaxe itzuli nuen pasarte hori:

“Zergatik egiten dute negar gizakiek jaiotzean? Jatorrizko ezereza gozoago ote da, ba, aurrean duten bizitza baino?”

Batzuei gustatuko zaie, beste batzuei ez. Niri horrela gustatu zitzaidan.

Gure itzultzaile-egokitzaileei horixe gomendatzen diet nik: emateko bigarren edo hirugarren buelta; alegia, nola esango nuke nik –edo esaten dut– euskaraz ari naizenean, horixe bera, egoera horretan. Hona adibide batzuk, esan nahi dudana argiagotzeko.

Aspaldi honetan sarri azaltzen da *O, ez!* esapidea. Euskaraz ari garenean ez ote dugu ia beti *Ez, ba!* esaten. Lehen behintzat bai, eta orain ere, nik uste. Eta kontrakoa: *Bai, ba!* Honek badu, halere, beste erabilera bat. Itzultzaile gehienek, bati zerbait bururatu zaiola adierazteko, *Badakit* itzultzen dute (*¡Ya sé!*); eta batzuek *Hori da!* (*¡Eso es!*) Eta gutxiak itzultzen dute: *Bai, ba!* Eta nire ustez *Bai, ba!* erabiltzen dugu gehienetan eguneroko hizketan. (“Bai, ba! Amari esango diot eta berak konponduko du arazoa”.)

Hizkuntza guztiek dituzte makulu gisa formula labur eta adierazkorrak: gaztelaniaz *A propósito/Por cierto...* adibidez. Horren ordainetan esapide luze-baldarrak ikusten edo entzuten ditugu sarri euskaraz –ez dut esan nahi oker daudela–: *Horretaz ari garela, Kontu horri dagokionez, zeuk hori aipatu duzula*. Baina hori adierazteko baditugu guk ere geure formulak: *Izan ere, horiek horrela. Izan ere* badu, jakina, beste erabilera ezagun bat, kausazkoa: “Izan ere berak ez zekien ezer. Horregatik esan zion hori”. Baina eguneroko hizketan, *A propósitos* ordain ere bada. Adibidez: “Izan ere, non bizi da hire lagun hori?”

Badira, halaber, *Y que lo digas*, eta horrelakoak: *Hori esan! Bai, gizona!*

Gauza horiek, egunero esaten ditugun makulu horiek ondo eman behar ditugu euskaraz. Eguneroko gauzak ondo esaten ikasi behar dugu lehendabizi. Egunero gauza horiek esaten dira eta. Horregatik dator bigarren bueltaren kontu hori; garrantzitsuak direlako eguneroko hauek. Pentsatu behar dugu: “Nik nola esango nuke kontu hori?”.

Analogia eta sinonimoetan adituak ditugu egokitzailleak, arituak direnez, baita onomatopeia eta interjekzioetan ere halabeharrez: oro har, hizkuntzaren baliabide guztiak erabili beharrean aurkitzen dira. Eta horretan lagun dute zuzentzailea.

Zuzentzailearen ekarpena

Okerren bat ikusita, zuzentzeaz gainera, badu beste ekarpenik zuzentzaileak. Hurrengo baterako egokia izango litzateke horretaz jardutea, egokitzailleek jakin dezaten zer den zuzen eta zer oker gure iritziz.

Hona zuzentzailearen ekarpenak:

- a) Zuzentzaileak egokitzaileren loreak bildu behar ditu. *Loreak* esan nahi dut, asmatu dutenean gauzak ondo esaten-eta; orduan zuzentzaileak adi egon behar du eta egin behar duena da egokitzaileren loreak bildu eta zuzentzerakoan bataren eta bestearen lanetan banatu, ikusle-entzuleei eskaintzeko eta helarazteko.
- b) Gero, estilo berdintsua eman behar dio euskarari telesailetan, ez baititu egokitzaille berak egiten atal guztiak. Hori izango litzateke ideala, baina presaka eta azkar egin beharrek ekartzen du telesail luzeak banatu beharra itzultzaile-egokitzaille askoren artean.
- c) Gainera, gaitasuna badu, zuzentzaileak ahalegina egin behar du estiloa zaintzen eta edertzen. Adibide batzuk jarriko ditut:
 - Gorilarenean lanean etengabe arituko nintzateke > Gorilarenean lan-da-lan jardun beharko nuke. [Gorila pertsonaia da]
 - Ibilbidearen arabera izaten dira ibiltariak > Ibilbidea nolako, ibiltaria halako. [X. Usabigari entzuna albistegian]
 - Hau da nahi nuena > Hauxe nahi nuen.
 - Zeu zara dantzaldira joan behar duena > Zeuk joan behar duzu dantzaldira.
 - Ez nuen inor hitz egiteko > Ez nuen norekin hitz egin.
 - Unetxo bat duzu? > Baduzu unetxo bat?
 - Edateko orduan > Edaterakoan.
 - Nola utzi zaituen! (¡Cómo te ha dejado!) > Txukun(agatik) utzi zaitu!
 - Ez dut harekin bukatu > Ez dut harekikoa egin

Kontua sarri ez da zuzen dagoen ala ez; kontua da zer den errazen, egokien eta ederren, ezta? Zer den adierazkorren, alegia, eta zerk duen erritmo egokiena.

d) Zuzentzaileak adi egon behar du egoera zehatz adierazteko, irudiaren arabera:

- Hemen / hor / han.

Ondo bereizi behar da zer den bakoitza. Askotan gertatzen da “han” esaten dugu “hor” partez. Hauek txorakeriak dirudite, baina niretzat garrantzitsuenak dira: eguneroko gauzak esan behar ditugu ondo. Hasteko.

- Oraintxe / oraintsu / lehentxo

(“Haren ahotsa entzun dut lehentxo”, hurrengo agerraldian bada, beste leku batean)

- Banator / banoa. [Ingeleseztako *coming*; baina mugimenduari begiratu behar zaio: zu hor zaudelarik eta martxan noala, *banator* esango dut; beste dena *banoa* da].

- Alboan / aldamenean / ondoan.

e) Hitz eta adierazpide aukera zabalaz baliatu eta nolabaiteko oreka bilatu:

- Aurki / laster.

- Azkar / bizkor / laster.

- Korrika/lasterka.

- Jarraitu/segitu.

- Orduan/hortaz/beraz.

- Jarri/ipini.

- Dut / daukat (posesiboago).

- Egon / aritu (lanean aritu).

- Egon / ibili (haizea, olatuak... ibili).

- Hurbildu / hurreratu.

- Sentitzen dut / barkatu.

- Urte askotako / pozten naiz / pozgarri da.

- Ezin duzu egin / ez daukazu egiterik.

- Oso gaizki pasatu / gorriak ikusi.

- Berriz / berriro / berriz ere.

- Beste behin (una vez más, zehatz) / berriro (otra vez).

- Ugari / asko (ugari dugu/asko dugu, ditugu)

- Lehenengoa / bigarrena: aurrena / bigarrena.
- Nahikoa dela uste dut / nahikoa da, nik uste.
- Eta baita... ere / Baita... ere/Eta... ere bai. Baitira/dira ta.
- Nora joango ziren? / Nora joan ote dira?
- Ezer gertatzen ez bada / Ezeren okerrik ez bada.
- Baxuago hitz egin / Isilago hitz egin.
- Falta zitzaidana / Ez nuen besterik behar
- Sasoi bakoitzeko / Sasoiari sasoiko
- Kilometro koadro bakoitzeko / Kilometro koadroko

f) Hizkuntza bakoitzaren baliabideak:

Euskaraz errepikatzea, adibidez, oso baliabide aberatsa da, gaurko “super, mega, gigante” eta horrelakoen ordain.

- Gozo-gozoa. Handi-handia. Txora-txora eginda naukazu, poz-pozik (oso pozik) Bete-bete-an. Mendi-mendian.
- Gauaren erdian/gaua betean/gau-gauean.
- Ordu-orduan.
- Baso-basoan (basoaren erdian, basoaren bihotzean)

g) Hitzen ordena: Atzera kargak moteldu egiten du esateko erritmoa. Gure lanean, zuzenean esatea hobe.

- Beharbada arraro zegoen zinemara etorri nahi ez zuelako > Beharbada ez zuen zinemara etorri nahi; horregatik zebilen arraro. (Hizketa zuzenagoan)
- Primeran! Maisua gure etxean hartzeko irrika biziarekin nago > Primeran, irrikaz nago maisua etxean hartzeko! (Aurrez luze aritu dira bisitatzen eta)

***Pertsonaien ezaugarriak*¹**

Marraski biziak, dramatikoak, dokumentalak edo iragarkiak izan, jatorrizkoa da beti eredu bikoizterakoan.

1. Artikulu honetan, **Pertsonaien ezaugarriak** eta **Erregistroak** atalak Karmele Huegun lankideak egindako txostena baliatuta atondu ditut. Hari eskerrak eman beharrean nago eskainitako laguntzagatik.

1.- Marrazki biziak:

Marrazkiak bikoizterakoan libreago joka daiteke nolabait: tonua, modulazioa, estiloa aldatzeko aukera handiagoa dago. Gehienetan bizi-bizia izaten da erritmoa, baina noizean behin izaten da bestelakoak lantzeko aukera ere (*Heidi*, *Kirikou* film luzeak...) eta atsegina da benetan holakoak lantzea.

Batzuetan irudian pertsona direnak bikoiztu behar ditugu, baina beste batzuetan animaliei (oilarrari, untxiari...) edo gauzei jarri behar diegu ahotsa. Pentsa zer-nolako aukera ahots joakoak egiteko.

Bikoizleak.- Berez, ahots mota guztiek dute bere lekua marrazkietan, nahiz azken urteotan batzuek aukera handiagoa izan beste batzuek baino; bikoiztu behar ditugun marrazkiak haurrentzat direlako gehienbat. Ahots helduko pertsonaia gutxiago azaltzen da: ahots gazteak edo haurrenak dira nagusi. Marrazkiena lantzea onuragarri izaten da oso bikoizle hasiberrientzat; ahotsa behartzeko gaitasuna lantzen baita, eta aukera ederra ematen baitie lotsa alde batera utzi eta eman dezaketen joko guztia azaltzeko.

2.- Dramatikoak

Irudi errealek betiere gehiago mugatzen dute bikoizketa: ez dago marrazkietan besteko askatasunik. Marrazkietan bezalaxe esaldi bakoitzaren intentzioa ondo ezagutu behar, baina jatorrizkoari zor zaion leialtasun osoz egiten ahalegindu behar zuhur eta zorrotz, eta horretantxe dago irudi errealak bikoiztearen zailtasuna eta erronka.

Bikoizleak.- Irudiak agintzen du: ahots helduak, grabeak, zartatuak, garbiak, gozoak, gazteak, leunak... denetik behar da, baina, jakina, gaur egun egiten den zineman bezalaxe, protagonismoa gazteek dute, eta ondorioz galai gazteen ahotsentzat aukera zabalagoa dago helduentzat baino.

3.- Dokumentalak

Ez badirudi ere, lanik zailenetakoa da dokumentalak bikoiztearena: erritmoa, doinuak, in-tonazioa... nabarmen geratzen dira akatsen bat dagoenean. Bikoizleak ondo baino hobeto ulertu behar du zer ari den esaten, bestela berehala antzematen zaio eta.

Ahotsak.- Kontalariaren ahotsak egokia izan behar du, nekatzen edo aspertzen ez duena. Gaiak zeresan handia izaten du ahotsa gazteago edo helduago denean. Gehienetan gizonezkoak izaten dira. Oso gutxitan emakumeak, eta ia beti gaiak bereziki hala eskatzen duelako. Gaiak baino gehiago, produktua berak.

4.- Spotak

Presaka samar ibili behar izaten dugu bikoizten, eta segundo gutxitan esan beharrekoak direnez, bizkor eta garbi esaten duten bikoizleek egiten dituzte gehienbat (Ordainketa merkea ere ez da batere lagungarri).

Erregistroak

Nolabait sailkatzearren honela egiten dugu (Bartzelonako eta Madrileko zenbait etxetan bezala):

- 15 urte artekoak. Haurrena emakumeek bikoizten dute. Eduki dugu mutiko bikoizle bat ere, oso iaioa, baina ez da bide erraza: legeak arau zorrotzak ditu oso. Dena den, ez dugu erabat baztertzen haurrekin lan egitea. Ez dute emakume guztiak haurrena egiteko gaitasuna. Ahots erregistroaz gain, oso kontuan hartu behar da hitz egiteko era: ahalik eta naturalena izan behar du, haurren hitz egiteko erari ahal den gehiena hurbiltzen dena. Nerabe direnean, ahots aldaketa nabarmentzen denean alegia, dauzkagun ahots gazteenekin egiten dugu lan. Zalantzarik gabe, hauxe da adinik zailena ahotsekin asmatzeko.
- 15 urtetik 25 urtera artekoak. Neska eta mutil, bakoitza berean noski. Erregistro gazteak behar izaten dira. Gaztea izateaz gain, pertsonaiaren itxurak ere garbi mugatzen du.
- Eta ondoren, nola gizon hala emakume: 25 urtetik 35 urtera artekoak. 35 urtetik 50 urte artekoak. 50 urtetik 60 urte artekoak. Eta 60 urtetik aurrerakoak.

Iragarkiak euskaraz

Hona hiru adibide:

La familia Danone	Danone familia
Danone presenta: "El viaje al país de la alimentación". -¿Preparamos la cena? [TIMBRE] ¿Quién será? -¡Quiero patatas fritas! -¡Chuches! -Hoy también toca verdura. -¡Buaj! El abuelo dice que comer verde es de caracoles.	Danoneren eskutik: "Bidaia elikaduraren herrialdera". -Prestatuko dugu afaria? [TXIRRINA] Nor ote da? -Patata frijituak nahi ditut! -Goxokiak! -Gaur ere barazkiak. -Bajj! Aitonak dio berdea jatea barraskiloena dela.

-Mamá dice que hay que comer de todo. Pero podríamos hacer el tren y averiguar por quéeee. CANCIÓN: “Si quieres crecer y estar fuerte de verdad, hay que comer de todo. De todo hay que probar. La pasta y el pescado también molan cantidad. Con la fruta, la verdura, los yogures... fliparás”. -¡Mirad quién ha venido! - ¡Abuelo! -Dani dice que es un caracol. -¿Por qué? -Es que me gusta todo y también comer verde. -¿Y de postre? -Un yogur Danone. -Si de todo un poco vas a comer, fliparán al verte crecer. -Ssshhh. -Danone. Apuesta por una vida sana.	-Amak dio denetik jan behar dela. Baina trena eginda jakingo dugu zergatik!! -Baaaaiiii!!! ABESTIA: “Hazi nahi baduzu ta benetan sendotu, denetik jan behar duzu, denetik probatu. Pasta ta arraina ere, ezin hola alboratu. Frutarekin, barazkiekin, jogurtekin... gozatu!” -Begira nor etorri den! -Aitona! -Danik dio barraskiloa dela. -Zergatik? -Denetik jatea gustatzen zait-eta. Baita berdea ere. -Eta postera? -Jogurta. -Denetik jan pixka bat. Hazi eta denak pozik erabat. -Xxxx! - Danone. Egizu bizitza sanoaren alde.
--	--

Don Limpio	Don Limpio
-El vinagre es bueno. -Sí, pero contra la suciedad ¡no es tan fácil! -Para limpiar en profundidad está Don Limpio Ph neutro. Su fórmula especial cuida todas las superficies delicadas, las limpia en profundidad y hace que brillen mimándolas. -¡Y qué buen aroma! -Don Limpio Ph neutro. -CANCIÓN: ¡Su magia, su poder!	-Ozpina ona da. -Bai, baina zikinari aurka egitea, jez da erraza! -Sakon garbitzeko, Don Limpio Ph neutroa. Formula berezia du, gainazal leun guztiak zaindu, sakon garbitu eta mimatuz distiratsu uzteko. -Eta a ze aroma! -Don Limpio Ph neutroa. -ABESTIA: ¡Su magia, su poder!

Knorr, Caldo de la Abuela	Knorr, Amonaren salda
-¡Mmm! ¡Está riquísimo! -Es como el caldo de mi abuela. -¿Me estás tomado el pelo? Si es como el caldo de <i>mi</i> abuela. -¿Estás segura? Si es como el de la mía. -¡Sí hombre! ¡Si es el caldo de mi abuela! -¿Estás segura? ... -Pollo y verduras cocidos a fuego lento. Todo el sabor y menos grasa. Caldo de la Abuela. Knorr.	-Mmm! Gozo-gozo dago! -Nire amonaren salda bezalakoa da. -Harpa jo nahi didazu? Nire amonarena bezalakoa da. -Ziur zaude? Nirearena bezalakoa da-ta! -Bai, gizona! Nire amonaren salda da. -Ezetz, benetan! Nire amonaren salda... -Oilasko ta barazkiak su txikitan egosiak. Zapore osoa ta koipea urri. Amonaren salda. Knorr.

Iurretatik dator jatorrizkoa. Testuaren transkripzioa egiten dugu, itzulpena eta egokitzapena: artisau lana hemen ere, eta sortze lana. Labur eta bizkor adierazi beharra gehienetan. Eta azkenik grabazioa eta postprodukzioa.

Lehen adibidean, ikusi duzue, kantua ere badator: musikari batek bihurtzen du kantua ego-kitzailearen testua.

Zailtasunak eta konponbideak. Baliabideak:

Irudiarekiko lotura duenean hitzak itzultzea adabakiz janztea da. Adibide bat ematearren: Bonito del Norte-Zubizarreta. Euskaraz sortu beharko litzateke hitz-irudi jokia, hori da konponbide txukun bakarra, baina adabakiz jantzia joaten da, goitik hala erabakita. Adibide horretan, *hegaluze* esan behar duzu, baina hitz horrek ez du zerikusirik Zubizarretarekin, hankaluzea dela-edo bakarrik. Baina arrainarekin-eta ezer ez.

Tartean irudirik ez denean, euskarazko hitz jokoak ordaindu behar du jatorrizko hitz jokia. Esate baterako:

Sandra parlante no para de hablarte... Sandra parlante, guapa y elegante.

Sandra hitz-jario, hitza etengabe dario... Sandra hitz-jario, edertasuna dario.

Batzuetan, nahiz irudia tartean ez izan, zail da jatorrizkoaren ordaina aurkitzen, batez ere hitz joko horretan produktuaren izenarekin osatu bada errima:

Viakal, super eficaz contra la cal.

Guk *kare* esaten dugu, eta *Viakalekin*, ezin. Beste bide batzuetatik jo behar sarri, errima alde batera utzita nahitaez.

Izenburuak jatorrizkoan

Ahal dela izenburuak ere euskaraz esan nahi genituzke, baina maiz ezin halakorik egin, izan ere iragartzen den produktua (Filma, liburua, jokoa, DVDa...) euskaratu gabe dago, eta ezin dugu eroslea engainatu:

Doce en casa. Muy pronto a la venta en vídeo y DVD.

Doce en casa. Aurki salgai bideoan eta DVDn.

Luze-laburra

Topikoa da, nik uste, euskaraz beste hizkuntzetan baino luzeago ateratzen dela esaldia. Bartzuetan aditz laguntzaileak sortzen ditu arazoak, baina ez da hain zail ere konpontzen, izan ere hizkuntza bakoitzak bere baliabideak ditu; elipsiak eta beste.

Con Ligeresa me quiero, me cuido y me encanta.

Hau oso-osorik esan behar bagenu, aditz laguntzaile eta guzti, oso luze joko luke, eta bide honetatik jo genuen:

Ligeresarekin neure burua maite, zaindu ta poz-pozik!

Nominalizazioak

Gaztelaniaz ere gehiegi egiten dira, eta izen metatze bitxiak suertatzen dira:

Pantene	Pantene
¿Rizos fuera de control? Nunca más. Acondicionador rizos perfectos de Pantene Pro-V. Su fórmula específica con provitamina ayuda a fortalecer tu pelo para tener unos rizos hasta un 70% más definidos y a prueba de encrespado. Acondicionador rizos perfectos Pantene Pro-V. Pasión por un pelo sano.	Kizkurak kontrolik gabe? Gehiago ez! Pantene Pro-Vren Kizkur Perfektuak Egokitzailea. Bere probitaminadun formula bereziak ilea sendotzen laguntzen dizu, kizkurak ehuneko 70 zehaztuago edukitzeko, eta ilea ez harrotzeko. Kizkur Perfektuak Egokitzailea. Pantene Pro-V. Ile osasuntsurako grina.

Hor *ehuneko 70* itzuli dugu, baina sarri bestelakoak erabiltzen ditugu. Adibidez, *100%: guztiz, erabat*. Eta ehunekoen arabera, beste era hauek baliatu: *lautik/hirutik bat*.

Ahal dela izen metatzeak saihestu: *a prueba de encrespado* > *ilea ez harrotzeko*.

Gaztelaniaz maiz entzuten dira *tu pelo* eta holakoak. Eta horietan *zure hileal/haren ilea* esan beharrean, euskaraz badugu beste baliabide bat: *dizu* esatea. Hala: *ayuda a fortalecer tu pelo* > *ilea sendotzen laguntzen dizu*.

Hona spoten hasieran agertzen diren formulak itzultzeko baliabideak:

-*Llega: Hona (hemen)*

-*Playmobil presenta: Playmobilen eskutik..*

-*Descubre: Aurkitu (hala denean). Bestela: Ikusi... Horra...*

-*Por fin llega: Hemen da (ba)... Azkenean...*

-*Vuelve: Berriro.*

Bikoizketaren garrantzia euskara biziberritzeko

Sarri idatzi dut, eta hitz egin, han eta hemen gai honi buruz hogeitau urte hauetan, Kultura Sailekoentzat ere bai eurek eskatuta, eta hauxe izan da nire aldarrikapena: euskara biziberritze-ko, euskararen erabilera sustatzeko, komunikabideak dira autobidea. Komunikabideak oro har: prentsa, irrati, zine, telebista, Internet... Komunikabideek dute lehentasuna zeregin horretan.

Eta komunikabideetan badu bere lekua itzulpenak, leku garrantzitsua eduki ere, batez ere ikus-entzunezkoetan. Eta bikoizketaren inguruan bildu da itzultzaile gehien. Hasierako urteetan (1983-1993), 1.500 ordu inguru bikoiztu zen urteko ETB 1erako. 1994tik atzera, murrizten joan da ordu kopurua urtetik urtera: 500 ordu eskasera urteko. Garai batean 150 filmetik gora bikoiztu zen urtean; gaur egun ez da 25era iritsiko. Eta zinema aretoetarako edo DVD-bideoetarako bikoizten dena ez da 40 ordura iritsiko urtean. Honek guztiak eragin zuzena izan du itzultzaileengan: ehundik gora izatetik hogeitau pasatxora murriztu da kopurua. Itzultzaile asko eta onak aritu dira lanean, idazle eta literatura-itzultzaile famatuak ere bai. Beharrik, zorionez, oraindik ere dihardutenak ondo moldatzen dira, baina arrisku latza dago joan daitezen, ez zaie-ta behar bezala ordaintzen lana.

Aho batean erabiltzen da gaur egun kalitate hitza, baina ez da kalitaterako biderik zabal-tzen: beste sailetako itzultzaileen aldean soldata urria dute egokitzaileek. Zein da garrantzitsua-go, zein eraginkorrago, diputazio-udaletxeetako apaletan gordeko den itzulpena ala milaka la-guni iritsiko zaiena egunero-egunero? Bostehun irakurlerentzako liburua (barkatu idazleek) ala milaka laguni egunero iritsiko zaien testu bikoiztua?

Hezkuntzan eginiko aurrerabidea kontuan harturik, kezkatzekoa da ikus-entzunezkoaren martxa motela. Astean 200 bat film ikusteko aukera dugu telebistetan (ETB 2k asko laguntzen du kopuru horretan); euskaraz bat (edo batere ez ere bai azkenaldian). Zinema aretoetan are murriztago da proportzioa: batere ez urteko aste gehienetan. Badugu zinemaldi bat ere, fama-tua mundu zabalean: euskaraz zer?

Autobus eta tren linea berriak huts samarrik ibiltzen dira jendeak ohitura hartu arte: zine-ma aretoetan ez dago halako pazientziarik. Gaur 10 joaten badira, ordea, pazientzia pixka bat hartuta, datorren urtean 100 joango dira, hurrengoan 1000, astero aukera emanda. ETB 1en,

asteen bi edo hiru film emanda, igoko da pixkanaka kopurua: aurtan 10.000, datorrenean 12.000 eta aurrera.

Noizko utzi behar dute agintariak euskararentzako leku zabalagoa eta duinagoa eskatzea, Euskal Herrian diharduten ikus-entzunezko etxe guztiei, beren telebista kateetan, zinema aretoetan, DVD-bideo ekoizpenetan.

Eta beren esku duten ETB nola daramate? Egokia ote da film bakarra ematea (edo batere ez) eta gazte eta helduentzako telesail bakar bat ere ez ematea? Oso ondo dago haurrena zaintzea, baina gauzatxo bat ahaztu bide zaie: haurrak hazi egiten dira, bizitzaren legeak. Belaunaldi arteko etenaldi larria dago. Hamabi-hamahiru bat urte bete arte ETB 1 pizten dutenek, marrazki biziak ikusteko, gero ere jarraituko lukete pizten, beren gogoko telesailak eta filmak ikusteko, nik uste. Garai batean eman zituzten arrakasta handiko telesailak, baina bospasei aldiz errepikatu eta akabo; bidea moztu zuten, berriak eta egokiak eman orde. Filmekin gauza bera egin zuten: bazen plan bat orain hamabi urte (1994), asteen hiru edo lau film ondo hautatuak emateko, baina plana abiarazi baino lehen alde batera utzi eta agur Ben-Hur!

Tamalez, eskasa da gaur egun gure artean itzulpengintza ikus-entzunezkoetan; hutsaren hurrengoa, egia esan. Hor dauzkagu ehunka profesional ongi trebatuak (egokitzaileak eta haien lanei ahotsa jartzen dietenak) etxean mutu, euskara biziberritzeko antzu. Noiz jabetu behar dugu bikoizketaren garrantziaz, euskarak Lizardiren Amets-Bideetan barna aurrera egin dezan, mundura zabaldurik, gure kultura aberasten?

Atzen baina ez hutsen, (*Last but not least*: "Azken baina ez hutsen", irakurria diot K. Mitxeleneri) datorren urtean beteko dira 25 urte itzultzaile-egokitzaileak lanean hasi zirela gure artean. Ez ote da garaia Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Sariak eurentzat ere zabal daitezen? Hogeita bost urtean isilean jardunda gero, ez ote da ordua gure gizarteak esker ona azal diezaien?

Gure esker ona hemen itzultzaile-egokitzaileei: Lehengoei: Maria Jose Kerejeta, Lurdes Oñederra, Asun Garikano (B. Atxaga, Dylan Thomasen poemak), Xabier Mendiguren, Pello Zabaleta, Nerea Lete, Joserramon Zubimendi, Joan Mari Irigoien, Jesus Mari Las, Josean Insausti, Irene Aldasoro, Txomin Arratibel, Nieves Odriozola, Koro Zumalabe, Amaia Olkots, Juan Mari Mendizabal... eta horrela 100dik goraino, gure etxean bakarrik.

Eta gure esker hona, batez ere, lehengo-oraingoei: Gema Lizarralde, Antton Garikano, Idoia Gillenea, Beatriz Zabalondo, Txiliku, Aitor Lete, Jon Aizpuru, Txaro Idiakez, Maite Eizmendi...

Gure esker ona baita ere ETBeko kalitate kontrolekoiei: Gabino Murua, Lurdes Otaegi, Xabier Kalzakorta, Igone Etxebarria, Manu Arrasate, Imanol Unzuurrungaza, lehengoak; eta oraingoei: Asier Larrinaga, Ana Zulueta, Iratxe Goikoetxea, Saroi Jauregi, Igone Menika...

Asko zor diegu. Asko ikasi dugu. Eragin handia izan dute 24 urteotan hurrengan, gazteengan, oro har, hiztun guztiengan... Eskerrik asko!

Galdera-erantzunen tarte honetan, Eguzkiri eskatu nahiko nioke itzultzaile-egokitzaileen izenak gehitzeko...

Entzulea (Jesus Eguzkitza).- Izen asko eman dituzu dagoeneko. Gaur, puntan dabiltzanak gehienbat horiek dira. Beharbada, bi izen gehituko nituzke: bata, Jesus Ozerinjauregi, zaharra dugulako, eta oraintxe hasten ari dena, Leire Lekuona. Zaharrena eta gazteena aipatzearren, eta hemengo gazteak animatzearren.

Iñaki Zubizarreta.- Izenak emateak badu bere arriskua, alegia, batzuk ahazteko. Baina ez esatea, niretzat, okerrago da oraindik. Beren etxeetan lanean ari direnak azaldu egin behar dute eta merezi dute.

Entzulea (Aitor Zuberogoitia).- Lehenengo eta behin, zorionak Iñakiri. Uste dut hitzaldia argigarria izan dela. Jardunaldiaren hasieran aipatu da, eta horrela da, euskarazko bikoizketa ETBrako egiten da gehienbat. ETB da ia bezero bakarra. Aurreko hitzaldian aipatu da baita ere lurreko telebista datorrela eta horrekin aukeratzea izango dugula produktu askotan zer hizkuntzatan ikusi nahi dugun edo entzun nahi dugun produktu hori. Adibidez, burura datorkit LaSexta kateak futbol partida zer hizkuntzatan ikusi nahi duzun aukera ematen du. Horrek ekarri lezake aldaketarik? Hau da, zuentzat esparru berri bat zabal dezake? Esan nahi dut: ETB bezero bakar edo ia bakar izatetik, beste kate batzuetara zabaltzea aukera? Zelan ikusten duzu?

I. Z.- Nik, lehen ere esan dut, Kultura Sailak hartu behar du esku. Lehendabizi jabetu egin behar du egoera honetaz. Egoera honetaz jabetzen bada eta euskara biziberritzeko hau dela bide nagusia jabetzen bada, orduan hasi beharko du mugitzen kontu horietan guztietan: joan behar du Tele 5era, eta Espainiako Telebistatik hasi beharko du. Katalunian Espainiako Irrati Nazionala katalanez daukate orain dela urte mordotik. Eta hori Kongresuan eskatu egin behar da. Eta Televisión Española ere eman behar du dagokiona. Zenbat tokatzen zaigu guri? Ehuneko hamar? Ba, ehuneko hamar? Ehuneko bost? Ehuneko bost. Baina batere ez hainbeste urtean?!

Hori politikariei zuzenean tokatzen zaiena da. Hau da, politikariak jabetzen badia benetan honetaz eta ez badira konformatzen “Agur” eta txapela janztearekin, orduan egingo dute zer-bait. Ez badira jabetzen, hemendik hamar urtera ere toki berean izango gara. Hamar urterako zen Euskara Biziberritzeko Plana. Nik mila aldiz esan diet: “Oso ondo lantokietan, leku guztietan. Baina jabetu zaitezte non dagoen auzia!”. Gazte jendeak eta langile jendeak zertaz hitz egingo du, komunikabideetan bost ordu ari bada beste gauzak ikusten beste hizkuntzetan? Lantokiko gauzetaz ez da hitz egiten. “Biribirkina” edo dena delako torlojua, behin esango duzu; gehiago ez.

Niretzat jabetze kontu bat da. Benetan jabetzeko kontua. Hau esaten duzun toki guztietan denek esaten dizute: “Bai, bai, arrazoi duk”. Baina niri tonto aurpegia geratzen zait 20 urteotan. “Arrazoi duk”. Baina... Ni ez naiz nor gehiago eskatzeko, baina bai! Uste dut denok eskatu behar dugula.

Eta gero bikoizketari botatzen zaionean errua... Bai, guk ere asko hobetu behar dugu. Baina hobetzea etorriko da asko egitetik. Orain, duela 15 urte baino askoz egoera pobreagoan gaude bikoizketan. Askoz ere. Ez dut esan nahi orain okerrago bikoizten dela. Egoera: lan-kopurua. Eragina. Askoz ere apalago gaude.

Entzulea (Kaiet Estrada).- La Sexta aipatu dutenez, nik ere badut kate hori etxean, Euskaltelek emanda, alegia euskal enpresa batek, zuntz optikoaren bidez. La Sextaren partiduek bi audio kate kentzen dizkidate eta gazteleraz edo katalanez aukeratzeko modua besterik ez dut. Kexatu naiz, eta orain bai orain ez... Teknologikoki aukera badago, ahal da, baina enpresak arduratu behar dira, eta Euskaltel bezalako enpresa bat arduratzen ez bada, beldurtzekoa da.

Egokitzapenari buruz, ez duzu komentatu, baina niretzat garrantzi handia dauka kontes-tuak. Euskarak baditu baliabide batzuk, beste hizkuntza batzuek ez dituztenak. Esate batera-ko, hikakoa noiz hautatu behar dudan ezin dut jakin testuari begiratuta bakarrik. Egoerak asko laguntzen dit. Gauza bera gertatzen zait “hermano” itzuli behar dudanean. “Hermano” bi era-tara itzul daiteke, eta hor kontestuak garrantzi handia dauka, neska batena edo mutil batena den.

I. Z.- Bai, lehendabiziko puntuan, esan duzuna: aurrerapen tekniko guztiak dauzkagu, eta pena da garrantzitsuena, erabakiak hartu behar dituzte horiek erabiltzeko. Eta erabaki horiek hartu behar dituztenak...

Hitanoari dagokionez, gutxi sartzen da. Ni aldekoa naiz, baina kontuan hartu behar ditu-gu zazpi probintziak. Gure inguruan, Azpeitia aldean-eta, den-dena hitanoa da, eta oso aise onartzen da. Noiz edo noiz Asierrek esana dit askotan filmetan-eta hitanoz jartzen ditugula pertsonaia gaiztoak, eta ez dauka zerikusirik hitanoak horrekin. Amona batek bilobari, gaixo dagoela ere, hitanoz oso goxo esango dio, beti hitanoz hitz egin badio. Ez dauka zerikusirik. Orain: hor gertatzen dena da, marrazki bizieta protagonistak jartzen baditugu hitanoan, hi-tanoaren proportzioa %80 bat irtengo dela. Eta zazpi probintziei begira, arriskutsua da. Or-duan, nire ustez, ez da baztertu behar; ahal dela erabili egin behar da, baina behar bezala, ja-kina. Horretan onenak, beti egin dutenak dira. Haiei adi egotea. Bestela, Donostia aldean eta, oso gauza kuriosoak entzuten dira hitanoan. Salto handiak egoten dira: hitanoan hasi, bestera saltatu... Baina hitanoan hasiz gero, hitanoa da diskurtso osoa.

Entzulea (Jesus Eguzkitza).- Inakik esandako gauza bat azpimarratzeko hartu dut hitza. Spotak aipatzen ibili zarenean, hitz jokoak, esamoldeak, zentzu biko zerak... horrek euskarara ekartzea sarritan oso zaila izaten da eta behin baino sarriago bete-betean jo dugula horretan, eta beste askotan huts ikaragarriak egin ditugula.

Aspektu bat geratu zaigu, eta uste dut oso garrantzitsua dela bikoizketan eta, hain zuzen ere, gidoiak euskarara ekartzerakoan, zuhaitzaren gerri izan ohi diren esaera eta esamoldeak, ze-ren askotan argumentua oso laua izaten da, oso deskriptiboa. Baina non edo non, noiz edo noiz egoten dira halako esakera modu batzuk. Eta nik diskurtso honi sexu pixka bat sartzea-rran, neuri gertatutako zerbait kontatuko dut, adierazgarri edo argigarri moduan. *Cuarta plan-ta* pelikula euskaraz jartzen nenbilen, eta une batean, filmeko protagonistak arduratuta zebil-tzan zer gertatzen ote den ebaketa gelara eroan eta handik itzartukeran. Euren burua babesteko, mutikoez asmatzen dute halako formula bat. Eta da: “Esakerek bi zati izan ohi di-tuzte, hasierakoa eta amaierakoa. Eta ondo-ondo ikasi buruz, eta gogor sartu buruan, eta sinis-ten baduzu, ba, lehenengo partea etorriko zaizu eta gero bigarrena. Bigarren partea gogora ekartzea lortzen baduzu, seinale itzarririk zaudela, hau da, bizirik zaudela [operatu ostean]”.

Horretan ari zirela, adibide pilo bat jartzen dute, eta haietako bat, pelikularen gerri zeneko bat ze: “Tiran más dos tetas que dos carretas”. Zein da arazoa? Hor ez daukazula ihesbiderik. Batetik, sinkronian, eta bestetik, esanahian ere hurreratu egin behar duzu. Zer gertatzen da gaztelaniaz hain ezaguna den esamolde bat euskarara ekarri behar duzunean eta parekorik ez daukazunean? Ba, oihartzunik barik geratzen dela sarritan. Baina hurreratu, bai hurreratu behar duzu, halabeharrez eta derrigorrez. Orduan, mutikotxoa esnatzen hasten da, enfermera dauka ohe ondoan eta... “handiagoa titiak, handiago titiak” esaten hasten da. Eta erizaina, harrituta. “Baina zer gertatzen zaio mutiko honi?”. Eta guztiz esnatzen da, eta orduan lehenengo partea ere gogoratzen du. Eta da: “Indar handia idiak, handiagoa titiak”. Soluzio posible bat da, ezta?

Entzulea (Pello Añorga).- Argota nola tratatu? Euskaraz oso gutxi egin baita. Hor badira pelikula batzuk non argota den pelikula horietan nabarmen. Nola itzuli hori?

I. Z.- Egokitzaileek egon behar dute adi, euskaraz egiten den lekuetan adi; haiek asmatu behar dute.

Entzulea (Pello Añorga).- Zein da zure esperientzia arlo horretan? Dena egiteko dago edo nola dago?

I. Z.- Nik obsesio bezala ez nuke hartuko. Hor badira argoteko kontuekin egindako liburu batzuk; ari dira saiatzen eta saiatzen, eta saiatzen diren aldetik, oso ondo daude. Baina errepaso bat eman, eta ez duzu bakar bat ere ikusten Euskal Telebistan zazpi probintzietarako esateko modukorik. Eta oso esaldi luzeak dira, grazia egingo dutenak toki jakin batzuetan... Hemen kontua da adi egon behar dela argota egiten den lekuetan eta handik jaso. Egokitzaile batek edo zuzentzaile batek ez dauka argota asmatzerik. Hori ezin liteke. Argota da dagoena. Hor ibili behar biltzen: Azpeitiko tabernetan eta... Azpeitian esaten dut, bertakoa naizelako ere bai. Baina esan nahi dut, giro horietan benetan euskaraz egiten den lekuetan. Beste leku askotan ez da euskaraz egiten giro horietan. Orduan, han egon beharko duzu adi, eta jaso ahal dena. Asmatu ez dago egiterik. Argota da, hizkuntza guztiak bezala, ohitura bat: norbaitek esaten duena, zuk biltzen duzu. Dena dela, ez nuke obsesio handirik egingo.

Entzulea (Beatriz Zabalondu).- Nik hor aukera ikusten dut herrietan jaso eta, telebistak bozgorailu lana egiten duela baliatuz, oso egoera eta kontestu garbiak direnetan herrietako argot edo esaldi zera horiek sartzen joateko. Oso garbi egon behar du kontestu horrek, zuk lehen esan duzun moduan, zazpi probintzietara erraz zabaltzeko modukoa izateko. Bestela, txokokeria batean geratzeko arriskua dago beti. Demagun: “Hori hegabera bat da”, edo tankera horretako esaldiren bat. Bat-batean ikus-entzule guztiek ulertuko badute, testuinguruak oso zehatz eta argia izan behar du.

I. Z.- Obsesioarena nioenean, honexegatik zen: Madrilen egongo dira hamar bat argot. Baina Espainiako telebistetan ez dira jasotzen. Esan nahi dut: komunikabide bakoitzak ere bere zerak ditu. Orduan, argota noraino sar daiteke komunikabide batean? Aztertu egin behar da ondo. Nik Espainiako bikoizketetan ez dut entzuten gauza arrarorik, eta Madrilgo auzo bakoitzean egongo dira argotak... Ez dut esaten ez denik ezer egin behar. Adi egon eta, lehen esan duguna, loreak bildu eta gero banatu. Beste formularik?

Entzulea (Beatriz Zabalondo).- Gainera, ezin da ahaztu: ahozko jarduera bat da, baina aurretik idatzi egin da hori, eta guk euskaraz jartzen dugu baina idatzita dagoen zerbait. Ez da bizi-bizi kaleko ahozko hizkera. Kalekoaren ahalik eta antzekoena, bai, baina testura pasata, eta neutroagoa beti. Beti idatzizkotik pasatakoa da.

Entzulea (Kaiet Estrada).- Lehen esan duzu bikoizketa orduak murrizten ari direla eta nik bi arazo ikusten ditut: bat, zuk esan duzuna, nola mantendu industria bat lanik ez badago, eta bestea da hain gutxi bikoizteak dakarren ondorioa: ETBn duela lau urtetik hona programazioa guztiz behera doa eta erreplikapenetera jo du. Oso denbora gutxian askotan ematen da gauza bera. Gaur bertan *Tintinen abenturak* ematen ari dira. Duela sei urte erosi zuten, hiru paseak eman zituzten, eta orain berriro beste hiru pase emango dituzte. Beste marrazki sail bat ere ari dira erreplikatzeko: *Lucky Luke*. Azkenean ikusten dudana da ETBk umeei zuzendutako programazioa duela bereziki, baina hainbeste erreplikapenekin umeak aldentzen ari dira ETBtik. Ikusiko banu erreplikatzeko ari direla hogeitaz urtean erreplikatu ez diren serieak, agian ez nituzke hain gaizki ikusiko, baina sei urteren buruan, sei pase egitea batez beste...

Entzulea (Jesus Eguzkitza).- Ofizioaren kalterako bada ere, eta beharbada harrigarria izango da, baina esan behar dut erreplikapen horiek egiteak dakarren ostikada emisioari begira ez dela onargarria, baina entzulegoa ez da murrizten. Kasu batzuetan, lehenengo paseak baino ikusle gehiago izan ditu bigarren paseak. Hemengo gazteek ezagutuko dute *Dragoi bola*. Ba, pentsa zenbat aldiz eman duten, eta berriro ematen dabilta eta ikusle-kopuru dezentea dauka gaur.

I. Z.- Bueno, umeak jaiotzen dira, ezta? Hori normala da. Eta alde horretatik, erantzunda dago: merezi du, publiko berria ekartzen duen heinean.



Zinemarako euskarazko bikoizketa

MARIAN GALARRAGA

Tinko Euskara Elkarte

Marian Galarraga gipuzkoarra da, Altzon jaioa.

Behin eta berriro goaz bikoizketaren lehenengo urte haietara. Marian ere FIBIZE zentro hartatik dator, lehenengo promoziotik irtendako bikoizlea da. Promozio hartan bi bikoizle aukeratu zituzten besteak trebatzeko, bata Marian Galarraga bera, eta bestea Mikel Mendizabal.

FIBIZEko lanak amaitu eta Eresoinka enpresan sartu zen Marian ere, Iñaki Zubizarretaren enpresa berean.

Gero, Galiziara joatea tokatu zitzaion; Galiziako telebista martxan jarri zenean hango bikoizleak trebatzera joan zen. Galegoei bikoizketa erakustera, alegia. Handik itzultitakoan, K2000n sartu zen, eta casting arduradun bezala lan egin zuen; bikoizketen kalitatearen ardura ere izan zuen.

1993. urtean Tinko elkarte sortu zuten lagun batzuen artean, eta handik urte gutxira, REC bikoizketa-etxea sortu zuten, hori ere Donostian, eta egunerokoaren “presiorik gabe” jarduteko helburuarekin.

Tinko da euskarara bikoiztutako filmak areto komertzialetan sartu dituen lehen elkarte; beraz, aitzindaria da arlo honetan. Zinema-aretoetan, zirkuitu komertzialetan ikusi ahal izan zen euskarazko lehen filma *Alargunaren gailurra* izan zen, eta lan hori Tinko elkarteak egin zuen.

Tinko elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abadia saria jaso zuen 2004. urtean, zinemaren munduan euskararen erabilera sustatzeko egin duen lanagatik.

Eguerdi on.

Mila esker hona hurbildu zareten guztioi. Gazteak ikusten ditut gehienbat hemen, eta ez dakizue zer poz ematen duen

gazteak gai hauetaz interesatuta zaudetela ikusteak; eta ez gai hau bikoizketa mundua delako, baizik eta euskararen alde egiten den ekimen bat delako. Horregatik esker-

tzen dizuet hemen egotea, eta benetan izugarritzko poza hartzen dut.

Hasteko, istorio txiki bat kontatuko dizuet. Bai, Beatrizek esandakoa egia da, eta historia, maila batean bederen, hori izango da: noiz hasi nintzen ni jabetzen bikoizketa bazela. Bada, oraintxe 26 urte konturatu nintzen ni, lehen aldiz, bikoizketa bazela. Ni ziur nengoen Robert Redford-ek gaztelaniaz oso ondo zekiela; ideiarik ere ez bikoizketa bazenik ere. Aldizkarian iragarki bat ikusi nuen bikoizleak behar zirela, Euskal Telebista bat sortzeko, eta langileak behar zirela euskaraz jarduteko... Euskaraz telebista?! Ala! Eta izena eman nuen, hartu ninduten, eta orduan, ikastaro bat egiten hasi ginen. Gure irakasleak katalanak izan ziren, bikoizle katalanak. Beraiek 40 urte zeramatzen gaztelaniara bikoizten, eta horiek izan ziren gure irakasleak.

Handik aurrera, Beatrizek esan bezala, mila gauza, ezta? Horien artean, galegoei bikoizten erakutsi, K2000n lanean hasi, K2000n urte pila bat egin... Baina nire helburua ez zen bikoizketa eta bikoizketaren mundua, euskara baizik. Ni gehienbat bul-tzatu nauena euskara babestea izan da, euskararen transmisioaren garapen batera iristea, eta hori nolabait bermatzea, euskararen alde egitea.

Bakoitzak bere lanbidean ikusten ditu euskarak dituen hutsuneak. Nik neure lanbidean ikusten nuen hutsune bat bazela: zinema-aretoetan euskararen presentzia falta zen. Ez zegoen. Zinema-aretoetatik pasatzen ginen eta iragarki guztiak gaztelaniaz, film guztiak gaztelaniaz, eta neure buruari galdetzen nion: "Zergatik?" Eta aukera izan nuen: K2000 ondo ez zebilela-eta, diru bat ematen ziguten enpresatik alde egiteko; or-

duan, esan nuen, bada, dagoeneko nazkatuta nago honetaz, eta goazen beste gauza batzuk aztertzeraz eta ikustera ea zergatik ez dagoen areto komertzialetan zinematik euskaraz. Bikoizle talde bat bildu ginen, eta K2000k emandako diru horrekin urtebete pasa genuen hori aztertzen: ea posible zen areto komertzialetan zinema euskaraz jartzea. Horretarako, nolabaiteko plan bat egin genuen.

Zinema-aretoetan filmak euskaraz

Lehenik eta behin dirua behar zen, eta Kultura Sailera jo genuen. Kultura Sailera joan, proiektu bat aurkeztu, "guk hau horrela ikusten dugu" esan, eta zinema-areto komertzialetan zinema euskaraz ikusteko aukera aipatu, eta barre algara Madrildik entzun zen. Bada, ameslari bat nintzela, hori ezinezkoa zela, beraiek saiatu izan zirela, baina ezinezkoa dela. Bueno, bada, ezinezkoa bada, lehenbailehen hastea hobe, ezta? Zeren uzten baduzu... Eta horrela esan nuen: "Posible izan behar du, nahi eta nahi ez".

Bueno, aurrera segi, aurrera segi, eta aukera bat izan genuen: Filmax enpresak film bat zeukan *Alargunaren gailurra* izenekoa, eta beraien interes ekonomikoengatik, euskarara bikoizteko prest zeuden; hau da, momentu hartan ETBri edo Eusko Jaurlaritzari ez dakit zer bilduma saldu nahi zion, eta haiekin ondo geratzeko-edo, "Bale, hau bikoiztuko dugu euskarara", esan zuen; eta ez hori bakarrik, baizik eta Tinko sortua zegoen, ja proiektu guztia garatzear zegoen, eta Tinkok agindu zion film hori euskarara bikoizten bazuen, areto komertzialetan estreinatu eta gero Tinkok erosiko zizkiola esku-

bideak eskola-orduetan, haurrekin eta abar proiektatzeko. Baldintza horrekin euskaratu zuten pelikula, eta Bilbon estreinatu zen lehen film bikoiztua, euskarara bikoiztua, areto komertzialetan aldi berean estreinatu zena euskaraz eta gaztelaniaz.

Bigarren filma *Corina*, *Corina* izan zen, handik zenbait hilabetera, eta akabo; harrezkero ez da besterik izan, harik eta ekin eta ekin eta ekin, diru laguntza bat lortu genuen arte. Gainera, Parlamentuan izan zen tregua bat, hiru alderdi politikoak lagun izan zirena, eta egoera hura aprobetxatu genuen: “Oraintxe da momentua Parlamentuan diru laguntza bat eskatzeko eta zinema areto komertzialetan ikusi ahal izateko”. Diru laguntza bat behar zen, nahitaez. Noski, ordura arte niri ezetz esaten zidaten: “Ametsak ez ditugu diruz laguntzen; zu ameslari bat zara, eta, aizu, amets egitea libre da, baina ametsak ezin ditugu diruz lagundu”. Orduan demostratu behar izan genuen posible zela, eta horretarako dirua geuk jarri behar izan genuen. Gauza bat esango dizuet: ametsak egiteko beldurrik ez izan; ametsak egiten ez dituenak, ez dauka helbururik, eta helbururik ez daukanak ez dauka etorkizunik. Eta euskarari dagokionez, egin nahi dituzuen amets guztiak; oraintxe gazteak zarete, eta zuek duzue amets egiteko gaitasuna; eta segi, eta segi, eta segi, eta egia bihurtuko zaizkizue ametsak. Baina ametsik egiten ez baduzue, akabo, jai daukagu.

Bueno, historiarekin jarraituko dut: Diru laguntza bat lortu genuen, eta hasi ginen, jada, areto komertzialetan filmak estreinatzen; momentu honetan, hamabi bat film laguntzen dituzte diruz, urtean. Parlamentuak diru laguntza bat onartu zuen, eta

diru laguntza hori Kultura Sailetik bideratzen da.

Dena egiteko dago

Nola moldatu gauzak bide onetik joan daitezen? Dena egiteko dago, baina nik uste dut partxeak jarri besterik ez dela egiten; nik uste dut proiektu hau askoz ere modu orokorragoan ikusi beharko litzatekeela: hau da, diru laguntza bat ematen dute, eta banatzaileei bakarrik ematen diote diru laguntza hori. Esan nahi dut: Tinko banatzaile bat da, Burton Films beste banatzaile bat da, Lauren beste banatzaile bat da. Orduan, banatzaile batek aurkezten du film bat, eta film hori aukeratzen bada diruz laguntzeko, diruz laguntzen dute.

Zer gertatzen da? Film bat areto komertzialetan jartzeko behar da: alde batetik, film bat, film on bat; beste alde batetik, areto komertzial bat behar da film hori proiektatzeko; eta gero, ikusleak behar dira. Hiru baldintza horiek, behintzat, behar-beharrezkoak dira zinema euskaraz ikusteko eta ohitura horiek sortzeko, areto komertzialetan filmak euskaraz ikusiko badira.

Filmaren aukeraketan, nola ez, niri gus-tatuko litzaidake *major* horietako baten filma, beraiek aurkeztea eta diru guztia beraiek eramatea; bueno diru guztia ez, erdia; jo dezagun erdia dela, baina beraiek ez dute ezertxo ere jakin nahi. Kasualitatea izango da, baina *major* horiek guztiak Madrilen dute beren ordezkaritza; kasualitatea, denak dira *fatxa* hutsak; kasualitatea...! Eta, zenbat aldiz, joan Warnerrera, ezta? Haurrentzat eta gazteentzat beraiek dauzkate film egokienak, ezta? Warner, Dreamworks, eta halakoek. Joan eta hasten zara “Euska-

raz...". Puf! Bada esaldi famatu bat Warnerreko zuzendari batena (zendu zen gizajoa): "No vamos a dar de comer a la bestia". Filmak euskaraz jartzeagatik esan zuen hori. Horrekin pentsa zer irudi duten beraien film bat euskaraz jartzeari buruz. Bada, euskara pizti bat zela, eta gainera, mantendu egingo genuela, puztu egingo genuela.

Hori ikusita, zer egin dezaket nik? Bada, Altzokoa naizenez, baserritar bat bezala Madrilerara joan, Tolosako "teila eta zigarro" paketetxo batekin eta patxaran botila batekin, ea konbentzitzen ditudan beren filmak euskarara bikoizten uzteko; zeren diruarekin ezin da, beraiei bost axola baitzaie dirua. Pentsa Euskal Herria zer den Warner baten-tzat adibidez... Horiek mundu osoan estreinatzen dituzte filmak. Mundu osoa ikusi eta zer da Espainia beraientzat? Puntutxo bat. Espainia barruan, zer da Euskadi? Puntutxo baten punttua. Beraiei mehatxua egin diezaieket, nik edo gobernuak, ekonomiko-ki esan nahi dut, esanez: "Aizu, ez baduzu film hori euskaraz jartzen, ez dugu estreinatuko Euskal Herri osoan, ez euskaraz eta ez gaztelaniaz". Ta? Beraiei bost axola zaie. Orduan, nola egin? Nola konbentzitu?

Ni goitik beherakoaren aldekoa baino, behetik gorakoaren aldekoa naiz beti. Bada, goazen txiki-txikitatik ohiturak sortzera, haurrek filmak euskaraz ikus ditzaten; areto komertzialetan ohitura hori sortu, filmak euskaraz ikustekoa, eta zinema-aretoko jabeak konturatu daitezela gehiago saltzen dutela film bat euskaraz jarrita gaztelaniaz jarrita baino. Horretaz konturatzen direnean, beraiek dira *major* horien bezeroak, esan dezagun; orduan, beraiek eskatu diezaietela jabeei: "Aizu, hemen nik gehiago saltzen dut haurren film hau euskaraz jarrita gazte-

laniaz jarrita baino, orduan, mesedez, jar ezazue euskaraz". "Beharbada" horrela lortuko genuke.

Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak

Baina, horretarako, gauza orokor bat egin behar da; ezin da diru guztia banatzaille bati eman, areto komertzialetako jabeari dirurik ez eman eta hor konpon egin. Areto komertzialetako jabe horrek esaten du: "Ados, banatzaile horri diru pila eman diozue film hori euskaraz jartzeagatik, eta nik arriskatu behar dut film hori areto batean jarri eta inor ere ez joatea? Eta niri nork ematen dit, zeinek konpentsatzen dit hori?". Inork ere ez. Orduan haserretu egiten da, eta esaten du: "A, ez noa filmak euskaraz jartzera". Kasketa puntu hori harra-patzen dute, baina, agian, arrazoi dute.

Gero, diru laguntza hori, nik uste dut, kontrolatu egin beharko litzatekeela. Adibidez, iaz, guk zortzi film aurkeztu genituen euskarara bikoizteko. Baina guk film horiek aukeratzeko, mundu osoan zehar egiten diren film gehienak ikusi ditugu, eta non dau-den haurrentzako filmak, hara joan eta ikusi zer film egiten diren, eta haiek lortzen ditugu euskarara bikoizteko; film onak, gehienbat europarrak. Nik ez dut esaten *major*ren filmak ez direnik behar, bai, behar dira; Disneyrenak ni aspertu egiten naute, baina badaude oso film onak haurrentzako, *Ice Age*, adibidez, eta niri izugarri gustatuko litzaidake horiek euskaraz egotea. Baina haurrek film europarrak ere ikusi behar dituzte, onak direnak, eta horretara ere ohitu egin behar dira; ez bakarrik film amerikar-rrak ikustera, europarrak ere badaude oso onak.

Orduan, film horien eskubideak lortu ondoren, aurkezten ditugu Eusko Jaurlaritzan, eta zortzi horietatik hiru izan ziren diruz lagunduak. Nik aurrekontua egiterakotan, etxekoandre batek bezala egiten dut. Niri iruditzen zait Eusko Jaurlaritza nire etxea dela eta nire etxeko dirua dela, eta merke-xuhurrean ibiltzen naiz: hau hainbeste kostatzen da, baina justu-justu jarriko dugu, ahalik eta gutxien eskatuko dugu, film gehiagorentzat laguntza egon dadin. Beraz, aurrekontua egiten dut justu-justukoa, eta film bat zinemarako bikoizteko justu-justuko aurrekontua 45.000-50.000 euro bitartekoa izaten da. Zortzi film horietatik hiru diruz lagunduak izan ziren, 25.000 euroekin.

Beste banatzaile bat, Burton Films: berak dauka film bat, gaztelaniazko banatzailea da, berak banatzen ditu filmak gaztelaniaz. Berak banatuko dituen film horiek aurkezten ditu Kultura Sailera, eta zein diruz laguntzen duten, hura euskaratzen dute; eta diruz laguntzen ez dutena, ez. Bale. Bada, film berdintsuagatik, 60.000 euroko laguntza eman zioten. Nik badakit kontuak egiten, nik badakit hor gehiegizko finantziazioa egon dela. Zein da aitzakia? Promozioan diru asko gastatzen dela. Nik ere gastatuko nuke, baina neurri batzuk jarri beharko ditugu, ezta?

Orduan: gehiegizko finantziazio bat alde batetik, guretzako hiru film horiekin erdia ordainduta, sekulako porrota. Gero, gu, azken batean, irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara. Zer egiten dugu? Bada, ohiturak sortzeko, banatzaile bat daukagu, eta areto komertzial batean estreinatzen den film batetik, sarreraren %50 banatzailearentzat da, eta beste %50 zinema-aretoke jabearentzat.

Guk uko egiten diogu gure diru-sarrerari, sarrerak merkatzeko, hau da, haurrak erdi prezioan joan daitezen film hori ikustera, ohitzeko, eta merkeagoa izanda ea jende gehiago joaten den. Guk ez dugu irabazirik film horietatik. Gainera, erdia ordaintzen badigute, bada, datorren urtean beste batek egin dezala, ezta?, zeren nik jada nahikoa jarri dut niretik.

Alde batetik hori, baina bestetik esaten duzu: “Bada, ez dute lortuko”, zeren nik uzten badut, adios! Baina ez naiz fidatzen; ez naiz fidatzen euskararen mesederako ari direnik, baizik eta dirua ateratzeko, eta agian diru hori bukatzen denean, ez da filmik izango euskaraz. Orduan esaten duzu: “Ba, ez; hainbeste urtean hemen teman egon baina, orain ez dute lortuko ni, orain, hemendik ateratzea. Aterako dugu nonbaite tik eta jarraituko dugu”.

Hori da historia laburra, zinema-aretoetan filmak ikustearen kontua.

35 milimetrotan bikoizteko zailtasunak

Zailtasunak gehienbat teknikoak dira, zeren bikoiztu telebistarako bezala bikoizten da, edo bideorako bezala. 35 milimetrotako film bat bikoizteko, jatorrizko bertsioaren kopia bat behar da; ondoren, gidoiak, hori besteak bezala, eta gero, *soundtrack*ak edo musikak eta gainerakoak. Eskatzen dugu materiala, eta, normalean, Europako film bat bada eta lau kopia bakarrik egingo badituzu, ez dizute uzten internegatiboa inportatzen edo esportatzen; orduan, internegatiboa jatorrizko hirian dago, Alemanian adibidez, eta bidaltzen digute galdetuz jatorrizko bertsioaren kopia bat nahi dugun.

Bidaltzen digute, agian, almazenean daukaten film bat, erabilitakoa.

Film horren arabera egiten dugu guk soinu-banda; gertatu daiteke, eta horretan izugarritzko kontua eduki behar dugu —orain dela gutxi gertatu zaigu hori—, film horren arabera egindako soinu-banda bidaltzen dugu laborategira, han internegatiboa jartzen dute, eta erabilitako horrek pusketak kenduta dauzkalako, ez da egokitzen. Gu ahalegin guztiak egiten, esaldi bakoitza ahoan sartzeko, ezpainbiko denak betebete, eta bat-batean, laugarren bobina dator, eta... Ala! Ahoa mugitu eta mugitu ikusten da, eta hitza, han nonbait: ahotsa irudia baino lehenago edo atzerago doala. “Baina zer gertatu da hemen?” Bada, laugarren bobina moztuta zegoela eta berriro egin behar duzu laugarren bobina hori, bidali... Alde horretatik zaila da.

Gero, beste alde batetik, nahasketak-eta egiteko errazagoa delako, filmean agertzen den pertsonaia bakoitzak, bere pistan berak bakarrik bikoizten du; orduan, pertsonaia bakoitzak bere pista dauka. Gero, nahasketak egiterakoan, askoz ere hobe da hori, zeren urruti dagoena urruti jarriko duzu, gertu dagoena gertu jarriko duzu, ezkerrean dagoena ezkerrean, eta eskuinean dagoena eskuinean. Izan ere, normalean, Dolby estereoa egiten da, eta ezkerretik gauza batzuk entzun behar dira, eta eskuinetik beste gauza batzuk, aurretik batzuk eta atzetik beste batzuk. Ahotsek bereiztuta egon behar dute, zinema-areto batean ondo entzuteko. Horrexegatik pertsonaia bakoitzak, bikoizle bakoitzak, bere pertsonaia, pista bakarrean eta berak bakarrik bikoizten du. Hor zer dago? Zuzendariaren lan izugarria, film guztia eduki behar duzu buruan.

Itzultzaile batek euskaratzen du filma, eta normalean, nik zuzentzen ditut filmak, nireak direnak; egokitu egokituta etortzen da luze-laburrera, gutxi gorabehera; hartu filma eta esaldiz esaldi ikusten dut ea ondo dagoen; gero, aretoan bertan pertsonaia bakoitza hartu, eta bikoizle bakoitzak bere esaldia esaten du, eta dio: “Mm! Arraro samarra egin zait”, eta nik orduan: “Ea, esan ezazu beste era honetara”, eta han bertan, probak eginez aritzen gara, azkenean, esaldi biribil bat aurkitu arte —“Hau oso ondo geratu da”—, naturaltasuna emanez, zenbait hitz aldatuz, beste freskotasun bat emanez... Hori izaten da, gehienbat, bikoizketa-lana.

Ikusleak nola erakarri zinema-aretoetara

Lehen esan dut filmak areto komertzialetan ikusteko, hiru elementu direla behar-beharrezkoak: filmak, areto komertzialak eta ikusleak. Ikusleak nola erakarri zinema-aretoetara? Alde batetik, film onak eskainita. Zer da hobe, kanpotik datorren film bat, hau da, Madrildik bere promozioa egin daukan film bat euskaratzea, edo euskaraz bakarrik ikusiko duten film bat, hau da, Tinkok aukeratzen dituen film horiek ekarri, eta euskaraz bakarrik estreinatzea? Baina, horretarako, promozio ikaragarria behar da, ikaragarria!

Kanpotik datorren film hori etortzen da gaztelaniaz eta euskaraz —garrantzitsua da—. Baina aukera ematen badiezu, zenbait guraso badaude oraindik euskaraz ez dakitenak; haurrek berdin-berdin ikusiko lukete filma euskaraz edo gaztelaniaz, baina gurasoeekin joaten direnez, gurasoek nahiago dute film hori gaztelaniaz ikusi, aukera emanez gero.

Nik ez diet aukerarik ematen. Eta zenbat aldiz ikusi izan ditudan aitona-amona erdal-dunak, haurrekin gaztelaniaz hitz egiten eta zineman sartzeko ilaran, haurrak film hori euskaraz ikusi nahi duela, alegia film HORI ikusi nahi duelako; eta euskaraz bakarrik dauka; orduan, aitona-amonak ere, eta gurasoak joaten dira zinemara, haurrak film hori ikusi nahi duelako, nahiz eta beraiek ezer ulertu ez, edo ulertuko dute, agian, baina euskaraz ikusi behar da. Bueno, bada, gutxienez erdia eta erdia egin dezagun: nik ez dut esaten dena *majorrena* ezta dena europarra ere, baina gutxienez, erdia eta erdia. Ezta? Ea zer gehiago...

Entzulea (Beatriz Zaballondo).- Galdera bat egin nahi dizut aurrera jarraitu aurretik. Barkatu. Prezioetan alderik ba al dago film europarra izan edo *majorrena* izan, eskubideak eskatzeko orduan eta?

M. G.- Gauza bat gertatzen da, alegia, *majorren* film bat beraiek bakarrik bikoiztu dezaketela. Horiek ez dute salduko eskubiderik euskaraz bikoizteko.

Nik bakar-bakarrik Euskal Herrirako erosten ditut eta euskarazko bertsioa egiteko eta banatzeko bakarrik. Eskubide guztiak erosten ditut, hau da, bideorako, telebistarako, autobusetarako, trenetarako... eskubide guztiak ordainduta daude. Beti-beti, gure filmak aurrena areto komertzialetan estreinatzen ditugu. Hori da *theatrical* esaten den atala; eta *no theatrical* osatzen dute eskola-orduetan haurrekin daukagun programa horretan jartzen ditugun pelikula, eta hor bai, 10.000-15.000 hurrek ikusten dute filma; gutxienez IKUSTEN dute, era horretara bada ere. Gero ateratzen dugu DVDan, beti ateratzen dugu film ho-

rren DVDa, eta gero beti eskaintzen diogu ETBri; ez dute hartzen. Baina bueno, batzuk behintzat hartu izan dituzte eta oso ondo, oso gustura, baina ez denak.

Niri gertatu izan zait Euskal Herrirako eta euskaraz erosi eskubideak, eta hurrengo urtean, Espainiako batek film horren eskubide berdinak erosi Espainia osorako eta Portugalera, eta nik baino merkeago ordaindu. Hau da, nik ordaintzen ditut kasik-kasik Espainia osorako bikoiztu beharko bagenu bezala, eta beraiek ez dute hor differentziarik egiten. Hurrengo urtean beraiek erosten badute Espainia osorako, esaten dute "Aaaahhh, Euskal Herrirako ere badauzkat nik eskubideak, ze Euskal Herria Espainia da". Eskerrak nik aurretik erosita neuzkan Euskal Herrirako! Zuk ikusi: joan produktorara edo banatzailearengana eta hari esan nahi duzuna. Baina hori ere gertatu izan da.

Orduan, zuk esandako galdera horri erantzunez: *Major* baten eskubideak ezin dira erosi, beraiek aurkeztu beharko lukete beren filma bikoizteko eta beraiek jarri beste bertsioa ere areto komertzialetan. Baina gero dago areto komertzialetako jabeen borroka: "Joder, hainbeste film estreinatzeke eta film batek bi areto betetzen dizkit, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz!", eta hori ez zaie batere gustatzen. Izan ere, jendea ez da zinemara joango, baina astero-astero hamar film estreinatzen dira, eta horietatik bi edo hiru bi bertsiotan jartzen badituzte, bada, ez dago lekurik.

Guk adibide batzuk dauzkagu. Ez dira *majorrenak*, baina, esate baterako, *Banpiro Txikia* izeneko filma estreinatu genuen gaztelaniaz eta euskaraz, aldi berean; izugarrikoko ahalegina egin genuen, baita promozio

aldetik ere: filmean behi bat agertzen zen eta areto komertzialetara benetako behi bat eramán genuen... Prentsaurrekoengatik gehienbat, prentsa erakartzeko ere bestelako gauzak egin behar dituzu, eta esperientzia polita izan zen. Ia jende gehiago joan zen euskarazko bertsioa ikustera, gaztelaniazkoa ikustera baino. Gero beste bat *Chihiroren bidaia* izan zen, marrazki bizidunak, oso famatuak. Hori ere euskaraz eta gaztelaniaz, bi eratara estreinatu zen eta nahiko txukun. Baina euskaraz bakarrik estreinatzen diren filmak gehiago ikusten dira, bi eratara estreinatzen direnak baino; hori ere badakigu.

Azpidatzitako filmak

Azpidatziei buruz hitz egin dugu lehen. Ni azpidatzien oso aldekoa naiz, nik neuregatik jatorrizko bertsioan ikusiko nituzke film guztiak, eta euskaraz azpidatzita; baina, haurrentzat diren filmak ezin dira azpidatzi, hori “tranpa” bat da. Orain dela gutxi, Zinema Fantastiko eta Beldurrezko horretan iragarri zuten bi film jarriko zituztela euskaraz, marrazki bizidunenak; gezurra, gaztelaniaz zen euskaraz azpidatzita, eta marrazki bizidunak ziren, hori “tranpa” bat da. Eta ez dezatela esan euskaraz daudenik, ez delako egia; hori gezurra da.

Haurrentzako direnak, behintzat, oraingoz, bikoiztuta jarriko nituzke, eta helduentzat, bai, posible da; baina gehiago ikusten dut aukera hori DVDan, zinema aretoetan baino. Zeren, gaztelaniaz zer gertatzen da? Zenbat film daude, zenbat areto jatorrizko bertsioan eta gaztelaniaz azpidatzita? Bada, beste horrenbeste euskaraz. Beste guztiak bikoiztuta daude? Bada, bikoiztuta euskaraz ere. Nik aldarrikatzen dudana da, euskara-

ren presentzia eta euskararen erabilera, gutxienez %50ean. Ez al dira koofizialak gaztelania eta euskara? Bada, norbaitek behartu beharko lituzke, ez dakit nor eta nola, kuota baten bitartez, esaterako: bost film jarriko dituzu hilean, bada, bost film horietatik gutxienez bat euskaraz. Nik denak eskatuko nizkieke; hemen, Euskal Herrian, ikusten diren film guztiak, haurrentzat direnak, behintzat, euskaraz, euskaraz bakarrik; gaztelaniaz aukerarik ere ez. Gainera, ohitura hori hartuko litzateke, gaur egungo haurrek berdin-berdin ikusten baitituzte filmak euskaraz eta gaztelaniaz, denek dakitelako euskaraz. Banatzaile horri zer axola dio, lau kopia edo bost edo hamar, bere kopia gaztelaniazkoak erabili edo Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dizkion lauzpabost film horiek jarri? Berentzat hobea da, ze gaztelaniazko beste lau horiek Espainian zehar gehiago zabaltzeko balioko dizkio, zeren Eusko Jaurlaritzak bost edo hamar kopia horiek ordainduko dizkio. Hala ere, ez dute ezertxo ere jakin nahi. Nola jakin nahiko dute, ba! Alferkeria; azken batean, dena da alferkeria. Dagoeneko kokoteraino nago alferkeriaz, eta dena da zabarkeria, eta dena utzi...

Ni oso kezkatuta nago, benetan; izan ere, jada joera bat hartzen ari gara gaztelaniara pasatzeko, eta gaztelaniaz hitz egiteko. Eta ikusiko dituzu gaur egun guraso euskaldunak, euskaraz ondo dakitenak, hamar urtetik gorako haurrei gaztelaniaz hitz egiten, eta esaten duzu: “Baina-baina hau zer da?!” Jatetxe batera zoaz eta etorkinak bakarrik daude hemen zerbitzari. “Hemengoek ez dute nahi”, nola ez dutela nahi! Har ezazu gutxienez hilabeteko epea eta presta itzazu euskaraz egiteko. Nik ez dut horiei buruz hitz egingo, ezta ez dakit zer filosofiari bu-

ruz ere. Nik gauza bakarra nahi dut: euskaraz eskatu nahi diet, eta nik daukadan esku-bidea bermatu nahi dut, eta zuk bermatu behar didazu. Sartu jatetxe batean, euskal girokoa, baserri berritu bat esaterako, eta inork ez daki euskaraz, inork ez: “Ez, denak etorkinak dira-ta”. Baina, “zer nahi duzu” eta beste lau hitz ikasteko ez al dira gai? Hori nik euskaraz bizitzeko daukadan esku-bidea bermatzeko, gutxienez bermatzeko.

Ordiziako gaztaren azken enkantean: dena gaztelaniaz, eta diputatu nagusia bertan zegoela; han zeuden baserritar pila, %90, euskaldunak izango ziren, eta gaztelaniaz jo eta ke, hitz bat bera ere ez euskaraz. Gutxieneko errespetua diputatu nagusiari. Non gaude? Ordizian, barkatu. Eta hemen baserritar pila bat aurrean, eta gaztelaniaz jo eta ke? Ni, jada, ez naiz isiltzen, bukatu da.

Aurten hondartzan, esate baterako, ikusten dituzu guraso batzuk bi edo hiru haurrekin, haiei jo eta ke euskaraz, eta gurasoak beraien artean gaztelaniaz. Izugarritzko abiadaz aldatzen zuten! Andreak haurrekin euskaraz eta gizonari gaztelaniaz, gizonak haurrei euskaraz eta andreari gaztelaniaz. Zutitu nintzen eta esan nien: aizue, inkesta bat egiten ari naiz. “Zergatik hitz egiten duzue zuen artean gaztelaniaz eta haurrekin euskaraz?” Eta behiak trenari nola begiratzten dion, horrelaxe begiratu ninduten, eta erantzunik ez. Ez baitago erantzunik. Horrelakoak egunero-egunero, zabarkeria hutsa; azkenean, utzi eta kito.

Zuek daukazue erantzukizuna. Zuek gazteek, zuek egin behar duzue gogor, eta euskararen transmisio hori nolabait bermatu. Ni, jada, nazkatuta eta nekatuta nago; agian gerra pixka bat emango dut, baina nik

uste dut beharrezkoa dela zuek ere lekukoa hartu eta jarraitzeko.

Ez dakit galderarik baduzuen... Galderaren bat?

Entzulea (Aitor Zuberogoitia).- Nik galdera bat. Lehen komentatu da, uste dut lehenengo saioaren osteko berbaldian izan dela, Katalunian iaz 130 film-edo estreinatu zirela katalanez, eta hemen dozena bat eskas estreinatu ziren euskaraz. Kontua da hori ez dela kasualitatez gertatzen, Katalunian aspaldi antzeman zioten merkatuaren legea oihanaren legea dela, eta guztiok daki-guna: hizkuntza handia beti hor gailendu egiten dela, baldin eta neurri batzuk hartzen ez badira. Neurri horiek hartzeko, uste dut 1997an izan zela, hango Legebiltzarrak, alderdi politiko guztien babesarekin, PP salbu, katalana normaltzeko legea onartu zuen, eta bertan aurreikusi zen, besteak beste, kuoten zer bat, zinema-aretoetan eskaintzen ziren filmen ehuneko bat, ez dakit orain zenbat zen zehatz, baina katalanez izan behar zirela, eta hor egin zuten topo *majorren* erresistentzia handiarekin. Aipatu dituzu zuk batzuk: Dreamworks, Burton Films, Disney, Warner... Kataluniako kasuan ez dakit horietako zein ziren, baina bost izan ziren eta egin zioten uko kuota betetzeari, nahiz eta –gogoratzen naiz datuaz– euren urte hartako fakturazioa Kataluniako barne-produktu gordina baino askoz, askoz handiagoa zen. Alegia, eurentzat, azken batean, huskeria zen ekonomikoki, baina uko egin zioten. Nik nahi nizuke galdetu, galdera bikoitza da: batetik, ea zer irakasbide ater dezakegun hortik, zelan konpondu zen hori, zelan dagoen orain kontua Katalunian; eta bestetik, kuotaren kontua. Uste

dut lehen erantzun diozula, baina ea zuk hemen posible ikusten duzun, gauzagarri ote den...

M. G.- Niri gustatuko litzaidake, baina Kataluniarekin alderatuta, nik konplexu pila bat ikusten dut hemen, euskaldun izatearen konplexua. Beti gaude beldurtuta, edozer gauza eskatzeko, egiteko; gobernuaren aldetik, esan nahi dut. Erraza den? Ez dut uste erraza denik. Gogoan dut hasierahasiera hartan, Eusko Jaurilaritza diru laguntza bat emateko prest zegoenean, edo jarri zenean, ordezkaritza bat Kultura Sailetik joan zen Madrilera, bisita modura, banatzaile handi horien bulegoetara bere aurkezpenera egitera, eta esatera ordutik aurrera euskaraz bikoizteko diru laguntza batzuk izango zirela, eta abar.

Ordezkarri hori erabat haserretuta zegoen, zenbaitek hartu ere ez zuelako egin, ezta hartu ere; alegia atean utzi zuten. Ulertzen? Zer egin zen horrekin? Bada, paso. Ahal duguna egingo dugu eta... Nola, nola egin hori? Bada, ez dakit. Mehatxatu nolabait, boikota egin, dirua eskaini...? ez baitakit nola konbentzitu jende hori. Bada, esaten dizut, ni patxaran botila batekin joaten naiz. Eta batzuei gustatzen zaie: "Begira, ze sinpatika neska hau!", eta eman egingo diogu film bat bikoizteko. Baina bestela ez dakit nola egin. Baina, bai, kezkatzekoa da.

Entzulea (Ane Aranburu).- Nik galdera bat dut. Ez dakit, agian oker nago, eta ni ere ametsetan ari naiz, baina ikusita diruaren premia hori, eta gobernuak daukan utzikeria hori... Konparazio bat egitearren, lehengo zinema egitea zen garestia, eta orain merkatzen ari da, alderdi teknikoei buruz ari naiz; etxe askotan daude eskuko kamerak, programak eskuragarriago daude... Ez

dakit, bikoizketaren munduan, lizentzien kontu hori eta eskubideak lortzearen kontu hori alde batera utzita, alderdi teknikoa, agian...

M. G.- Bai, merkatu egingo da.

Entzulea (Ane Aranburu).- Kalitatea jaitsi, baina, agian, euskarazko filmen kopurua igo liteke modu horretara?

M. G.- Ez bada prozesua eteten, hau da, nahiz eta hamabi bakarrik bikoiztu euskarara —hamabi bakarrik—, ez bada eteten... Bai, itxaropena daukat, etorkizunean merkeago izango direla materialak eta orduan merkeagoa eta errazagoa izango dela jendearengana iristea; eta agian orduan, pareko jarriko ginateke euskara eta gaztelania, teknika berri horiek medio. DVDan, adibidez, orain-txe, zenbait aretotan saiakerak egiten ari gara DVDan proiektatzeko eta ez 35mm-tan. Eta, egia esan, nahiko txukun ikusten da. Askoz ere merkeagoa da, eta beharbada errazago iritsiko ginateke.

Eta lehen aipatu duguna: niri tranpak, ez. Har ditzagun, adibidez, Disneyk Katalunian jartzen dituen filmak. Albisteak dio: "Jarri dugu film bera katalanez eta gaztelaniaz, eta askoz ere jende gehiago joan da gaztelaniaz ikustera" [Katalunian]. Katalan batekin hitz egiten duzu eta esaten dizu: "Bai, baina non jarri dute katalanezko bertsioa?" Zinema *kutre* batean, inor joaten ez den zinema batean, "casadiosen"; eta gaztelaniazko bertsioa, berriz, erdi-erdian, zinemarik onenetan, noski. Nik ez dut haurra eramango han zakurraren ipurdira, gaizki ikusten den eta eserleku txarrak dituen zinema batera. Ni katalana naiz, nire semea katalana da, eta gaztelaniaz badakigu; beraz, gaztelaniazko bertsioa ikustera eramango dut. Ulertzen? Albisteak ematen direnean,

ea nola ematen diren. Dena ikusi behar da eta dena jakin behar da. Hemen ohitura handia daukagu tranpak egitekoa, eta hori ere...

Entzulea (Asier Larrinaga).- Nik komentatu nahi nuena da lehenago aipatu dugun gauza bat. Esan duzu nola daukazun aurrean merkatu-kate bat, lehenengo zinemara, gero DVD formatura eta hor DV-Dan salgai jartzen duzula, eta hori... Lehen egon gara komentatzen, ETBk ere ipintzen ditu hainbeste DVD salgai eta produktu hori ez dela heltzen dendetara.


M. G.- Eskerrik asko gogorarazteagatik, hori neukan esan beharra, lehen gogoratu naiz: banatze-sarea. Elkar da hemen ezagunena, euskarazko bertsioak eta euskarazko gauzak zabaltzen dituen. Lehen aipatu dugun axolagabekeria berbera. Nik, jada ez dakit zer esan: axolagabekeria den, interes ekonomikoak diren, edo zer den, baina sartzzen zara denda batera eta ez duzu inon ikusiko euskarazko filmik. Hasten zara bila eta miatzen hasi eta... Lehen norbaitek aipatu du azalean ere ez duela jartzen euskarazko bertsioa dagoenik, eta barrura sartu eta hara! Euskarazko bertsioa. Hori bistan egongo balitz, jendeak erosi egingo luke. Nik baietz uste dut, eta hori da egin behar dugun beste ahalegin bat.

Tinkok hainbat eta hainbat film dauzka DVDra pasatuta, baina guk ezin dugu banatu, ez daukagu DVD sarea banatzeko ahalmenik. Hala ere, ez dute inongo ahaleginik egiten bertsio horiek saltzeko, eta, noizean behin, bueltatzen dizkigute: 200

DVD film batenak, 300 beste batenak eta 100 besteenak, eta ez da saltzen. Joaten zara denda batera eta esaten dizute: "Tinkoren filmak lortzea oso zaila da". Zeeer? Azkenean, zabarkeria hori ikusi eta esaten duzu: "Hainbeste lan egin, eta orain hau horrela geratzeko".

Nik ez dakit nola, baina egin beharko da horrelako kartel bat esanez: "Hemen daude euskarazko bertsioak": diskriminazio positiboa esaten dena. Jar ditzagun kartel batzuk, edo zerbait oso adierazgarria, erakusteko zer film dauden euskaraz eta garbi jakin dezala mundu guztiak film horiek euskaraz daudela. Eta azalak ere bai, bideo-azalak. Orain, Woody Allenen filmen bilduma bat aterako da euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz azpidatzita. Eta ez zuten azala euskaraz jarri nahi; orduan, zertarako behar ditut? Ez, film guztien azalak ere euskaratuta; film bakoitzaren izenburua euskaratuta. Egia da, ez dago bikoiztuta, azpidatzita dago, baina azpidatzita katalanez eta gaztelaniaz: gaztelaniaz salduko duenak gaztelaniazko azala izan dezala; katalanez eurek ikusiko dute zer egin; eta euskaraz azpidatzita badago eta ordaintzen badut, azala ere euskaraz nahi dut. Bestela inork ez daki han euskaraz dagoenik ezer, eta hori da zaindu behar den beste gauza bat, nik ez dakit nola.

Eta amaitu aurretik, Tinkok euskaratutako honako film hauen zatiak proiektatu dira: *Pailazokeriak*, *Urtemuga festa*, *Chihiron bidaia*, *Sorgin bat etxean*, *Mozart txakurra*, *Ikasgela hegalaria*, *Polleke*, eta *Robotak*.



Bezeroaren ikuspegia

ASIER LARRINAGA

EITBko Euskara Saileko burua

Asier Larrinaga bizkaitarra da, Bilbon jaioa.

Leioako Zientzia Fakultatean ikasten ari zela piztu zitzaion hizkuntza-
ren ardura, zientzia eta teknikaren munduan komunikazio zuzen eta ego-
kiak duen garrantziaz konturatuta.

Ikasketak amaituta, irakasle, itzultzaile eta hizkuntza zuzentzaile aritu
zen, eta 1991n ETBko albistegietan hasi zen hizkuntzalari.

Lanean ari zela, Euskal Filologia ikasi zuen, hizkuntzaren eta komuni-
kazioaren munduan gehiago sakontzeko.

1998an, ETBko Euskara Saileko buru izendatu zuen EITBko zuzenda-
ri nagusiak.

Nire lehen hitza EIZIERi eta Mondra-
gon Unibertsitateari zuzendu nahi diet, eus-
karazko bikoizketaren gaineko jardunaldi
hauek aurrera ateratzeagatik.

Euskarazko bikoizketa hogeita bost urte
betetzear den honetan, arloan dihardugu-
nok lehen aldiz elkartu gara jendaurrean
gure lanaz hitz egitera. Elkargune hau hiz-
kuntzak egiten du berezi, eta ekarpenik no-
belenak, hain zuzen, hizkuntzaren ildotik
etorriko dira. Nik ildo “enpresarialagoa” jo-
rratuko dut, euskarazko bikoizketa ere,
euskaraz izanda ere, bada-eta ekonomi jar-
duera bat.

Ekonomi jarduera gisa, euskarazko bi-
koizketa berezia da, industri sektore oso bat
antolatu baitzen bezero bakar baten ingu-
ruan. Bezero bakar hark –Euskal Telebista
izango zenak– kanpo-produkzioaren beha-
rra edukiko zuen programazioa osatzeko,
eta, hartara, beraren ekimenez abiarazi zen
materiala euskaraz jartzeko azpiegitura.

Horrek, hala eta guzti, ez du esan nahi
aski dela Euskal Telebistaren berri ematea,
euskarazko bikoizketaren bezeroaz hitz egi-
teko. Izan ere, ikuspegia aldatuz gero, bi-
koizketaren beste bezero batzuk identifika-
ditzakegu.

Nor da euskarazko bikoizketaren bezeroa?

[*Heidi* marrazki bizidunen zatitxo bat proiektatu da]

Ikuspegia aldatzeko, industri gorabeheretatik aldendu, eta sentimenduetara jo nahi dut. Oraindino gogoan dut zelako une magikoa izan zen *Heidi*ren lehen atalaren euskarazko bertsioa bulegoan hartu genueneko. Miren Aranburu «o, laro-laro, iu» abesten hasi zen, eta gure begi-belarriak pantailan itsatsi ziren, *Heidi*ren euskarazko lehen hitzen zain. Adibidea, beharbada, oso pastela da, eta berrogei urte inguru ez daukatenek ez dute ondo ulertuko, baina baieztapen bat egiteko balio dit: “Pantaila bati begira jartzea **magia** eskatzea da”.

Beste adibide bat emango dut, baieztapena berresteko: *Planeta urdina*, itsasoko biziari buruzko dokumental-saila.

[*Planeta urdina* marrazki bizidunen zatitxo bat proiektatu da]

Irudiek, musikak eta lokuzioak zirrara magiko batean harrapatzen dute ikuslea, eta planeta urdin horretan katigatzen dute.

Nik, telebistari begira ipintzen naizenean, lilura, zirrara, hunkidura eta sentimenduak eskatzen dizkiot kutxa magiko horri. Neuk eskatzen dut. Neu naiz bezeroa. Ikuslea jakitun dago bera dela bezero, eta, pantailakoa gustatzen ez bazaio, kezka handi barik aldatzen du hornitzailea, telebista-kanala.

Hasieran aipatutako industri sektorearen koordinatuetara itzulita, telebistaren

rola beste bat zela esan dugu. Telebista bezero zen, eta hornitzailearen rolean bikoizketa-estudioak ageri ziren.

Hortaz, telebistak rol biak betetzen ditu aldi berean: bezero eta hornitzaile. Beste modu batean azal daiteke bikoiztasun hori, esanez telebistak bitartekariarena egiten duela lehen hornitzailearen –bikoiztetxearen– eta azken bezeroaren –ikuslearen– artean.

Egitan, telebista-enpresak bezero-hornitzaile sare trinko baten erdiko korapilotan egoten dira, hainbat hornitzailearentzat eta hainbat bezerorentzat bitartekariarena egiten.

Euskal Telebistaren kasuan, hornitzailearen zerrenda luzea da. Batzuk baino ez aipatzearren: IBAIA elkarteko ikus-entzunezko ekoizleak, Mixerreko bikoizleak, EIZIEko itzultzaileak... Bezeroen zerrenda beharbada ez da hain luzea, baina laburra ere ez da: banakako ikusleak, Jaurilaritza, Telezaborra eta beste zenbait bloglari, EIZIEko eta beste erakunde batzuetako hizkuntza-sustatzaileak... Ikusten denez, sare trinko horretan, ez da Euskal Telebista aldi berean rol biak betetzen dituen bakarra.

Baina Euskal Telebista ez da gainerakoak bezalakoa. Euskal Telebistak erantzukizunez jokutzen du bere bezeroekin zein bere hornitzaileekin.

Zelan erantzuten die ETBk?

Batzuetan, erantzukizun hori zein den eta zelan bete behar den, ez da izaten oso gauza zehaztua. Euskal Telebistak, esate baterako, euskara hutsezko orotariko kanal bakarra izanda, ikusleei –edo, beharbada, ikusle ez direnei, hain zuzen ere– egunean 24 orduko euskarazko programazioa es-

kaintzeko erantzukizuna duela ulertu du, programazio horren parte bat errepikapenez eta “berrepikapenez” bete arren.

Beste batzuetan, berriz, erantzukizuna zein den eta zelan bete behar den ondo zehaztuta egoten da. Izan ere, banako ikusle gehienek bazkalosteko edo afalosteko pausaldian lagun egitea baino gehiago espero dute telebistatik: komunitate bateko kide sentiaraztea, lankideekin berba egiteko gaia ematea, informatzea, hamabost minutuko loria eskaintzea... Modu horretako interesak –edo bestelakoak– defendatu nahi izanez gero, ikusleak –pertsonak– talde, elkarre edo erakundeetan biltzen dira, eta, formalki antolatuta, formalki aurkezten dituzte euren eskakizunak.

EITBren Administrazio Kontseiluak, ikusleen ordezkarien erakundea den aldetik, 2000. urtean zehaztu zion Euskal Irrati Telebistari zein erantzukizun duen gizartearekin 2000-2007 epealdirako dokumentu formal baten bidez. Plan estrategikoa deritzo.

Eusko Jaurlaritzak, plan estrategikoa onetsita, berak ere ikusleen –herritarren– interesen alde eginez, erantzukizun bat gaineratu zion Euskal Irrati Telebistari finantzazioaren arloan. EITBren betekizunak eta finantzazioaren baldintzak programa-kontratua deritzon dokumentuan jaso ziren. Lehen programa-kontratua 2002-2005 epealdirako sinatu zen, eta orain 2007-2010 epealdirako kontratua prestatzen dihardute.

Luze joko luke dokumentuotan EITBren erantzukizuna zelan zehaztu den azaltzen hastea. Hizkuntzaren esparruan geratuko gara, beraz, horixe baita jardunaldi hauei dagokiena.

Plan estrategikoan, bederatzigarren lerro estrategikoa euskara da, eta lau helburu dauzka zehaztuta. Lehen helburu nagusia EITBk ekoizten dituen produktuen kalitatea hobetzea da. Bigarrena, orotariko programazioa osatzea, denentzat eta denetariko osagaiekin egina, gaur egun EITB baita euskaldunek euskara hutsez duten eskaintza bakarra. Hirugarrena, euskaraz izatea EITBk zabalkunde-kanal berrietarako prestatzen duen produkzioaren erdia gutxienez, euskarak bere tokia aurki dezan kanal berriok dakarten ikus-entzunezko eskaintza ugarian. Laugarrena, EITBk euskarazko programen produkzioa eta zabalkundea sustatzea, eta horretarako beste hedabide eta beste agente batzuekin elkarlanean jardutea.

Euskarazko bikoizketa lehen bi helburuekin lot dezakegu. Bikoiztutako produktuen kalitatea hobetzea bikoizketako hizkuntzaren kalitatea hobetzea da. Orotariko programazioa osatzeko, noski, kanpo-produkzioaren beharra dago: filmak, marrazki bizidunak eta beste.

ETB eta bikoiztetxeak

Euskal Telebistak betekizunak ezarri ditu bere hornitzaileen gain, bere bezeroek bere gain ezarri dituzten moduan. Izan ere, Euskal Telebistak bere bezeroekin duen erantzukizunaren gakoa, hein batean, bikoiztetxeen esku dago, ikusi bezala: kalitatezko bikoizketak egitea, era guztietako produktuak bikoizteko gaitasuna eta azpiegitura edukitzea.

Adibide batekin hobeto ulertuko da. Adibidea *Blade Runner* pelikularen gaztelaniazko bertsioetik hartuta dago. Aukeratuta-

ko eszenan Roy –robota–, Pris –robota– eta Sebastian –gizakia– mintzo dira.

ROY: ¿Por qué nos mira así, Sebastian?

SEBASTIAN: Porque ustedes son diferentes, tan perfectos.

ROY: Sí.

SEBASTIAN: ¿De qué generación son?

ROY: Nexus-6.

SEBASTIAN: Ahá, lo sabía, porque yo hago trabajos genéticos para la Tyrell Corporation. Hay algo mío en ustedes. Hagan una demostración.

ROY: ¿De qué?

SEBASTIAN: Lo que sea.

ROY: No somos computadoras, Sebastian. Somos físicos.

PRIS: Yo creo, Sebastian, que eso es lo que soy.

ROY: Muy bien, Pris. Muéstrale por qué.

Prisek zentzugabekeria galanta bota du. Ingelesezkot jatorrizkoari begiratu gero, erraz ikusten da itzulpena txarto eginda dagoela.

SEBASTIAN: Show me something.

ROY: Like what?

SEBASTIAN: Like anything.

ROY: We're no computers Sebastian, we're physical.

PRIS: I think, Sebastian, therefore I am.

ROY: Very good Pris, now show him why.

Itzulpen egokia “pienso, Sebastian, luego, existo” izango zen. Oraindino egokiago izango zen itzulpena apur bat lehenagotik hobetzea, eta ingelesezko *physical* adierazteko, “tenemos cuerpo” edo antzeko zerbait esatea –euskaraz, *gorpuzdunak gara* edo horrelako zerbait–, Morris hiztegiak dioenari jaramon eginda.

physical

4. (*gorputzari d[agokiona]*) gorpuz-, gorpuzteko, gorpuztaren, soinaren

Euskal Telebistak produktuaren gozamenaz ez zapuzteko erantzukizuna du ikuslearekin. Horrelakorik ez gertatzea bermatu behar dio. Urteetan, bermatzeko modua bikoiztetxei **kontrola** ezartzea izan da. Bikoizketa-estudioek gauzak “ondo”, “arin” eta “merke” egitea espero zen, eta hiru hitz gako horien inguruan kontrol-sistema oso formalizatua antolatu zen. Hamar urtez funtzionatu zuen, 1994tik 2004ra, Kanpo Produkzio Saileraren ardurapean.

Bikoiztetxe bakoitzari ebaluazio antzeko bat egiten zitzaion urtean bi edo hiru aldiz, zerbitzuan, kalitate teknikoan eta kalitate linguistikot-artistikoan zer mailatara heltzen zen aztertuz.

Aro berria

Plan estrategikoak aro berri bat ekarri zuen Euskal Irrati Telebistara. Plan estrategikoaren ondoren eta ondorenez programa-kontratua etorri zen, eta programa-kontratu horretako betekizunak EITB Talde osoaren betekizun bihurtu dira. Urtero-urtero EITB-ren enpresa, zerbitzu eta arlo guztiek euren ekintza-planak prestatzen dituzte, betekizun horiei erantzutera begira, bakoitza bere esparruan eta tamainan.

Euskara Zerbitzuak 2003an prestatu zuen bere lehen ekintza-plana. Bikoizketako hizkuntzaren kalitatea hobetzeko helburuari dagokionez, arlo horretan egindako lanaren adierazle moduan hizkuntza-orriak jarri ziren. Orriok *Bikoizketan elkarlanean* dute izena, eta bikoizketako hizkuntza-arazoei buruz bikoiztetxeetako hizkuntza-arduradunekin adostutako soluzio eta irizpideak jasotzen dituzte. Urtean hiru orri lantzen ditugu, eta, prestatutakoan, bikoiz-

ketan parte hartzen duten guztiei zabaltzen zaizkie: itzultzaileei, bikoizleei...

Orriak leku gehiagotara ere iristen dira, <erabili.com> webgunean argitaratzen baititugu. Horretan eta ETBn sortzen ditugun beste hizkuntza-material batzuei zabalakundea ematen laguntzeagatik, eskerrak eman behar dizkiogu Azpeitiko Euskara Patronatuari.

Lehen ekintza-plan hartatik urtebetera, 2004an, Euskal Telebistak bikoizketa zerbitzuaren lizitazioa atera zuen, eta gauzak areago aldatu ziren. Zerbitzua Mixer enpresa berriari esleitu zitzaion. Euskal Telebista, plan estrategikoaren zarpigarren lerro estrategikoak ezarritako ildotik, kalitatezko gestioaren dinamikan sartuta zegoen, eta Mixer dinamika horretara ekartzeari egoki iritzi zitzaion, hornitzaile estrategiko bihurtu zenez gero.

EITBren beste arlo batzuetan egin den bezala, PDCA¹ ereduari jarraitzea erabaki zen. 2004an hasita, urtean behin biltzen gara Mixerren eta Euskal Telebistan bikoizketa-prozesuaren partaide garen guztiak, eta batzar nagusi horretan aurreko urteko lanaren ebaluazioa egin, eta hurrengorako lan-lerro nagusiak finkatzen ditugu.

Lehen urteko lanaren emaitza aipagarria bikoizketaren aginte-koadroa da. Koadroa bikoizketen kalitatearen jarraipena egiteko modu bat da, adostua, **elkarlanean** oinarritua, kontrolaren eredu zaharra ordezkatu duena. *Bikoizketan elkarlanean* orriak, esate baterako, aginte-koadroan jaso dira, zentzu osoz.

Beste emaitza aipagarri bat *ETB 1entzat bikoizteko irizpide nagusiak* deritzon dokumentua da. 2005ean hasi zen dokumentu horren gaineko hausnarketa, eta behin betiko bertsioa 2006ko abenduan itxi dugu.

Dokumentuaren sorburua bikoizketaren lehen PDCA batzarrean adostutako definizio bat da, Euskal Telebistak bere bezeroari –ikusleari– zer eskaini nahi dion, eta bere hornitzailetik –MIXERretik– zelako produktua hartu nahi duen zehazten duena.

ETB1entzat BIKOIZTEA ZER DEN

«Erdaretan sortutako telebista-programak euskarara ekartzea, euskaldunak entretenitzeko, ikusleei ahalegin berezia eskatu gabe».

Benetan ere, aro berri baten hasiera da definizio horretan sorkuntza, estetika, mundu-ezagutza, hizkuntza-egokitasuna eta bikoizketak izan ditzakeen beste mila alderdi atzerago utzi, eta lehentasuna ematea egiazko bezeroari, euskal ikusleari.

Eskerrik asko.

Entzulea (Kaiet Estrada).– Kalitateaz egon zara hitz egiten. Ikusten dut badagoe-la bikoizketaren kalitateaz arduratzeko intentzio, baina emisioan ez dago kalitateaz emititzeko ardurarik. Zuek emititzen dituzuen film gehienei formatua mozten zaie. Gainera, duela gutxi egon dira emisio txar batzuk, *Superman 3* adibidez, eta kopia hori desastre hutsa zen: kopia zaharra, irudia kolore gabe, aldaketa analogikoa egin gabe.

1. PDCA akronimoa “plan”, “do”, “check” eta “act” ingeles hitzetatik dator. Hala esaten diogu Euskal Irrati Telebistan prozesuen etengabeko hobekuntzarako erabiltzen dugun ereduari.

Eta kopia hobeak badaude. Ikusten dut bikoizketa-etxeei asko eskatzen ari zaretela, baina gero ez diezue maila berean eskatzen materiala ematen dizuen jendeari.

Bestetik, nola ikusten duzu telebista lokalen sarrera Euskal Telebistaren munduan? Elkarkidetza egon behar litzateke, zuen eta haien artean, haiei zuek nahi duten materiala uzteko?

A.L.- Ni ez naiz Kalitate Kontrolaren sailekoa, eta badakit egon dela arazoren bat *Superman 3* filmarekin, baina ETBk ez ditu formatuak mozten. Ez da izango zuk erabiltzen duzun pantailak arazoak dituela? Beneran diotsut.

Aipatu ditudan lan-bileretan, beste horrelako arazoak ere azaltzen dira, eta bilera horietan zer esan den diotsut. Uste dut *Superman 3* filmagatik komentatu zela bilera batean arazoak egon zirela emisioan. Baina hori kenduta, azken hilabeteetan, udatik hona ez da arazorik egon emisioan, era horretako formatu gorabeherarik-eta ez behintzat.

Entzulea (Kaiet Estrada).- Baina urte honetan, bai, egon dira...

A.L.- Urte honetan, guztira, ez dakit bi edo hiru izan diren. Nire datuen arabera, emisioko beste hutsik ez da egon... Eta bikoizketaren kalitateari eragiten dio, agian, baina ez da hemengo gaia.

Eta telebista lokalen kontuaz, ez dakit zer nahi duzun...

Entzulea (Kaiet Estrada).- Herrietako telebista batzuek emititzen dituzte euskarazko programak, baina ni Arabakoa naiz eta ez dut ezagutzen kasurik; gurean ez baitute euskaraz emititzen...

Entzule (Beñat Zamalloa).- Zuk aipaturakoaren haritik, nik ezagutzen dudana ka-

sua Goiena Telebistakoa da, bai barruan egonda eta bai kanpotik. Nik dakidala, bertan botatzen diren marrazki bizidun guztiak ETBri erositakoak dira.

Entzule (Aitor Zuberogoitia).- Horrela da: Euskarazko Telebista Lokalen Elkartek, Tokiko deitzen denak, badauka hitzarmen bat sinatuta ETBekin, eta erabilitako programen bankuko programak-edo Tokikoren esku uzten dira eta lekualdatzen joaten dira telebista batetik bestera, baina ordainduta. Aldiz, Kataluniako eredua guztiz bestelakoa da: TV3ren programa-bankua guztiz doan geratzen da katalanez diharduten tokiko telebisten esku. Badakit erabaki politikoa dela hori...

Beste kontu bat: Askok aipatu da bikoizketaren kalitatea. Baina ni kezkatzen naue-na da bikoiztutako produktua zelan emititu. Duela pare bat urte-edo *Harry Potter* filmaren bikoizketa bota zen ordu berean ETB 1en eta ETB 2n. Horren alde eta kontra iritzi asko plazaratu zen orduan. Ez dakit ondoriorik edo atera zenuten. Zelan ikusten duzu orduan sortu zen eztabaida, bizpahiru urteko perspektibatik?

A. L.- Hor gauza asko izan ziren tartean. Funtsezkoena, ETBk pase bakarra zeukala. *Harry Potter* emateko ETBk pase bakarra zeukan. Balantzan bi gauza egon ziren: batetik, umeentzako produktuak euskaraz ematen dira, eta horrekin jarraitu nahi zen eta nahi da; bestetik, *Harry Potter*rek zenbat balio duen. Eta *Harry Potter*, emisio eskubideak eta hori guztia kontuan hartuta, oso-oso-oso-OSO garestia da. Eta orduan, ETB 1en bakarrik emanda, iragarkiekin-eta ez zen beteko... Garbi zegoen ETB 2n ematea interesatzen zela. Lortu zen erdibideko formula hori: aldi berean bietan ema-

tea. Banatzailearekin hitzartu zen aldi berean emanda, kate bietan, bakoitzean hizkuntza batean, pase bakar bezala kontatuko zutela. Horregatik egin zen horrela.

Baina gero gauza asko egon ziren. Audientzia datuekin gauza asko komentatu dira. ETB barruan egin den gogoeta da, emisio hori zelan egingo zen ez zela ondo azaldu. Eta jende askok ez zuela jakin momentuan ETB 1en ere egongo zela euskaraz. Eta hortik etorri zen arazoaren zera handi bat: jende gehienak ulertu baitzuen ETB 2n emateko ginela. Beste ondorio bat izan da banatzaileak esan duela horrelakorik gehiago ez duela onartuko, pase bi direla eta horrelakorik ez duela onartuko gehiago.

Entzulea (Iñaki Zubizarreta).- Eguna ere ez zen aproposena izan, agian... Gabonetan familian bilduta egoten da...

A. L.- Oker ez banago, 2004ko Urte Berri egunean eman zen *Harry Potter* ETBn. Baina audientzia aldetik, apropos aukeratu-tako eguna izan zen, eta ETB 1 eta ETB 2 biak batuta, oso audientzia ona eman zuen. Kontua da nora joan zen audientzia hori...

Entzulea (Kaiet Estrada).- Gertatzen da familia askotan dagoela euskaraz ez dakien norbait...

A.L.- Baina mandoan agintea umeek daukate. Hori ondo aztertuta dago.

Entzulea (Kaiet Estrada).- ETB prestatu dago kate berean euskaraz eta gaztelaniaz emititzeko? Lehen ez zegoen aukera teknologikorik, eta ETB 2 sortu behar izan zen, baina orain badago aukera.

A.L.- ETBk aspaldi emititzen du dualean. Ez zaio telebista digitalari itxaron behar izan, dualaren teknologia hor dago, eta ETBk dualean emititzen du. Beste kontu bat da dauzkagun aparatuak horretarako prestatuak dauden. ETB 1ek, esaterako, ingelesez eta euskaraz ematen ditu filmak; eta ETB 2k, ingelesez eta gaztelaniaz. Dualaren teknologia nahikoa da horretarako. Eta aspaldi gabilta egiten hori, nahiz eta etxetan hargailurik-eta egon ez den. Lurreko telebista digitalaren teknologia aspaldi-aspaldikoa da.

Ez dakit ezagutzen duzuen Telemadridek kasua: Telemadridek eduki du kate bat, La Otra, eta kate hori sortu zen artean hargailu digitalik ez zegoenean. Eta telebista digitala zenez gero, ez zuen inork hartzen. Hor egon da kate fantasma bat inorentzat emititzen ez zuena. Beraz, teknologia hori hor dago, eta aspaldi ari da jendea probak egiten.



Laburpena

BEATRIZ ZABALONDO

Eguna amaitzeko, eskerrik asko hemen egon zareten eta parte-hartzaile guztioi.

Honenbestez, bada, hementxe utziko dugu *Euskarazko Bikoizketaren inguruko Jardunaldi* hau.

Labur-labur aipatuko dugu eguna zertan izan den: goizeko lehen bi saioetan, Jesus Eguzkitzak eta Iñaki Zubizarretak hizkuntzaren alderditik azertu dute ETBrako euskarazko bikoizketa: aurreprodukzio, produkzio eta postprodukzio faseetan zer alderdi jorratzen diren eta zertan jartzen den arreta ikusi dugu. Ofizioaren eta eskarmentuaren bihotzetik azaldu dizkigute ikus-entzunezko itzulpenaren xehetasun guztiak eta lanbidearen nondik norakoak. Adibide ugariz hornituta, gainera.

Euskararen biziberritzeak nondik jo behar duen bikoizketari dagokion alorrean, eta zergatik den garrantzitsua azaldu du Iñaki Zubizarretak.

Zinemarako euskaraz bikoizteak dakartzan are zailtasun handiagoen berri eman digu Marian Galarragak ondoren. Eman dizkigun azalpenekin ohartu gara industria honetan, euskaraz ere lan egin nahi bada, ez dela nahikoa ondo lan egitea. Are: ez da bikoizketaren kalitatea zalantzan dagoena. Aldiz, zinema-banatzaile handiekin buruz burukoa gainditzeak eta merkatuaren legeari aurre egiteak ematen ditu buruhauste nekagarrienak.

Kezka hitza agertu da behin baino gehiagotan, bai telebistarako, bai zinemarako alorrean. Eta kezka horren laino batek ilundu du tarteka hizlari-entzuleen jarduna.


Arratsaldeko saioan, Asier Larrinaga bezeroaren ikuspegia azaltzen saiatu da. Batez ere, bereizi nahi izan du bezeroa ez dela beti bat, eta ikuspegiak aladatu ahala rolak ere aldetzen direla.

Plan estrategikoaren berri eta aro berriaz aritu denean, bikoizketaren definizioa eman digu, eta horretxekin amaitu nahi nuke: telebistaren aurrean jarritakoan edo zinemara goazenean euskarazko filmak ikustera, go-goan izan dezagun denok zer dagoen profe-

sionalon buruan. Hauxe da definizioa: “Er-daretan sortutako telebista programak euskarara ekartzea, euskal ikusleak ahalegin plusik gabe, ondo entretenitzeko”.

Besterik gabe, hauxe izan da guztia. Eskerrik asko eta hurren arte.

Beste artikulu batzuk



Zazpi ohar Kataluniako telebista-bikoizketari buruz

JOSEP M. CARBÓ

TVCKo bikoizketarako hizkuntza-zerbitzuko koordinatzailea

Senez-ek eman didan aukera baliatu nahi nuke hausnarketa pertsonal batzuk azaltzeko; agian ez dira oso landuak izango, baina horrexegatik, hain zuzen, erabilgarriak izan daitezke ikus-entzunezko euskarrietarako itzulpengintzaz premiazko eztabaida etengabea sorrarazteko.

1. Bikoizketa-industriako ekoizpen-katea

Bikoizketa ez da eskulangintza hutsa. Beraz, ez da alferrik izango produktu bikoiztuan amaitzen den prozesu industrialaren jardueraren balantze labur bat egitea; izan ere, prozesu horretan partaide diren egileen soslai profesionala kasu batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago egokitzen baita egin beharreko lanera.

Lehen egileak, itzultzaileak alegia, prestakuntza ona izan ohi du, itzulpengintza-fakultatean eskuratutakoa. Soinu-teknikariek ere prestakuntza egokia ekarri ohi dute Lanbide Heziketa Zentroetatik. Aktoreak handik eta hemendik datoz: Katalunian, gaztelarazko bikoizketako aktoreei irratietan antzerki-munduko ahotsak gehitu izan zaizkie, baina hala ere, prestakuntza-zentro egonkorrik ez dagoenez, belaunaldi berriek ez dute erreleboa erabat hartzen. Egokitzaile guztiek ez dute behar bezalako prestakuntza linguistikorik: itzultzaileak eta hizkuntzalariak esparru horretan sartu diren heinean arindu izan da gabezia hori. Eta azkenik, hori dira hizkuntzalariak, guztiak unibertsitate-ikasketadunak.

Beraz, katalanezko telebista-bikoizketa-
ren esparruan, bi agente profesional indar-
tu beharko lirateke: aktoreak eta egokitzaileak. Aktoreen esparruan, antzerki-eskola nagusietan bikoizketa-ikastaroak finkatu beharko lirateke, aktore batek lehenik eta behin aktore izan behar baitu, ondoren bikoizketan, antzerkian edo zineman lan egiteko. Erakunde publikoek prestakuntza edo ikasketa horiek bermatu beharko lituzkete, azpiegitura kultural nahiko garrantzitsua baita. Egokitzaileei dagokienez, nire ustez, aukera egokiena da itzultzaileak egokitzaile bihurtzea. Lehenik eta behin, egokitzen dakien itzultzaileak arrisku arruntetik ihes egiten daki bere lanean: gidoia hitzez hitz itzultzea. Itzultzean egokitzea behartzen delarik, itzultzaileak filmaren protagonistaren jarrera orokorrari lehentasuna ematen dio (ahots-jokoak, keinuak). Ondorioz, esaldiak askoz ere egokiagoak dira ozenki irakurtzeko, edo aktore batek interpretatzeko.

TVCrako lan egiten duten bikoizketa-estudioak aldeztu aurretik homologatutako itzultzaile eta hizkuntzalariekin lan egitera behartuta daude, kalitate-maila orokor bat bermatzeko horrela. Berme hori ezinezkoa gertatuko litzateke, batzuek nahi duten gisan, itzultzaileak libreki kontratatuz eta gaizki egindako lanak zigortuz. Izan ere, horretarako, TVCk produktu guztiak zehazki berrikusi eta zuzentzeko egitura bat behar luke, eta gaur egun ez du hartarako beharrik. Itzultzaileak homologatzeak beste ondorio positibo bat ere badu: itzultzaileak langile autonomoen mundu gogorrean ibili behar dira, eta bikoizketa-estudioek, itzultzaile homologatu talde egonkorrek sortzeko joera hartzen dute, lanean nolabaiteko

jarraipena izango dutela bermatuz. Kalitate-kontrolaren ikuspuntutik, TVCrentzat funtsezkoa da itzultzaile bakoitza banaka baloratzeko. Itzulpen agentzien bitartez jokotuta, berriz, ezinezkoa gertatzen da aurrez jakitea lan bakoitzak zein kalitate-maila izango ote duen.

2. Ez da ona itzultzaileak bakarka lan egitea

Itzultzaileen lanbidearen ezaugarri nagusi bat da, gehiegitan bakarrik lan egin behar izatea. Askotan, horrelako lanetarako solaskide bat behar izaten da, hizkuntza eta bereziki estilo kontuei buruz hitz egiteko. TVCn, hizkuntzalariak berrikusi eta zuzentzen dituzte itzulpenak, eta itzultzaile batzuek mekanismo hori inposiziotzat har dezakete; alabaina, horietako askorentzat, itzultzaileen eta hizkuntzalarien arteko harreman hori oso emankorra izan da: poliki-poliki, hizkuntzalariak ikasi dute testuen arau-zuzentasuna bermatzeaz gain, itzultzaileei adierazpen-baliabideak ere eman behar dizkietela, ikus-entzunezko produktu bakoitzaren generoaren eta komunikazio-xedearen arabera. TVCko bikoizketa zerbitzuan, itzultzaile askok oso harreman berezia dute testua zuzenduko dion hizkuntzalariarekin. Itzultzaile-taldeak osatzen ditu hizkuntzalariak, bereziki telesailetarako, hainbat itzultzailearen estilo-irizpideak norbaitek bateratu behar baititu. Hizkuntzalariaren berrikuspina bigarren ikuspen bat da, itzultzailearen Estokolmo-sindrome lexikoa ezabatzeko, aditu baten hitzak erabiltzeko.

Estilo-liburuak tresna erabilgarriak izan daitezke, baldin eta ez badute beti-bateko

nahikeriarik. Ikus-entzunezko itzulpenetan sor daitezkeen egoerak muga gabeak dira, eta ezingo genituzke kasu gertagarri guztiak batera bildu. Gure esperientziak erakutsi digunez, gauzak zehaztasun gehiegiz arautzeak interpretazio-arazo gehiago ekartzen ditu. Estilo-liburua gimnastikako taula bat bezalakoa izan behar da: konponbide zehatz eta itxiak eman beharrean, tratamendu-teknikak irakasten dira (arreta non jarri eta zailtasunak nola konpondu). Estilo-liburua zigor-kode bihurtzen bada, orduan bai, itzultzailearentzako oztopo bihurtu daiteke. Horregatik, hobe da gutxienezko irizpideak zehazten dituen estilo-liburu bat erabiltzea, eta gero baldintzak sortzea kasu bakoitza egunez egun eta banaka kontsultatzeko. Ildo horretan, tresna telematikoez baliatu gara, hain zuzen ere posta-zerrendaz, “Versió Doblada” foroa sortzeko. Dagoeneko, zazpi urte darama itzultzaile eta hizkuntzalarien arteko harremana sustatzen, eta, urtean behin, guztien arteko elkarretaratze bat egiten da, TVCk antolatua.

“Versió Doblada” foroari esker, itzultzaileek eta hizkuntzalariek estilo-liburuko irizpideei buruz eztabaida dezakete, irizpide horiek aldatuz edo berriak erantsiz. Eginkizun hori asko aiseago da “És a dir”¹ webgunea antolatu denetik aurrera, bertan orientazio material guztiak baitaude jasota, baita proposamen-gune bat ere, itzultzaileek edo hizkuntzalariek egindako ekarpenei buruz etengabe eztabaidatzeko.

Bikoizketaren oinarriko kontzeptua berregintza da. Itzulpena ona izango da, baldin eta elkarrizketak katalanez eginak dau-

delak badirudi; hau da, elkarrizketak berregintza lortu badu. Eta itzulpena kaskarra izango da, baldin eta jatorrizko hizkuntzaren kalkoak nabaritzen badira, edo ez badu benetako ezeren antzik (badago inork hitz egiten ez duen katalana –baita gaztelera ere–, baina denok ulertzen duguna). Itzulpen bat egiteko, onena izango litzateke sekuentzia oso baten esanahia hartu eta katalanez nola esango genukeen pentsatzea. Horregatik, oso garrantzitsua da bukaerako testu-begirale bat egotea, testua itzuli gabekoa, haren erreferentzia bakarra izango baita gauzak katalanez nola esan ohi diren.

3. Bikoizketaren sinesgarritasun eztabaidatsua

Bikoizketan erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarriak behinena da egiantzekotasunaren kontzeptu paradoxikoa. Ikuslearentzat sinesgarria izan behar da, baina ez benetako hizkuntza erabileraren arabera, baizik eta ikusleak kontsumitu ohi duen fikzioa ezaugarritzen duen hizkuntza-motaren arabera. Bikoizketak duen artifizialtasunaren arazo korapilatsua dago funtsean. Bikoizketak artifizialtasuna berezkoa duela kontuan hartuta, noraino iristen dira mugak? Auzi horrek etengabe sortzen dituen iritzi aldeko nahiz aurkakoez plazaratzen digute galdeta hori, behin eta berriro.

Ikusleek bikoizketaz duten pertzepzioari buruz egin diren lehen ikerketen emaitzak ditugularik, badirudi hizkuntza-eredua (hori izaten baita araudi, hizkera arrunt eta erdarakadei buruzko eztabaida

1. www.esadir.cat webgunean ikus daiteke.

guztien jomuga) ez dela sinesgarritasunaren eragile nagusia. Ikerketa horiek ikusle-kopuru txikiekin bakarrik egin direnez, ezin dira ondorio orokorrak atera, baina esan daiteke bikoizketaren sinesgarritasunaren erreferentzia dela ikuslea ohiturik dagoen fikzio-hizkera.

Fikzio-hizkuntza hori gaztelera denez, edo zehatzago esanda, bikoizketan erabiltzen den gaztelera, ohartuko gara ikusle batek TVCn film bat katalanezko bertsioan ikusi aurretik film hori bera gaztelera eza gutu baldin badu, gaztelera bertsio hori bihurtuko dela erreferentzia, bertsio originala balitz bezala. Auzia ez da gaztelera itzulpenak hobeto edo okerrago jasotzen ote duen jatorrizko bertsioa, katalanezko aldaerak baino. Izan ere, ikusleek ez dute jatorrizkorik ezagutzen; gaztelera bertsioa ontzat emanik, katalanezkoa onartuko dute gaztelera koaren antzekoa den heinean, eta alderantziz.

Aldagai soziolinguistikoa ere erabakigarria da. Ikusle katalan gehienak bikulturalak dira: interes eta estimu berdina izan dezake katalanezko nahiz gaztelera produktu batekiko. Ikusle gaztelaniadunak, ordea, katalanezko bikoizketa artifizialtzat joko du, hain zuzen ere katalanez delako. Katalanezko albistegi bat arretaz ikus dezakete, edukiagatik, baina fikzioan hizkera oso elementu garrantzitsua da, eta katalanezko fikzio-hizkuntzarekin ohituta ez dagoenez, hasieratik urruntze bat sortzen da.

Katalan hitzunik eta gaztelania hitzunik bat datoz alderdi batean: bikoizketari sinesgarritasuna ematerakoan, asko laguntzen du pertsonaiek betidanik gaztelera izan duten ahots bera izatea katalanez ere. Katalunian gaztelera bikoizketak egiten

direnez, bi bertsioetan ahots berak entzutea lor daiteke. Beraz, badirudi sinesgarritasunaren auzia ohitura eta tradizio kulturalari lotua dagoela.

Kulturaren esparruko sektore mobilizatuagoek, berriz, bikoizketetan aniztasun handiagoa eta hizkuntza jatorragoa erabiltzea eskatzen dute. Ondorioz, etengabe ebaluatu behar izaten da zein esamolde erabiltzen diren gehien, eta zenbateraino duten gaztelaren eragina. Horrez gain, esparru akademikoan proposatu berri da hizkuntza estandarraz gain, ahozko azpiestandar bat onartzea. Izan ere, bikoizketa-usadio luzeko hizkuntza guztiek dute horrelakorik. Gaztelarak badu, zergatik ez katalanak? Alabaina, gaia korapilatsua da; izan ere, ahozko hizkuntzara hurbildu nahi izanez gero, kalean hitz egiten den hizkuntzara hurbilagotu beharra dago, eta hor bi oztopo nagusi sortzen dira. Alde batetik, bikoizketaren artifizialtasunak ez du biderik ematen oso “naturalista” izateko (bestela, begira nolako naturaltasunez onartzen dituzten gaztelera “majadero” edo “qué diablos” bezalako esamoldeak bikoizketetan). Bestetik, ahozko hizkera dialekto geografikoetan gauzatzen da, eta estandar bat nahi izatekotan horietako bat hautatu beharko da, besteak baztertuz, eta horrela polemika are gehiago ktramilatzen da.

4. Hizkuntza-eraginaren joko fikzioan

Katalunian bikoizketak egiten hasi gineanean, arazo nagusia zen ez zegoela erreferentziako fikzio-hizkerarik. Kultura normalean, bikoizketarako erreferentzia zinema izan ohi da, eta zinemak, halaber, antzerkian oinarrituta eraiki ohi ditu elkarrizke-

tak. Normalizatu gabeko kulturetan, esaterako kultura katalanean, ez genuen horrelako oinarririk: eleberri katalanak (arrazoi historikoak direla medio, inoiz ez du harreman onik izan errealismoarekin) ez zigung ia ezertan laguntzen, eta 1930eko hamarkadako herri-antzerkiak ere ez, sainetearen tradizio kostunbrista besterik ez baitzigun laga.

Hala, asmatzen joan beharra izan genuen eta grinez egon ginen katalanezko ekoizpen propioaren gidioen zain (telenobelak, telefilmak, film luzeak). Esperoak uste baino luzeago jo zuen, eta guretzako ustekabea izan zen katalanezko bikoizketak ordu arte eraikitako ereduaren iturritik edan zutela gehienbat. Ez zen harritzekoa ere, gidoilari berrien erreferentzia linguistikoa ikusitako telebista baitzen, katalanez (hasiera fikzio guztia bikoiztua zen)... baita gazteleraz ere, noski.

Eragin-joko hori, ordea, uste baino konplexuagoa da. Katalanezko fikzio propioak hegaldia altxatu duen honetan, bikoizketan lanean ari garenok argi daukagu “ahozko fikzio-hizkuntza” ekoizpen propio horrek erabakitzen duela, eta ez guk. Adi gaude, fikziozko hizkera horretan erabiltzen dituzten hitz eta esamolde berriei, lehen esan dugun bezala, bikoizketaren sinegarritasuna erabileraren ondorioz ezartzen den fikziozko katalanaren erudian oinarritzen baita.

5. *Jatortasuna eta argota*

Gazteen argotaren esparruan, katalana diglosia-egoeran dago, eta egoera hori ez da aldatuko hedabideek katalanezko berezko argota sortu eta luze-zabalean ezartzea lortzen ez duten arte. Gaur-gaurkoz, gaztele-

rak sortzen du argot hori, eta katalanak fonetikoki egokitu edo hitzez hitz itzultzen du.

Izan ere, telebistako gidoi originaletan, pertsonaia gehienek ez dute oso hizkera landu edo konplexurik; aitzitik, pertsonaiak hitz edo esamolde adierazgarri gutxi batzuek nabarmendu ohi dira. Prozedura hori –batzuek pintzelkada esaten diote– itzulpenean ongi jaso beharra dago, horretan erabakitzen baita argotaren erabilera ere, gidoi askotan eta pertsonaia askotan, erabat garatuta azaldu ordez, ohar gutxi batzuetan aditzera emana denez.

Gazteen argotari dagokionez, modaren eraginez oso iraupen laburra duen arren, 1970eko hamarkadatik aurrera sortutako gazte-kulturak “gazte-argot estandar” baterako oinarriak finkatzen joan dira, hainbat argot-aldagaitako elementuak bertara bildurik. Adibidez, “tio” apelatiboa, edo “muntar-se”, “passar de” aditzak eta “rotllo” izenak iraun egin dute, eta azkenean hizkuntza arruntaren barnean sartu dira, ez bereziki gazteen hizkeran bakarrik.

Pintzelkadaren prozedurari buruz, amaitzeko aipatu behar dugu 2004-2005 artean ikerketa garrantzitsu bat egin zela gaur egungo musika talde gazte katalanen abestietako hiztegiari buruz. Hiru filologia-ikasleri eskatu zieten 64 diskoetako abestietako letretatik, gazteen argotari zegozkion terminoak aukeratzea. 182 termino aukeratu zituzten, horietatik 79 hiztegian ageri zirenak, eta beraz, hizkera arrunt eta orokorren barne zaudenak. Hipotesi moduan, beraz, esan daiteke testu bat argot erakotzat jo daitekeela testua guztiz eta erabat argot hutsa izan gabe.

6. Ekosistema linguistikoan leku baten bila

Katalanez bizitzeak, kultura gehienbat gazteleraz, eta hein gutxiago batean, beste hizkuntzatan kontsumitzen dugun mundu honetan, gure lana orientatzen duen konzeptu bat etengabe birdefinitu beharra daskarkigu: normalizazioa. Teorian, hizkuntza normalizatu bat da funtzio kultural guztiak betetzen eta bizi izateko aukera ematen duena. Besterik ez. Baina mundu honetan, kultura-ondare asko jatorrizko hizkuntzan kontsumitzen dugu (abestiak, bideo-jokoak eta Internetekin lotuta dauden beste ekintza asko), kirol asko ere jatorrizko hizkuntzan egiten ditugu (futbola, saskibaloia, igeriketa eta beste kirol gutxi batzuk kenduz gero, ia ezinezkoa dirudi beste kiroletako hiztegia itzultzea, kirolariek beraiek ingelesez bakarrik ezagutzen baitituzte hitzak), teknologia berriak zuzenean ingelesez erabiltzen ditugu, eta sukaldaritza etnikoa irensten dugu hitzak jatorrizko hizkuntzan erabiltzeko esnobismoaz. Hori guztia ikusita, zer premia ote du gizarteak hainbat esparrutan itzulpenik egiteko?

Terminologia, itzulpengintzako oinarrizko tresna izanik, badirudi esparru teknikoetan bakarrik dela probetxugarria (esparru informatikoak kenduta, noski). Fenomeno hori lehendik ere bazegoen, masako kulturaren aurretik, baina askoz ere proportzio txikiagoan. Esan nahi dut hizkuntza zehatz batzuk, arrazoi historikoak direla medio, esparru semantiko batzuetako hiztegiaren hornitzaile bilakatzen direla. Orain eskandalizatu egiten gara, ingelesak funtzio horretan monopolioa duelako, baina iraganean ezer esan gabe onartu genuen italieraren nagusitasuna musika-esparruan,

edo frantsesarena gastronomia-munduan. Zein punturaino da beharrezkoa katalan hiztunentzat azken orduko abentura-kirol edo jostailu informatiko berrieneko hiztegia itzultzea? Zein punturaino du eragina gure hizkuntzaren osasunean?

7. Gaztelera, otsoa; katalana, txanogorri-txo; eta ingelesa, ogroa

Halabeharrez, katalana gaztelerarekin batera bizi da, mesfidantzaz, etengabe oztopatzen duelako. Iritzi publiko katalanak oso argi dauka gaztelerak katalana oztopatzen duela, baina bikoizketan lanean ari garenok, egunero ikusten ditugu ingelesaren interferentzia bortitzak, eta jendeak ez du inolako sentsibilitaterik horri buruz.

Harrigarriena da, iritzi publikoak gazteleraren interferentziatzat jotzen dituen fenomeno linguistiko batzuk, berez, ingelesak eragindakoak direla, lehenbizi gaztelerara itzulita barneratu direnak, eta, ondorioz, katalanez erabiltzen hasi diren arte jende askok ikusi ez dituenak. Egia esateko, guk egiaztatu izan dugunez, ingelesak gazteleran daukan interferentzia-maila gaztelera hiztunen iritzi publikoaren alarmak pizteko adinakoa litzateke, katalanek hizkuntzarekiko duten kezka bera izango balute gazteleradunek. Izan ere, gaztelerazko hizkuntzalariek hizkuntzari buruz dituzten kezkek bat datoz ia hizkuntzalari katalanenekin.

Gazteleraren eta katalanaren arteko harreman gatazkatsuak ez digu ikusten uzten beste hizkuntza askotan gertatzen diren fenomenoak, berriak izate hutsagatik Katalunian gazteleraren interferentziatzat jotzeko joera baitago. Ez dut soil-soilik esan nahi hedabideetako hizkera pobretua dagoela,

termino espezifikokoak termino orokorrean (edo hiperonimoez) ordeztzen direlarik. Nire ustez, eta oraingoz uste hori oso subjektiboa da, lehen bihurkariak ez ziren aditzak orain hala izatea fenomeno psikologiko eta kultural baten ondorioa da (pertsonalizazioa eta gure gizarteko indibidualismoa), eta lehenaldiko aditzak gero eta gutxiago erabiltzea, edo subjuntiboak

ere gero eta gutxiago ikustea “orainaldiko” ikuspuntuaren ondorioa, berehalakoari lotua dagoen bizitza sozialaren isla. Bi fenomeno horiek gidoiak idazteko modua aldatu dute, eta jende askok, lehenbizi gazteleraz idatzitako gidoietan ikusi ditue-nez, gazteleraren interferentziazat jotzen dituen arren, beste hizkuntza askok ere arazo berak izan ditzakete.



Euskarazko Bikoizketaren Historia

ASIER LARRINAGA LARRAZABAL

Euskal Telebistako Euskara Saileko burua

Izenburua laburra eta adierazkorra da, eta, horrenbestez, egokia iruditu zait. Berez, artikulua honen esparrua zabalagoa da: ikus-entzunezkoen euskarapena, alegia, bikoizketa ez ezik, azpidazketa eta ahots-gainjartzea ere bai.

Historia kontatzeko, irizpide kronologikoa aukeratu dut. Kontaketan Euskal Telebistaren historiari jarraituko diot ondoz ondo, eta epealdiak bereizteko orduan ere ETBren historiako mugarriei lotuko naitzaie. Azken batean, Euskal Telebista izan ez balitz, ziurrenik ez zen inoiz izango ez euskarazko bikoizketarik, ez euskarazko ikus-entzunezkoarik oro har.

Artikuluari bildu ditudan datuak protagonistengandik jaso ditut zuzenean; batzuk oraintsu, beste batzuk orain dela urteak.

Horregatik eskerrak eman nahi dizkiet guztiei, eta, eman ere, hemen, toki nabarmen-garri honetan: M. Francisca Vallés, Iñaki Beobide, Andoni Aranburu, Josefina Onaindia, Daniel Marcos eta Idoia Amezaga ETBko lankideak; Gabino Murua eta Lourdes Otaegi, ETBko figura historikoak; Iñaki Etxeberria Garmendia, euskarazko bikoizketaren hasierako garaietan aritua; Martin Ibarbia eta Mikel Arregi, ETBren eta euskal ikus-entzunezko produkzioaren sustatzaileak; Karmele Huegun eta Iñaki Zubizarreta, lehen Irusoin eta egun Mixer etxeak; Itziar Jauregi eta Jesus Eguzkitza, lehen Edertrack eta egun Mixer etxeak; Beatriz Zabalondo, lehen K2000n eta egun Mondragon Unibertsitatean diharduena; Marian Galarraga, Tinko etxekoa; eta Aran-

tza Giga, Donostiako Zinemaldiaren Dokumentazio Departamentukoa. Era berean, gogoan izan nahi dut Rosa Diez Urrestarazu lankidea, 2003an argitaratu zuen liburua –hura ere zuzeneko lekukotzetan oinarritua– eta ahoz emandako argibideak oso baliagarri izan baitzaizkit datuak osatzeko.

1980-1983

Euskal Irrati Telebistaren sorrera

Gernikako Estatutua onartu eta hil gutxira¹, 1980aren hasieran, Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeak egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Handik sortutako Legebiltzarrak Carlos Garaikoetxea aukeratu zuen lehendakari, eta hark Ramon Labaien izendatu zuen bere gobernuako Kultur sailburu. Labaienen lehenengoetako ekimenak euskara sustatzeko neurriak izan ziren, besteak beste, sarbidea ematea hedabide berrietara. Radio Televisión Española-rekin harremanean jarrita, eragozpenak baino ez zizkioten agertu, Euskal Autonomia Erkidegorako deskonexioetan euskarazko tarteak sartzeko interesa azaldu zirenean, eta, horren aurrean, Labaienek asmo handiko proiektu bat oratu zuen: irrati eta telebista propioak egitea.

Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea –EITB– 1982an sortu zen, Eusko Legebiltzarraren 5/1982ko maiatzaren 20ko legearen bitartez, Gernikako Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari egotzi zizkion eskumenak erabiliz. Helburua hirukoitza zen: herritarren informaziorako eta parte-

hartze politikorako tresna izatea; hezkuntza-sistemarekin kooperatzea; eta euskal kulturaren zabalkundea eta euskararen garapena sustatzea.

EITBren euskarazko irratiak –Euskadi Irratia– 1982ko azaroaren 23an hasi zen emititzen, eta Euskal Telebistak –ETBk– handik hilabetera, 1982ko Urte Zahar gauean, egin zuen lehen emanaldia, euskaraz eta gaztelaniaz.

Euskara sustatzeko helburuari atxikita, ETBk euskara egin zuen bere hizkuntza, baina hasieratik heldu nahi izan zuen EAEko biztanle guztiengana, ez-euskaldunak gutxi gorabehera % 75 izanik. Urtebete inguru probako emisioan aritu eta gero, ETBk 1983ko abenduaren erdialdean hasi zuen emisio erregularra. Eguerdiko albiste-gia –Teleberri– gaztelaniaz egitea pentsatu zen, eta euskarara bikoiztutako produkzioa –programazioaren zati handi bat bete behar zuena– gaztelaniaz azpidatzita ematea erabaki zen.

Irrati eta Telebista Eskola

Ez da gehiegikeria esatea Euskal Irrati Telebista ezerezetik sortu zela: egoera legala badaezpadakoa zen; erabili nahi zen hizkuntzak hamabost urte ere ez zeuzkan egin da batasunaren bidean; batasuna bera, gainera, hizkera idatzirako pentsatua zen, ez ahozkorako; ikus-entzunezko hedabideetan esperientzia zuten euskaldun profesionalak zenbatzeko, ez zen esku bat baino gehiago behar.

1. Gernikako Estatutua 1979ko urriaren 25ean onartu zen, referendum bidez.

Erakunde berriak azpiegitura eta instalazio handiak behar zituen, baina beharrezkokoagoa zitzaion profesional-talde egoki bat, ondo prestatua alderdi guztietan: hizkuntzan, dramatizazioan, gorputz-adierazpenean, idazketan, esataritzan... Obrak egiten ziren bitartean, Ramon Labaien sailburua Iñaki Beobide euskal kulturaren sustatzailearekin jarri zen harremanean, euskarazko telebista pirata bat antolatzeko asmotan zebilelarik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko irradi eta telebista publikoetako profesionalak izango zirenak prestatzeko ardura eman zion.

Iñaki Beobidek, 1980ko udazkenean, Irrati eta Telebista Eskola sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Donostiako Prim kalean zeukan lokal batean², eta urte eta erdiz ikastaroak antolatu zituzten Euskal Irrati Telebistatan arituko ziren esatari eta aurkezleentzat. Ikastaroak emateko, Beobidek aditu-talde zabala bildu zuen: Javier Aranburu kazetaria, Bixente Gezala komunikologoa, Xabier Lete kantautorea... Xabier Mendi-guren Martuteneko itzultzaile-eskolaren zuzendariak hizkuntza-prestakuntza egin zuen. Xabier Elorriaga aktore eta unibertsitateko irakasle zenak gorputz-adierazpena eta dramatizazioa irakatsi zuen. Iñaki Zubizarreta eta Loiola Irratiko eta Donostiako Herri Irratiko beste profesional batzuk esataritza eta lokuzioaz arduratu ziren. Ikastaroetan albiste-idazketa, kazetaritzako testuen euskarapena, lokuzioa, ahotsaren erabilera eta ikus-entzunezko kazetaritza

landu ziren. Lehen promozioetakoek –guztira hiru promozio irten ziren– 1981eko urtarilaren 31n jaso zituzten diplomak.

Prestakuntza teknikoari dagokionez, 1982ko martxoan Beobidek berariazko ikastaroa antolatu zuen kazetari, kamerari eta operadoreentzat Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzaren sotoan. Studio Hamburg-eko profesionalak eman zituzten eskolak. Urte hartako abuztuan, Euskal Telebistako lehen langileak izateko, aukeraketa bat egin zen Donostiako eta Lakuako ikastaroetan parte hartu zuten pertsonen artean eta interesa azaldu zuten jarduneko profesionalen artean, eta prestakuntza Studio Hamburg ekoiztetxearen Hamburgoko instalazioetan osatzeko aukera eman zieten. Kazetariz, errealizadorez, produktorez, kamerariz eta operadorez eraturiko talde batek –guztira berrogeita bi profesional– hamar asteko praktikak egin zituen Alemanian. Berrogeita bi profesional haietako bat Luis Alberto Aranbarri “Amatiño” izan zen, Beobiderekin batera ikastaroa antolatzen ibilia, eta denboragarrenean ETBko albistegi-zuzendaria eta ETBren zuzendaria izango zena.

FIBIZE

Euskal Telebista izango zena gertatzeko bidean, urrats oso garrantzitsua egin zen 1981eko otsailean, Ramon Labaienek Martin Ibarbia Telebistako Programazioaren eta Produktzioaren zuzendari izendatu zuene-

2. Frankismoan lokal hura Emakume Sekzioarena izan zen. Euskal Kontseilu Nagusiaren sasoian administrazio autonomikoaren esku geratu zen, eta, Irrati eta Telebista Eskola hartu eta gero, HABEren Donostiako egoitza izan zen. HABEk ederto aprobetxatu zituen hango instalazioak, bertan grabatu baitzuen *Bai, horixe!* ikus-entzunezko ikasmateriala.

an³. Ibarbiaren lehentasuna euskara arlo berriotarako gaitzea izan zen, alegia, euskarazko hizkera dramatiko estandarra sortzea. Enkargua Xabier Mandigureni eman zion, eta, hala, Irrati eta Telebista Eskolaren barruan bikoizketa-ikastaroa antolatu zen, bikoizketan jardungo zuten profesionalak prestatzeko. Egitarau oso praktikoa osatu zieten, Bartzelonako La Voz de España estudioko bikoizle ospetsuekin, Maria Jesus Lleonard, besteak beste. Ikastaroak hiru hil irauten zuen, eta lau promozio irten ziren.

Bikoizketarako testuei dagokienez, 1981-82 ikasturtearen hasieran Xabier Mendigurenek Filmen Bikoizketarako Zentroa –FIBIZE– antolatu zuen Irrati eta Telebista Eskolaren barruan, eta bulego horren ardurapean geratu zen gidoiak euskaratzea eta egokitzea, eta, ibiliaren ibiliaz, Ibarbiak nahitaezko zeritzon hizkera lantzeko lehen saioak egitea⁴. Bulegoan, Mendigurenekin batera, Iñaki Etxeberria Garmendia aritu zen, eta orduan egin zuten lanaren emaitza dira ETBk aireratu zituen lehen produkzio bikoiztuak. Ahotsa Eskolan bertan ezartzen zen, bikoizle berrien ariketa gisa. Dena dela, kalitatezko lehen bikoizketak –*Ehizakatuak* (*The Houndcats*) marrazki bizidunak– Madrilako estudio batzuetan egin ziren, Xabier Elorriagaren bitartekari-lanari esker. Instalazioak hobeak izateaz gain, hango teknikariak trebatuak

ziren. Hemengo teknikarientzat esperientzia hartzeko balio izan zuen.

Lehen programa haien gaztelaniazko azpidazketa ere Madrilan egin zen, Atanor enpresan, Chyron markako idazkun-makina berriekin⁵. Berriak ziren zinez, Television Española koentzat ere lehen probak izan baitziren orduko haiek.

Bikoizketa-estudioak

Donostiako Irrati eta Telebista Eskolaren magalpean, taxutzen hasia zen euskarazko bikoizketarako azpiegitura. Eusko Jaurlaritzak, baina, bikoizketa ekimen pribatuaren esku geratzea nahi zuen, eta 1982ko udazkenean Eresoinka bikoizketa-estudioa ireki zen, Donostiako Easo kalean. Hasieran, Eresoinkak bikoizketa baino ez zuen egiten, eta gidoiak FIBIZEn itzultzen zituzten. 1983ko otsailean Iñaki Zubizarreta euskara-arduradun hasi zen Eresoinkan, eta estudioak bere gain hartu zuen gidoien euskarapen ere. FIBIZEk Eresoinkaren eskuetan utzi zituen paper guztiak, eta hor amaitu zen bere ibilbidea.

Ia aldi berean, Bizkaian beste estudio bat sortu zen. Xoxoa disko-etxea krisian zegoen, eta gobernu autonomikora jo zuen laguntza eske. Aurrera irteteko aukeretako bat bikoizketaren negozioan sartzea zen, eta luze barik, 1982. urtea amaitu baino lehen, Xoxoak Galdakao Estudios sortu zuen.

3. Kargua Kultura Sailari atxiki zitzaion. Izan ere, 1983ko otsailera arte Euskal Telebistak ez zuen legezko gaitasunik izan kontratuak egiteko.

4. Adibide bat ematearren, garai hartan finkatu zen «txanda» eta «kitto» esatea irrati bidezko komunikazioetan, ingelesez «over» eta «out» esaten den bezala.

5. ETBko argotean, gaur egun ere, «kairon» esaten zaie pantailaren behealdean azaltzen diren idatziei, hala ahoskatzen baita Chyron: «ez dut astirik izan kaironak jartzeko»...

Egokiera ona zen, Bizkaian ere eginak baitziren bikoizketa-ikastaroak. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuta, Jaurlaritzako Kultura Sailak beste ikastaro batzuk antolatzea erabaki zuen, eta Beobideren esku geratu zen berriro ekimena bideratzea eta irakasleak aukeratzea: Xabier Elorriaga, zuzendari; Peter Roberts, gorputz-adierazpena; Xabier Mendiguren eta, geroago, Jose Ramon Zubimendi –Mendigurenen konfiantzakoa–, euskara. Bikoizketako teknika irakasteko, Xavier Angelat bikoizle katalana ekarri zuten, eta, laguntzeko, Beobidek Donostiako Eskolan prestaturiko bikoizle bi deitu zituen: Itziar Jauregi eta Xeberri. Ikastaroa Bilboko Sota-Aznar eraikinean egin zen⁶, eta hiru promozio irten ziren. Praktiak egiteko, Donostiako Eskolan prestatutako materialak erabili zituzten.

Bizkaiko ikastaroetan trebatutako profesionalak Xoxoan sartu ziren, eta, esan bezala, disko-etxea bikoizketaren sektorera aldatu zen, Galdakao Estudios izena hartuta. Estudio berriak Jose Antonio Sarasola jarri zuen euskara-arduradun.

1984-1990

Euskal Telebistako hizkuntza-zaintza

Laurogeiko urteen hasieran euskal hizkuntza egoera soziolinguistiko kezkagarrian zegoen, eta, legeak aitortu berria zion ofizialtasunaren babespean, egoera hura aldatzeko estrategia hezkuntzaren eta komunikabideen esparruak irabaztea izan zen.

Euskararentzat zinezko lehen urratsak izango ziren telebistan, eta horregatik erabat funtsezko iritzi zitzaion hedabide berriko profesionalak hizkuntzan trebatzeari, baina lehen emisioek agerian utzi zuten arazoak errokoak zirela. Euskararen Aholku Batzordea –1982an eratua– kezka handiz ohartu zen Euskal Telebistaren hizkuntza-erabilera ez zihoala nahi bezalako bideetik, eta 1984an Pako Garmendia batzordekideak Gabino Murua proposatu zuen, ETBren euskaraz txostena presta zezan. Muruak aurkituriko arazoak, hein handi batean, estandarizaziorik ezaren ondorio ziren: ahoskera-eredu hala-moduzkoa, doinuera arrotzak, erdarakada gordinak esamoldeetan, eta zalantzak gramatikan. Horrez gainera, zenbait kazetariren hizkuntza-maila ez zen nahi bezalakoa. Txostena 1985eko otsailean aurkeztu zitzaion Andoni Areizaga EITBko zuzendari nagusiari, eta lehen ondorioa ia berehala etorri zen. Urte hartako martxoan, HABEren kolaborazioarekin, ikastaroak antolatu zituzten Hondarribiko barnetegian euskarako prestakuntza behar zuten telebistako kazetariarentzat. Euskadi Irratian ere egoki iritzi zitzaion halako ikastaro bati, baina azkenean ez zen egin.

Txosteneko beste puntu garrantzitsua bat unibertsitatetik joaten ziren kazetari berrien hizkuntza-mailari zegokion, baina horretan ETBko Zuzendaritzak ez zuen inolako neurririk hartu nahi izan, unibertsitatea beharrezko maila guztien berme nahikoa zelakoan.

6. Garai batean Sota-Aznar ontzi-enpresak hor izan zituen bulegoak. Egun, Bizkaiko Diputazioaren Herri Lan eta Garraio Sailaren egoitza da.

Gabino Murua Euskal Telebistatik irten-
da, 1985eko udazkenean Zuzendaritzak
Lurdes Otaegi izendatu zuen hizkuntza-
aholkulari. Otaegik oso txosten zehatza aur-
keztu zuen urte hartako abenduan Euskal
Telebistaren hizkuntza-egoerari buruz, al-
bistegiak, barne-produkzioa eta bikoizketa
banan-banan aztertuta.

Albistegiez eta barne-produkzioaz, Mu-
ruak lehenago seinalaturiko gaitzak aipatu
zituen berriro, eta epe laburrerako hiru
ekintza proposatu zituen: zuzentzaileak jar-
tzea; testuak orrazteko; esatariak aukeratzea,
testuak behar bezala irakurtzeko; eta kazeta-
riak prestatzen segitzea, Hondarribiko ikas-
taroan egin zen antzera. Epe luzera begira,
kazetariak kontratatzeko irizpideetan ipini
zuen enfasia, lehentasuna euskara-mailaren-
tzat eskatuz.

Bikoizketari dagokionez, Otaegik hiz-
kuntza-ereduaren egokitasunean aurkitu zi-
tuen arazoak: itzulpenetan, egitura ez oso
jatorrak, esamolde bortxatuak, eta jatorriz-
koari lotuegiak; hiztegian, garbizalekeria;
eta dramatizazioan, doinuera ezegokiak.
Txostenak larritzat jotzen zuen, halaber,
Euskal Telebistaren eta estudioen artean
hizkuntza-koordinaziorik ez egotea.

Otaegiren iritziz, hala jaso baitzuen
txostenean, nahitaezkoa zen Euskal Tele-
bistaren barruan Hizkuntza Ardulararitza
sortzea, bere gain har zitzan hizkuntzarekin
lotutako alderdi guztiak: hizkuntza-koordi-
nazioa, zuzentzaile-zerbitzua, hizkuntza-
prestakuntza, euskararen normalizazioa, eta
abar.

Lurdes Otaegik ez zuen gauzatuta ikusi
bere proposamenik, 1986an Euskal Telebis-
tatik irten zenean. Handik gutxira, ETB
hizkuntza-teknikariak kontratatzen hasi
zen, baina bakoitza bere arlorako, berariaz-
ko sailik eratu gabe.

Lehen teknikariak bikoizketarako hartu
zituzten⁷, 1987an. Zerbitzua kalitate-kon-
trol modura pentsatu zen, eta, hartara, Ota-
egik nabarmendutako koordinazio beharra
ez zen ezertan ere gauzatu. Bikoizketa-estu-
dioek euren lana egiten zuten, eta produktu
bikoiztua ETBra bidaltzen zuten. ETBko
hizkuntza-teknikariek, orduan, materiala
ikuskatu, eta, okerrik aurkitzekotan, zuzen-
tzeko eskatzen zuten. Kontrolak tentsioa
ekarri zuen ETBren eta estudioen arteko
harremanera, eta K2000rekin tentsio hori
bereziki latza izan zen.

Albistegietan, 1987an etorri ziren lehen
hizkuntzalariak⁸. Albisteen ekoizpen proze-
suan txertatu ziren, kazetariei testuak zu-
zentzen eta orrazten laguntzeko. Hizkun-
tza-irizpideetan Euskaltzaindiaren babesa
bilatu zuten, eta horren emaitza barne-txos-
ten bi dira, Jean Haritschelhar, Patxi Altu-
na, Joan Mari Lekuona eta Miren Azkarate
euskaltzain eta hizkuntzalarien aholku eta
begirapean eginak EITBko euskara-ardura-
dunen eskariz: *Euskara (erabileraz) 1*,
1989ko apirilekoa, eta *Euskara (erabileraz)*
2, 1989ko uztaillekoa. Txosten bien gakoa
zuzenketa da, “behin eta berriz errepikatzen
diren esaldi gaiztoek” euskarari ekar die-
zaioketen “kalte larria” saihesteko helburuz.

7. Xabier Kaltzakorta eta Igone Etxebarria izan ziren. Kaltzakorta hurrengo urtean joan zen, eta Imanol Unzuurrungaza hasi zen.

8. 1991 arte lau pertsona ibili ziren guztira: Manu Arrasate, Juan A. Goitia, Joxi Markaida, eta Iñaki Markinez.

Barne-produkzioako programetan 1990ean hasi zen lehen hizkuntzalaria. Haurrentzako saio batean izan zen, *Bilin-Bolonka* izenekoan⁹.

Gaztelaniazko azpidatzien auzia

Emanaldi erregularrak egiten hasi eta hiru urtera, 1986ko maiatzaren 31n, Euskal Telebistak kanal bitan banandu zuen emisioa: ETB-1, euskara hutsez, eta ETB-2, gaztelaniaz. Bigarren kanala sortuta, Euskal Telebistak bazeuzkan herritar guztiengana heltzeko bitartekoak, eta hedabidearen irismenak indarra galdu zuen gaztelaniazko azpidatzien aldeko argudio moduan. Azpidatzioak, hala eta guzti, ez ziren kendu; ez erabat. Haur eta gazteentzako programetan bai, azpidatzioak betiko baztertu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte guztiek bai baitzuten euskararen ezagutza –handiagoa edo txikiagoa– irakaskuntzaren bitartez.

Euskal gizartean ahots batzuek urrats gehiago egitea nahi zuten, azpidatzioak programa guztietatik kendu arte. Debatea, nolanahi ere, ez zegoen erabat ebatzita, gaztelaniaz azpidaztearen alde argudio sendoak zeuden eta. ETB-1ek audientzia galtzea ez zen kalte txikia izango, nahiz eta kanpoko produkzioa –azpidatzita ematen zen bakarra– gero eta parte txikiagoa izan programazioaren barruan. Hizkuntzari gagozkiola, ematen zuen gizarteak galduko zuela gehiago. Lehenik, ulertzeko zailtasuna zuten euskaldunak azpidatzien laguntza barik geldituko ziren, eta, itxura batean, euskaldun

askok bide zuten ulertzeko zailtasuna, zabal baitzebilten telebistako euskara zaila zelako iritzia. Bigarrenik, azpidatzioak baliabide oso ona ziren euskarako ikasleentzat. Euskal Telebistak 1991n eskatu zuen ikerketa baten arabera, ETB-1en ikusleen erdiek –% 47k, zehatz esanda– gaztelaniazko azpidatzien beharra zuten, zela arrazoi bategatik, zela beste bategatik. Azpidatzioak kenduko lituzketen ala ez galdetuta, % 48,4k baietz zioten, eta % 49,7k ezetz.

Azpidatzioak kentzekotan, erabaki atzerazina izan behar zela ulertu zen, eta, beraz, arazoa ondo aztertzeko eta pentsatzeko denbora hartu zuen enpresak. Azkenik, 1993. urtearen hasieran, Euskal Telebista sortu zenetik hamar urte baino gehiago igarota, betiko baztertu ziren gaztelaniazko azpidatzioak euskarazko kanalean. Euskara lehen aldiz ageri zen zeharo beregain telebistan, makulurik edo bestelako osagarririk gabe.

Bikoizketa-estudioak finkatuta

Euskal Telebistaren lehen urteetan bikoizketak tamaina handia hartu zuen, eta, horren ondorioz, sektorea azkartu egin zen. 1986an Eresoinak izena aldatu zuen, eta harrezkero Irusoin deritzo. Egoitzaz 1990eko urrian aldatu zen, Easo kaletik Andoainera. Andoainekoa 2000. urtean utzi zuen, eta Donostiara itzuli zen, Zuatzuko enpresa-parkera.

Bizkaian mugimenduak handiagoak izan ziren. Galdakao Estudiosek izen zaharra utzi, eta 1986an K2000 bihurtu zen. Operazioa ez zen bataio soilak izan,

9. Hizkuntzalaria Aintzane Lasarte zen.

K2000ren Galdakaoko estudio berri erraldoietan, bikoizketa ez ezik, ikus-entzunezkoen ekoizpena ere egiteko azpiegitura jarri baitzen. Euskal Telebistak 1987ko otsailean Miramongo produkzio-zentroa ireki zuen arte, programagintzarako behar bezala atonduriko toki bakarra izan zen, Donostian egiten ziren saioak San Migel Patronatuaren gimnasioan grabatzen ziren eta¹⁰.

Galdakao Estudiosen aritutako profesional batzuei ez zitzaien interesatu enpresak hartu behar zuen ibilbide berria, eta beste bikoizte-etxe bat sortu zuten 1985ean. Euskarazko bikoizketaren historian hirugarren estudioa izan zen. Bilbon jarri zen, eta Edertrack hartu zuen izena. Euskara-arduraduna Jesus Eguzkitza izan da hasieratik.

ETBtik kanpoko bikoizketa. Irudi Biziak

Euskarazko bikoizketan bada alderdi bat oso ezezaguna eta zinez harrigarria: zenbat diru publiko eralgitzen den probetxu urriko lanak sustatzen. Kultura Sailak, 1987an hasita, urtero banatzen ditu diru-laguntzak, merkatura ateratzen diren ikus-entzunezko produkzioak euskarara bikoiztuta ere joan daitezela. Lehen urte hartan Kultura Sailak hamabi milioi pezeta (72.000 euro) esleitu zizkion Warner Home Video Españolari, hamar film bikoiztearren. Aurten, 2006. urtean, Kultura Sailak 678.000 euro zuzendu ditu¹¹.

Berez, etxeko bideoei begirako ekimen hau txalogarria da. 1987ko urriaren 28ko aginduan, horrelakorik eman zen lehen aldian, Joseba Arregi Kultura sailburuak azalpen argigarriak agertu zituen: Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen zuela euskarari irudi eta soinurako euskarrietan bere tokia bermatzeko erantzukizuna, Euskararen legeak xedatu bezala, eta gizartean gero eta sektore gehiagok eskatu bezala.

Diru-laguntza jaso eta lana egindakoan, gaur egun arte, tamalez, ez zinema-aretoetan, ez bideo-klubetan, ez bideo-dendetan, ez da inon ageri izan euskarazko bertsiorik. Oso tamalgarria da, modu berean, Durangoko Liburu eta Disko Azokan inoiz banatzailearen baten postuan aleren bat jarri izan dutenean, produktua zeharo erdalduna dela konturatzea: karatula gaztelania hutsez, eta, saltzaileak esan ezean, euskarazko bikoizketa ere baduela dioen oharrik inon ez. Ez dirudi merkatua euskarazko produktuz hornitzea denik laguntza jasotzen dutenen helburuetako bat. Ez dirudi, era berean, euskarazko eskaintza abian jartzeko helburua zuenik Televisión Española, 1987ko udaberrian *Haizeak eraman zuena* euskaraz bikoiztuta eman zuenean Telenor-te zirkuituan. Lehen aldia zen¹², eta, oraingoz, azkena. Filma 1986 eta 1987 bitarteko neguan bikoiztu zen, Claudio Rodríguez madrildar bikoizlea zuzendari zela, K2000n enpresako bikoizleentzat antolatu zuten ikastaldi batean.

10. San Migel Patronatuaren lursailean Zientziaren Kutxagunea dago egun.

11. Artikulu hau idatzi zenean, esleitu gabe zeuden.

12. *Euskalerria* programa gogoan duenak gogoan izango du, halaber, ez zela bikoiztutako materialik ematen. *Euskalerria* 1975eko abenduaren 12an agertu zen TVEren pantailan, eta 1977ko abuztura arte iraun zuen.

Oso bestelakoa da Irudi Biziak elkartearen kasua. Elkartea 1985ean sortu zen, gazteen heziketan lan egiteko helburuarekin. Ikasturte bakoitzean hainbat egitarau osatzen dituzte, eskola-umeei eta baita gurasoei ere zuzenduta, osasun-heziketaz, drogamenpekotasunaren prebentzioaz eta balioen sustapenaz. Eduki horiek lantzeko, elkarte-ko hezitzaile eta teknikariak ikasgela barrurako unitate didaktikoak eta bestelako jarduerak prestatzen dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz, filmak abiaburu eta ardatz modura erabiltzen.

Euskarazko jardueretan euskarara bikoiztutako filmak erabiltzen dituzte: *Billy Elliot*, *Tximeleten mihia* eta era bereko produkzio ezagunak. Bikoizketak Irudi Biziak elkarteak berak kudeatzen ditu, lehena 1987an: *Bagdadeko lapurra*.

1991-1998

ETBko Euskara Sailaren sorrera

Euskal Telebistako hizkuntzalariek hiru urte beteko zituzten enpresan lanean 1991ko udazkenean, eta, legeak agindu bezala, haien lanpostuak finko bihurtu behar ziren. Iñaki Zarrakoa EITBko zuzendari nagusiak, 1991ko martxoan kargua hartu eta gutxira, ETBko hizkuntza-jarraipenaren gaineko txostena agindu zion Andoni Aranburu emisio-arduradunari. Aranbururen txostenak, kontratu-amaieren arazoa eta hizkuntza-jarraipenaren gaitzik nabarmene-

nak aipatu ostean, hiru puntutan bildu zuen etorkizunerako proposamena.

Lehenengo eta behin, Euskara Saila sortu behar zen ETBren barruan, arduradun batekin eta beste zortzi hizkuntzalarirekin: bi bikoizketarako, hiru albistegi eta kirole-
tarako, eta beste hiru barne-produkzioarako.

Bigarrenik, estilo-liburu bat behar zen albistegi, kirol-saio eta barne-produkzio-
programetarako. Bikoizketan, estilo-liburu hori oinarri moduko bat izango zen, baina horrez gain berariazko gidaliburu bat behar
zen.

Hirugarrenik, bikoizketa zehatzago aztertu behar zen: hizkuntza-ereduak, hizkerak, gidoi itzuliak, ahotsak... Ez alferrik, Euskal Telebistaren emisio osoaren % 46 bikoizketak betetzen zuen garai hartan.

Hizkuntzalarirako oposizioak 1991ko udan deitu ziren, eta hautatze-prozesua azarorako ebatzi zen. Lehen oposizio haietan hiru plaza baino ez ziren hornitu¹³. Beste hiru plaza 1995eko oposizioetan atera ziren¹⁴, baina, urte batzuk geroago beste deialdi bat egin zen arren, Euskara Saila ez da inoiz Aranbururen kopuruetara heldu¹⁵.

Euskara Saileko lehen burua Igone Etxebarria izan zen, EITBko zuzendari nagusiak izendatua 1993an. 1998ra arte egon zen postuan, 1995-1996 epealdian izan ezik. Ikasturte hartako baimenean Manu Arrasatek ordezkatu zuen. Etxebarriak 1998an dimitu zuen, eta EITBko zuzendari nagusiak Asier Larrinaga izendatu zuen Euskara Saileko buru.

13. Bikoizketan Imanol Unzurrunzagak lortu zuen plaza, eta albistegietan, Igone Etxebarriak eta Asier Larrinagak.

14. Hiru plaza haiek Iratxe Goikoetxeak, Igone Menikak eta Ana Zuluetak irabazi zituzten.

15. Goreneko urteetan, barne-produkzioan hizkuntzalarik bi aritu ziren. Aritu zirenetako batek, Itziar Bilbaok, Imanol Unzurrunzagak erretiroagatik utzitako plaza irabazi zuen 2002ko oposizioetan.

Estilo-liburua 1992an argitaratu zen, *Euskarazko albistegietarako esku-liburua* izenarekin. Manu Arrasatek prestatu zuen, eta, izenburuan bertan igar daitekeenez, ez zen hedabideen ohiko estilo-liburuen era-koa, ez baitzuen hizkuntza-argibideez beste edukirik.

Bikoizketarako gidaliburuaren asmoa, berriz, ez da inoiz gauzatu. 1993an, bikoizketan erabilitako hitzen eta esapideen bil-duma bat egin zen zerbaiten hastapen gisa, baina, ordurako, bildutako material gehiena gaindituta zegoen.

SIADECOn azterketa

Aranbururen txostenean, hirugarren be-tekizuna bikoizketa aztertzea zen, Euskal Telebistan gero eta kezka handiagoa baitze-goen bikoizketagatik. Produktu bikoiztuak ulergaitz, ezeroso eta sinesgarritasunik gabe-tzat zeuzkaten askok, eta, hartara, kanalaren kalterako ziruditen. Inork ez zuen zalantzan jartzen euskarazko bikoizketa ez zitzailea behar bezala egokitzen filmetako egoerei, eta arazoren gakotzat euskara bizitik alden-duta aritzea jotzen zen. Orduko beste txos-ten batek honela zioen: “[...] euskara ba-tuaren ortografiari lotuegi ibiltzen garela, letra guztiak ahalik eta garbien ahoskatuz. [...] Hizkuntza mintzatuak, ordea, bere bi-deak ditu, ez da makurtzen idatziaren arauetara. Hitzak, esaldiak, leunduz eta bi-ribilduz joaten dira erabiliaren erabiliaz mugarik gabeko prozesu batean (*sendatuko da > sendauko da > sendauko’a*)”.

Urte hartan *Ederra eta Piztia* telesaila pantailaratu zen, euskara batuan bikoiztuta, baina laburdurekin, herri-euskarara hurbil-tzeko ahaleginean. Laburduretarako, jarrai-

bide batzuk prestatu ziren: Bizkai-Gipuzko-etako hizkeretan hedatuen dauden fenome-noak aintzat hartuta, “nausi”, “aitu”, “mei-ku” eta antzeko sinkopak erabiltzea, eta “esango’izut”, “ne’liburua” “etortze’a” eta antzeko amalgamak egitea.

Ederra eta Piztia lehen telesail arrakasta-tsua izan zen Euskal Telebistan. Audientzia-ren aldetik, *Goenkalek* egin izan dituen marketara iritsi zen. Hizkuntza-ereduaz, or-dea, ezin da gauza bera esan. Euskal Telebis-tak aditu-panel bat osatu zuen komunika-zioaren, irakaskuntzaren eta hizkuntzaren arloetako berrogei pertsonarekin, eta galde-tegi bat banatu zien, ereduaren gaineko iri-tzia eman zezaten. Ez zitzaien gustatu.

Bikote xelebrea filma sasoi bertsukoa da. Bikoizteko, *Ederra eta Piztia*ko laburdurak erabili ziren, eta horrez gainera, hizkera ko-lokialeko pasarteak herri-gipuzkeran jarri ziren. Pelikula honen eszena bat beste iker-keta batean erabili zen.

Ikerketa hori SIADECOrri agindu zi-tzaion 1991n. SIADECOk hamar talde-el-karrizketa antolatu zituen urte hartako mar-txoaren 14a eta apirilaren 23a bitartean. Taldeak Euskal Herri osoko hamar herritan antolatu ziren, kontuan hartuta euskalki ga-rrantzitsuenak ordezkatuta egotea, iritzi-emaileak 20-35 eta 35-60 adin-tarteetakoak izatea, eta hizkuntza-gaitasun guztietako pertsonak biltzea. Talde bakoitzaren osaera nahiko homogeneoa izan zen aipaturiko hiru aldagaien aldetik. Hiru programa-zati prestatu zituzten –eszena bi film banatatik hartuak, eta hirugarrena telesail batetik–, eta hiru eratara bikoiztu zuten bakoitza: a) ohiko moduan; b) laburdurak eginez, *Ede-rra eta Piztian* bezala; c) itzulpen askeagoa eginez eta gipuzkera kolokiala sartuz, *Biko-*

te xelebreako eszena bat baitzen. Hurrenez hurren, a) “eredu estandarra”, b) “laburduraduna”, eta c) “kolokiala” deitu zieten bikoizketa egiteko hiru moduei. *Bikote xelebrearen* eszena laugarren modu batean ere bikoiztu zen, zuka eta laburdurarik gabe, modu estandarrean hika jarri baitziren elkarriketak. Talde gehienek hiru programa-zatiak ikusi zituzten, bakoitza hiru bertsioetan. Horren ondoren, ikusitakoari buruzko iritzi-emate librea egin zen talde bakoitzean, sarrera moduan Euskal Telebistan erabiltzen zen euskara oro har zer iruditzen zitzaien galdetuta.

Ikkerketaren ondorioak oso interesgarriak dira. Iritzi-emateen ustez, bikoizketan erabiltzen zen euskara artifiziala zen, hotza, ulertzeko ez oso zaila, baina bizitasunik gabea eta sinesgaitza. Askoz ere nahiago zuten Euskal Telebistak berak sortutako programetan erabilitako hizkera. Dena dela, azterketan prestatutako bertsioak aukeratzen hasita, multzo bi bereizi ziren oso garbiro. Lehen multzoan euskaldun zahar alfabetatuak eta euskaldun berri natibizatuak, eredu kolokiala hautatu baitzuten. Bigarren multzoan euskaldun zahar alfabetatu gabeak eta euskalduntzea burutu gabeko hiztunak, eredu estandarra aukeratu baitzuten. Aukerak aukera, batzuek eta besteek eragozpenak topatu zituzten eredu bietan. Estandarrari naturaltasuna falta zitzaion. Eredu kolokiala ez zen ulertzen erraza, eta erabilitako euskalkiaren hitzunei bakarrik iruditzen zitzaien naturala.

Horren aurrean, SIADECOK bikoizketetan eredu estandarra erabiltzea proposatu zuen, baina ohar batzuk eginda. Lehenengo, hiztegia erraztea, hitz jasoak eta gizar-tean hedadura txikia dutenak baztertuta. Egiturak erraztu beharra ere bazegoen, esaldi ez hain luzeak eginez eta subjuntiboa gutxiago erabiliz. Hitanoa testuinguru jakinetarako uztea gomendatu zuen, eta azkenik, adierazkortasuna eta doinuera lantzea. Itzulpenak zirela eta, aipamen berezia egin zuen, literalitasuna alde batera utzi eta egokitzapenera jo zedin.

Kalitate-kontrola

SIADECOn ondorio-txostenak *Ederra eta Piztiaren* eredia betiko baztertzea ekarri zuen, baina euskarazko bikoizketan ez zen beste ekimenik etorri txosteneko gomendioen ildotik. Izan ziren ekimen berriak, baina ez zuten ikuspegi integralik izan. Aipagarriena, Iñaki Zubizarretak EIZIEren egoitzan abiarazi zuena.

Iñaki Zubizarretak, EIZIEren Zuzendaritzako kide zela, 1990eko hamarkadaren hasieran, mintegi moduko bat antolatu zuen Irusoineko itzultzaile-egokitzaileen-tzat. Mintegia, EIZIEren barruan gorputz harturik, Komunikabideetako Saila bihurtu zen¹⁶, eta 1992ko martxoan solasaldiak egin hasi ziren hilero Ibon Sarasolarekin. Solasaldien helburua ohiko zalantzak argitzea zen, bai hitzen gainekoak (“kontzentratu”, “obulu”, “neutro”, “kontsulta”...), bai mor-

16. Saila bikoizketarekin loturaren bat zuten EIZIEko kideek osatzen zuten: Iñaki Zubizarreta, Irusoin; Imanol Unzuurrungaga, ETB; Aitor Lete, Beatriz Zabalondo, Txiliku, Nieves Odriozola, Txaro Idiákez, Gema Lizarralde, Jon Aizpuru, Txomin Arratibel eta beste hainbat, itzultzaileak.

fologikoak (“galderak erantzun” / “galderei erantzun”, “milana” / “mila bana”, “balitz bezala” / “bailitzan”...), bai bestelakoak (“astotik jaitsi” / “asto gainetik jaitsi”, “mundu-gerra” / “gerra mundial”...).

Ibon Sarasolarekin hamar bat solasaldi egin ziren 1993ko maiatzera arte, eta, urte hartako uda igarota, Miren Azkaratek hartu zuen bere gain kontsultei erantzuteko ardurara, 1994ko maiatzera arte.

Solasaldi haietan mahaigaineratzen ziren zalantza eta arazo gehienek hizkuntza-normalizazioa ukitzen zuten, beste edozein arlo baino gehiago. *A posteriori* lan egiteak ez zuen gauza handirik konpontzen ordurako emititua zen materialean. Eta funtsezkoena: solasaldi haietan ez zuen bikoizketaren sektoreak parte hartzen, eta Saileko kide gehienak agente periferikoak ziren. Baina ia besterik ez zen egiten euskarazko bikoizketa hobekuntza-dinamika batean sartzeko, Euskal Telebistan, behintzat, SIADECOn azterketaren aurreko garaian bezala jarraitzen baitzuten lanean.

Bikoizte-etxeek ETBra bidaltzen zituzten filmak, marrazki bizidunak eta abar, prozesu osoa amaitutakoan, alegia, euskaraz bikoiztuta, eta ETBko hizkuntzalariek ikuskatu egiten zituzten, akatsik edo okerrik bazen aztertzeko. Zuzendu beharrekorik aurkitzekotan, programa atzera bidaltzen zen, estudioak konponketak egin zitzaizkion. Sistema ez zen oso eraginkorra, egindako lana berregitea nekeza eta garestia izaten baita beti, eta, gainera, ez zitzaion heltzen Euskal Telebistarentzat ari ziren hiru bikoizketa-etxeen lana bateratzeko premiari.

Bateratzeko premia, lehenengo eta behin, hizkuntza-irizpideetan igartzen zen,

baina bikoizketari loturiko gainerako arloetan ere bai. Gauzak horrela, 1994. urtean Euskal Telebistako Kanpo-Produkzioko Sailak bere gain hartu zuen hiru bikoizketa-estudioen lana kontrolatzeko eta ildo batzuetara eramateko erantzukizuna.

Sistema hari “kalitate-kontrola” esaten zitzaion, eta hamar bat urte egon zen indarrean. Bikoizte-etxe bakoitzari ebaluazio antzeko bat egiten zitzaion urtean bi edo hiru aldiz, zerbitzuan, kalitate teknikoan eta kalitate linguistiko-artistikoan zer mailara heltzen zen eta ETBk zer eskatzen zion aztertuz.

Ebaluazioaren emaitzak banaka azaltzen zitzaizkien estudio bakoitzaren arduradunei ETBren lurretako egoitzan, eta Kanpo-Produkzioko Sailak erreferentziatzat hartzen zituen hurrengo epealdiko lanak banatzeko orduan. Sistemak ez zuen funtzionatu alderdi bien onespina izan gabe, batik bat 1996an Euskal Telebistak estudioei bikoizketako fakturazioa hiru urtean % 20 jaisteko beharkizuna azaldu zenez geroztik.

“Zine Oro” esperimentua

Laurogeita hamarreko hamarkadan kezka bat zabaldu zen euskalgintzan: hizkuntzaren kalitatea. Euskal Telebistak, kezka haren aurrean, eskura zeuzkan tresnak erabili zituen; funtsean bat: hizkuntza-zaintza programa-mota bakoitzaren premiei erantzuteko moduan antolatzea. Baina ETBren irismenetik kanpo zegoen EAEko hizkuntza-egoeraren arazoa, eta, hartara, gutxi egin ahal izan zuen, gaztelaniazko azpidatziak kendu ostean, susmatu bezala, ETB 1en au-

dientziak beherantz joan zirenean¹⁷. Heda-bideetan azaltzen ziren ahots askok ETBren hizkuntza-ereduaren kalitate txarrari egozten zioten ikusle-galera, batez ere bikoiztu-tako saioetan.

Urtean bikoizten ziren produkzio-orduak murrizten hasi behar izan zenean, bikoizketaren ospe gero eta txarragoari aurre egitea erabaki zen, beldur antzeko bat baitzen ordu urrien eta ospe txarraren ondorioz egunen batean teleikusleek ez ote zituzten produktu bikoiztuak guztiz errefusatuko. ETBk, hartara, promozio-ekimen berezi bat prestatu zuen *Zine Oro* saioaren barruan. Sei pelikula hautatu ziren, eta 1996ko maiatzaren 28tik 1996ko ekainaren 2ra eman ziren¹⁸, publizitate-kanpaina zabal bat egin ondoren. Kanpainarako prestatu zen liburuxkak honela zioen aurkezpenean: “Kalitatea izan da kontutan sei pelikula hauek aukeratzekoan. Gainera bai gidoi euskaratua, bai bikoizketa, urteotako esperimentziaren argitan zaindu ditugu. *Zine Oro* atal berria hasiko du sei pelikula horiekin, zinea euskaraz ikusteko zaletasuna zabaldu nahian”.

Ekimen honen garairako SIADECOren gomendioek egina zuten euren bidea, eta, alde horretatik, ziurtasun osoz esan daiteke hizkuntza-kalitatea maila batera heltzen zela, bazter batera utzi barik ardura handiz

egin zirela ahots-aukeraketa, tituluen euskarazko bertsioa, e. a.

Esperimentu honek ez zuen ikuslerik erakarri, eta hizkuntza-kalitateari buruzko kritikek lehenagoko tonu beltzarekin jarraitu zuten, baina Euskal Telebistari eta bikoizketa-etxeei elkarlanerako bide bat erakutsi zien: gidoi euskaratuak ETBko hizkuntzalariei bidaltzea, estudioan bikoizten hasi baino lehen, okerrik aurkitzekotan, batere nekerik eta gasturik gabe zuzen zedin, eta, hobetzeko aukerarik igartzekotan, proposamenak egin zitezen. Aurrerapauso handia izan zen.

K2000ren krisia eta Tinkoren sorrera

Euskal Telebistaren lehen urteetan bikoizketa izan zen programazioa osatzeko gako, eta euskarazko bikoizketaren negozioak bolumen polita hartu zuen. Urteekin, barne-produkzioa indartu eta kanpo-produkzioa pantailaratzea garestitu ahala, negozioa mehastuz joan da¹⁹. Estudioek oso zail izan dute irautea, eta K2000k bereziki zail, bere enpresa-proiektuaren bigarren zutabeak ere huts egin baitzuen 1980ko hamarkadaren amaieran, ETBk Miramongo produkzio-zentroa ireki zuenean.

Bikoizketa-gelak gero eta hutsago, platoak gero eta geldiago, eta bazkideen arteko

17. Urte haietan Antena 3, Tele 5 eta Canal + emititzen hasi berriak ziren, eta telebista-eskaintza ugaritzeak audientziagatikoa lehia latza ekarri zuen. Lehia zelakoa zen erakusten duen datu bat: 1991ko urtarrilean ABC madrildar egunkariak Ecotel enpresak Espainiar Estatuan ezarrita zeuzkan audimetroen zerrenda osoa argitaratu zuen, eta Ecotelek etxez aldatu behar izan zituen aparatu guztiak, orduko 350 milioi pezeta (2 milioi euro) gastatuz.

18. Hauek izan ziren filmak: *Azken heroi handia*, *Xake hiltzaileari*, *Ihesbiderik gabe*, *Aingeru beltzaren hegaldia*, *Balen bidean* eta *Gogoan izatekoa*.

19. ETBk bikoizte-etxeekin 1996an hitzartutako hiru urteko murrizketa burututakoan, alegia, 1999an, euskaratzea agindutako orduak 1989an agindutako orduen erdiak izan ziren.

gorabeherak tartean. K2000 krisian murgildu zen, eta 1992an eskaintza ekonomikoa egin zien enpresa utzi nahi zuten langileei. Baina enpresaren berrantolaketa plantila murriztea baino gehiago izan zen. Besteak beste, Bilbao Bizkaia Kutxa egin zen K2000ren bazkide bakar. Artikulu honen gaiari dagokionez, euskara-arduradunaren figura krisian egon zen aldi luze batean, 1997an Beatriz Zabalondu izendatu zuten arte²⁰.

K2000tik irrendako bikoizle gehienak *free-lance* hasi ziren orduko hiru estudioetan, baina, produkzioaren bolumena gero eta txikiagoa izanik, gehienek beste sektore batzuetan bilatu behar izan dute lana. Euskarazko bikoizketa, beraz, ahotsak galduz joan da, eta hein berean onirizpena ere bai, ahots lar errepikatuek ikusleari atzera eragiten diotela eta.

Gurpil zoro horretatik irteteko, nahitaezkoa da negozioa zabaltzea, baina euskararen munduan oso nekeza izan da bikoizketa telebistaren esparrutik ateratzea. Etxerako produktuak (VHSak eta DVDak) urtero-urtero bikoizten dira 1987tik hasita, baina produktuon jabeek ez dute jakin merkaturik sortzen, edo ez zaie interesatu. Beraz, negozioa ez da hazi. Zinema-aretoetara ere nekez heltzen da euskarazko bertsiorik, marrazki bizidunen batzuk alde batera utzita.

Ekimena film-banatzaileen eta areto-jabeen esku utzi izan balitz, euskara ez zen inoiz helduko pantaila handira, haientzat gastuak eta arazoak gehitzea baino ez baitakarte euskarazko emanaldiek. Euskal gizar-

tean, berriz, euskara arlo guztietara eramateko nahia sentitzen zen laurogeiko urteetan, eta Marian Galarraga bikoizleari, K2000tik irten zenean, ahalegintzeko moduko egitasmoa iruditu zitzaion.

Galarraga urtebete ibili zen proiektua ta- xutzen, eta 1993an Tinko Euskara Elkarte- a sortu zuen, euskara zinema-aretoetan susta- tzeko helburuarekin. Tinko, berez, film-ba- natzaile bat da, eta, hartara, ikus-entzunezko produkzioak eskuratu, euskaratu, eta areto- jabeei eskaintzen dizkie. Tinkok produkzio- en eskubide guztiak bereganatzen ditu nor- malean, euskaratutako materiala zineman, zein VHS/DVD formatuan, zein telebistan zabaltu ahal izan dadin. Irabazi-asmorik ga- beko erakundea izanik, Tinkok uko egiten dio zinemako sarreren prezioan dagokion erdiari, ikusleei merkeago izan dakien.

Edonola ere, ikusleak erakartzeko, ez dago kalitatezko produktuak eskaintzea bai- no hoberik, eta, hain zuzen, hor du Tinkok problemarik latzena. Estatu Batuetako ba- natzaile handiek –*majorrek*– ziurtatuta dauzkate ikusleak, filmak euskaraz jarri gabe ere, eta Tinkok Europatik inportatu behar izaten ditu ekoizpenak.

Hasiera oso bestelakoa izan zen. Tinko sortu berria zela, Filmarek aretoetan film bat euskaraz estreinatze-ko interesa izan zuen –beste dirulaguntza batzuk tarteko–, eta ituna egin zuen euskara-elkarte berriare- kin, aukeratutako filma euskara zezan. Lan- kidetza haren ondorioz, 1993an lehen aldiz estreinatu zen film bat aretoetan euskaraz eta gaztelaniaz: *Alargunen gailurra*. Hurren-

20. Denbora batez, Jose Antonio Sarasolak enpresa behin betiko utzi eta Beatriz Zabalondu izendatu bitarteko trantsizioan, Mikel Gorostiaga gaztelaniako zuzentzaileak hartu zuen bere gain euskarazko produkzioaren ardura.

go urtean *Corina*, *Corina* euskaratu zuten zinema-aretoetarako²¹. Tinkok, itunaren birtartez, film bion euskarazko bertsioa ikas-material gisa erabiltzeko eskubideak bereganatu zituen. 1993an antzeko hitzarmen bat egin zuen Lauren filmsekin, *Haur lehoia* frantses animazioko luzea euskaratzeko, baina soilik ikas-material gisa erabil zedin.

Horren ostean agorte luze bat gertatu zen, *majorrek* euskaraz estreinatzeko interesa galduta, eta Tinkok apur bat zuzendu behar izan zuen bere orientazioa. 1996an elkartea ikastetxeetako haurrekin hasi zen lanean, zinemazaletasuna sustatzen eskola-orduetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin. Izan ere, Tinkok material didaktikoak sortzen ditu beti euskaratutako film bakoitzaren gainean. Gaur egun, Kultura Sailaren laguntzarekin, filmok areto komertzialetan eskaintzen dira ikastetxetara eraman aurretik. Nafarroako aretoetara ere heltzen dira, Karrikiri elkartearen laguntzarekin, eta Iparraldekoetara ere bai, Udaleku elkarteari esker.

Tinkok REC grabazio-estudioetan egin ditu bikoizketak. REC 1996an sortu zuten Marian Galarragak eta beste bazkide batzuek²², eta egun Zuatzuko enpresa-parrean dago.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia

Euskal Telebistatik kanpo egiten diren bikoizketen zerrenda osatzeko, Donostiako

Nazioarteko Zinemaldia aipatu behar da. Zinemaldiak 1995ean eman zuen lehen aldiz film bat euskaraz: *Maite*, Made in Spanish sailean. Harrezkero, dela sail horretan, dela besteren batean, euskal zinemagileen filmak euskarazko bertsioan ere eskaintzen dira²³. Haurrentzat antolatzen diren emandietan –“Zinerik handiena txikientzat”, Belodromoan, eta “Eraman itzazu gurasoak zineraz”, Antzoki Zaharrean– filmak euskaraz eskaintzen dira 1995ean hasita: *Ipar Haizearen itzulera*, *Azti ikaslea*, *Ikasgela hegalaria*, *Polleke*... Haurrentzako film gehienetan, bikoizketak Tinkorenak izaten dira.

Euskarazko azpidazketa urte berean eskaintzen hasi zen, 1995ean, Zabaltegi sailean: *La haine* eta *Desperado*. Ordutik hona gero eta film gehiago eskaintzen dira euskaraz azpidatzita, Zabaltegin eta atzera begirako sailetan.

Euskarazko azpidazketa: pastoralak

Azpidatziek itsustu egiten dute pantaila, eta telebista-kontsumitzaileari aisialdiko atsedena eta josteta eragozten dizkiote, aditasuna eta ahalegina eskatuz. Gure gizartean hori da pentsamolde nagusia, eta, hala izanda ere, gure telebistak –Euskal Telebistak– ez du neke handiegirik izan inoiz pantailan letrak jartzeko, hizkuntza batean baino gehiagotan, gainera. Gaztelaniazko azpidatzien historia azalduta dago. Frantsesez, *Iparralde* saioa azpidatzi zen²⁴. Progra-

21. Bikoizketak Galdakaoko Arteik estudioetan egin ziren.

22. Gerora Galarragak bere bazkideen esku utzi zituen bere akzioak, Tinkorekin bateraezintasunik ez sortzeko.

23. Euskal filmen lehen bertsioa gaztelaniazkoa izaten da, eta euskarazkoa bikoizketakoa izaten da. Azkenaldian, *Aupa, Etxebeste!*-k eman dio amaiera euskaraz ekoiztiriko filmen urteetako lehorteari.

24. 1998ko otsailetik uztaileira 20 atal eman ziren, eta 1999ko otsailetik uztaileira, beste 20 atal.

ma euskaraz egiten zen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarentzat, Eusko Jaurleri-zak, Akitaniako Eskualde Kontseiluak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak babestuta.

ETBn euskaraz ere azpidatzi da, ikusle-ek susmatu baino gehiago. Modu sistemati-koan zinema komikoan erabili ziren lehen aldiz euskarazko idazkunak; inon baino le-henago, *Buster Keaton* programan²⁵, eta ho-rrren ondoren *Lobster comedies* sailean²⁶. Bestela, film eta telesailetan, azpidazketa bi-koizketaren osagarria izaten da, oso aukera-koa garrantzi argumentalrik gabeko kantak, testuak eta abar itzultzeko. Pantailan idatzi-tako itzulpen horrek produktu landuaren sentazioa baino ez dio eskaintzen ikusleari, baina horregatik, hain zuzen, oso ohiko jo-kaera da prestigiodun kanaletan.

Azpidazketa, ulertzen zail diren esateak argitzeko erabil daiteke, eta Euskal Telebis-tan erabiltzen da, dokumentalen batean, erreportajeren batean, eta, batik bat, Zube-roako pastoralen emanaldietan. 1994an ha-sita, ETBk urtero grabatzen du uda hasie-ran Zuberoan taularatzen den pastoral, eta hurrengo urteko Aste Santuan emititzen du, zati bitan, euskara batuan azpidatzita²⁷. Lehen pastoral biak hala-moduz azpidatzita

joan ziren, baina 1996an Euskal Telebistako Euskara Sailak bere gain hartu zuen batuko bertsioaren ardura.

Batuko bertsioa prestatzen denean, hiru helburu bete nahi dira aldi berean: EAEko euskaldunek errazago ulertzea, arrotzasun-kutsua kentzea, eta arizaleek esaten duten testua eta pantailan idatzita dagoena bat etortzea. Horretarako, lau irizpide hauei ja-rraitzen zaie: 1) jatorrizko testuari leial iza-tea; 2) puntuazioa ahalik eta zehatzen era-biltzea; 3) batasunerako arauak eta Hiztegi Batua ehuneko ehunean betetzea; eta 4) zu-bereraren ezaugarriak errespetatzea. Oso irizpide xumeak dira, baina oinarri-oina-rrizkoak glosak egiteko tentazioari itzurtze-ko, eta egiazko azpidatziak prestatzeko²⁸.

Publizitatea

Bikoizketaz ari garenean, gutxitan aipa-tzen da publizitatea, baina datuak adieraz-garriak dira: 2006. urtean ETB 1ek eman zituen 1.596 iragarki berrietatik²⁹, bikoiz-tuak % 90 baino gehiago izan ziren. Euska-raren normalizazioan oso garrantzitsua da halako publizitate-kantitatea euskaraz lau-haizeetaratu izana, eta, Euskal Telebistari dagokionez, zabalkunde-kanal eraginkorra dela erakusten du. Denboran atzera eginez

25. 1983tik 1986ra arteko hiru denboraldietan egon zen pantailan Buster Keatonen 30 filmekin.

26. Hogei minutuko 48 atal ziren, 1988tik 1991ra arteko hiru denboraldietan emitituak.

27. Orain arte hauek guztiak grabatu dira: *San Mixel Garikoitz* (Donaixti-Ibarre) 1994an; *Agirre presidentia* (Arrokiaga) 1995ean; *Sabino Arana* (Garindaine) 1996an; *Atharratze jauregia* (Atharratze) 1997an; *Herriko semeak* (Barkoxe) 1998an; *Agota* (Al-tzai) 1999an; *Madalena Jauregiberri* (Eskiula) 2000n; *Xiberoko makia* (Sohüta) 2001ean; *Urruti Jauregiko Peirot* (Altzürükü) 2002an; *Ramuntxo* (Idauze-Mendi) 2003an; *Antso Handia* (Maule) 2004an; *Bereterretx* (Ligi-Atherei) 2005ean; *Santa Engra-zi* (Santa Grazi) 2006an; eta *Jesus* (Maule) 2006an.

28. Testua lasaiaigo aztertu eta hausnartu nahi luketen ikusleentzat ETBk <eitb.com> webgunean jartzen ditu zubererako eta ba-tuko bertsioak testu paraleloetan. Lehen aldiz 2004an; *Ramuntxo*.

29. Iragarki berriak, alegia, 2006an bertan sortuak, lehenagokoak ere pantailaratu baitziren 2006an. Eta datua banakako piezei buruzkoa da, ez emanaldiari buruzkoa.

gero, ordea, hasierako urteetan gauzak oso bestelakoak izan ziren.

ETB 2 sortu arte, Euskal Telebistara ez zen ia iragarkirik heltzen, eta euskaraz, ia batere ez. ETB 1entzat, 1989-90 denboraldia izan zen inflexioaren unea. FORTAk³⁰ Espainiako futbol-ligarean telebista-eskubideak eskuratu zituen, eta futbolarekin batera publizitate-pakete garrantzitsua heldu zen. Lehenengotan iragarkiak gaztelaniaz sartzen ziren, baina 1991n euskaratuta emititzea erabaki zuen ETBk, euskaratzeko kostua bere gain hartuta.

Futbolak ireki zion ETB 1eko atea publizitateari, eta apurka-apurka era guztietako kanpainak hasi ziren sartzen. Erakunde publikoek eta enpresa batzuek euskaraz ekarri dituzte euren iragarkiak hasieratik³¹, euren kontura bikoiztuta. Euskal Telebistak doan eskaintzen die hizkuntza-aholkularitza. Gainerakoen itzulpena eta bikoizketa, ETBk bere diruarekin ordaintzea erabaki zuen, eta lana Edertracken, Irusoinen eta K2000ren artean banatzea.

Sistema honek muga oso garbia du. Enpresak publizitatea euskaraz zabaltzeko egiazko asmorik izan ezean, iragarkiaren euskarapena nekez izan daiteke ahotsak aldatzea baino gehiago, pantailako idatziak iragarkia sortzeko unean bertan prestatu behar lirateke eta³².

Nolanahi ere, Euskal Telebistak ez du etsi ETB 1en publizitatea euskaraz emateko ahaleginean. 2000. urtetik aurrera, publizitate-kanpaina ETB 2n sartu nahi duten enpresei euskarazko kanalean ere sartzeko gonbita egiten zaie negoziazioetan, bikoizketa ETBk berak ordainduta, lehen bezala. 2004an Euskal Telebistak apur bat malgutu behar izan zuen negoziazioetako jarrera, publizitatea fakturatzeko inpaktuaren kontzeptua erabiltzen hasi zenean. Hala eta guztiz, inpaktuaren argudio bera erabiliz, umeei zuzendutako publizitatea ETB 1en eta erabat euskaraz ematera animatzen ditu iragarleak.

1999-2006

EITBren Zuzendaritza berria

Euskal Irrati Telebistan aro berri bat hasi zen 1999ko ekainean, Eusko Legebiltzarrak Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusi izendatu zuenean. Zuzendaritza berriari erakundearen gestioa eguneratzeko betekizuna egokitu zitzaion, eta Ortuzarren eki-poak kalitatezko kudeaketaren ildoan sartu zuen enpresa osoa. Erabakiak EITBtik kanpo ere izan zituen ondorioak³³; euskarazko bikoizketan, handiak.

Aldaketaren abiapuntutzat 2000. urtea jar daiteke, EITBren Administrazio Kontsei-

30. FORTA: Irrati eta Telebista Erakunde Autonomikoen Federazioa.

31. Enpresarik aipagarrienak: Baqué, Kaiku, Euskaltel, Codornú katalana, Bocatta katalana...

32. Esan gabe doa publizitatea euskarara egokitzea samurragoa izango litzatekeela iragarkiak sortzeko unean parte hartzeko aukera izanez gero, gauza batzuek ez baitute konponbiderik asmatu osten. «Fórmula [y-si] de Fincas Corral»: ea nork eman hori zentzuzko euskarari!!! ETBk uko egin behar izan zion iragarki hori lehen kanalean emateari. Baina, ordainez, beste batzuetan benetako artelanak aurki daitezke publizitatearen itzulpenetan. «Panrico, el pan de molde que sólo sabe a pan»: «Panrico, labeko ogiaren moldekoa».

33. EITBren barruan izandakoak ezagunak dira. 2004an, Zilarrezko Q kalitate-agiria. 2006an, Iberoamerikar Kalitate Saria.

luak 2000-2007ko plan estrategikoa onartu baitzuen. Plan estrategikoan gizartearekiko konpromisoak zehaztu zitzaizkion Euskal Irrati Telebistari esandako epealdirako.

Planaren bederatzigarren lerro estrategikoa euskarari zegokion, lau helbururekin. Lehen helburu nagusia EITBk ekoizten zituen produktuen kalitatea hobetzea zen. Bigarrena, orotariko programazioa osatzea, denentzat eta denetariko osagaiekin egina. Hirugarrena, euskaraz izatea EITBk zabal-kunde-kanal berrietarako prestatu behar zuen produkzioaren erdia gutxienez. Laugarrena, EITBk euskarazko programen produkzioa eta zabalkundea sustatzea, eta horretarako beste hedabide eta beste agente batzuekin elkarlanean jardutea.

Planaren bederatzigarren lerro horretarako lana atontzen laguntzeko, Euskal Irrati Telebistak hizkuntza-aholkulariaren figura sortu zuen aldi baterako. 2000. urtean Miren Azkarate izendatu zuen hizkuntza-aholkulari. 2001eko udaberrian Lurdes Oñederrak ordezkatu zuen. Oñederrak 2005eko udan utzi zuen kargua, EITBko Zuzendaritzak agindutako zeregina amaitutzat emanda.

Eusko Jaurlaritzak plan estrategikoa onetsi, eta finantzazio-eredu bat hitzartu zuen Euskal Irrati Telebistarekin. EITBren betekizunak eta dirubideen baldintzak programa-kontratua deritzon dokumentuan jaso ziren. Lehen programa-kontratua 2002-2005 epealdirako sinatu zen, eta, urtebete luzatu ondoren, 2007-2010 epealdirako beste bat egin da.

Programa-kontratuko betekizunak EITB Talde osoaren betekizun dira, eta, hartara, urtero EITBren enpresa, zerbitzu eta arlo bakoitzak, bere esparruan eta tamainan, bere

ekintza-plana prestatzen du, betekizun horiei erantzutera begira.

Euskara Zerbitzuak 2003an prestatu zuen bere lehen ekintza-plana. Bikoizketari dagokionez, produktuen kalitatea hobetzea bikoizketako hizkuntzaren kalitatea hobetzea zela interpretatu zen, eta arlo horretan egin behar zen lanaren adierazle moduan hizkuntza-orriak jarri ziren. Orriok *Bikoizketan elkarlanean* dute izena, eta bikoizketako hizkuntza-arazoei buruz bikoiztetxeetako hizkuntza-arduradunekin adostutako soluzio eta irizpideak jasotzen dituzte. Urtean hiru orri lantzen dira, eta, prestatutakotan, bikoizketan parte hartzen duten guztiei zabaltzen zaizkie: itzultzaileei, bikoizleei...

Klasikoak jatorriz

Euskal Telebistan azpidazketa ez da filmak euskaratzeko alternatiba bat, Donostiako Zinemaldian den bezala, Euskal Telebistak euskaraz esana den emisioari ematen baitio lehentasuna lehen kanalean. Haatik, horrek ez du esan nahi programazioa modu berean osatzen denik beti.

Zinemazaleengan pentsaturik, larunbat gauez tarte bat egin zitzairen klasikoei 2000ko azarotik 2001eko uztaileira. Hogeita hamar film baino gehiago eskaini ziren, jatorrizko bertsioan eta euskaraz azpidatzi-ta. Tarteari *Klasikoak jatorriz* esan zitzaion, eta izen handiko filmak programatu ziren: *Azken tangoa Parisen*, *Casablanca*, *Irma ez-tia*, *Jivago doktorea*, e. a.

“Lehengaia” kalitatezkoa izanda, alderdi guztiak artoski zaindu nahi izan ziren, azken produktua kalitate berekoa izan zedin. Idazkunen espezifikazio teknikoak ETBko Errealizazio Sailak prestatu zituen. Espezifi-

kaziorik garrantzitsuena –azpidazketaz egin diren estudioerik ospetsuenek gomendatu bezala³⁴–, testua ezkerrean lerrokatzea.

Hizkuntza-jarraibideak ETBko Euskara Sailak landu zituen, eta bikoizte-etxeetako euskara-arduradunekin adostu. Aipaturiko estudioen ildotik, puntuazioari buruz oso jarraibide zorrotzak eman ziren, pantailan zeinu-metaketa eragozteko, eta ikusleari irakurketa errazteko. Testua lerroka antolatzeke jarraibideak ere, oso zorrotzak izan ziren, kasu honetan ere, ikusleari irakurketa errazteko: sintagmarik ez apurtzea, esangura errespetatzea esaldia kartel batean hasi eta hurrengoan amaitu behar izatekotan, laburtzapenik ez erabiltzea... Horrek zailago egin zuen euskarazko itzulpena prestatzea, baina emaitza xede-ikusleen guttiz gogokoa izan zen. Hala ere, saioak ez du jarraipenik izan.

Bikoizte-etxeak egun. Mixerren sorrera

Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorea sektore hipertrofiatua da. Eskaintza eskaria baino nabarmenki handiagoa da³⁵, eta, horren jakitun, enpresek elkarlanaren eta bat-egitearen bideak urratu dituzte azken urteetan errentagarritasunaren bila³⁶. Horrelako mugimenduak bikoizketaren arloan ere gertatu dira. 2003an Edertrackek

eta K2000k oso aurreratuta zeukaten bat-egiteko hitzarmena, baina azken unean BBK-k atzera egin zuen, eta ez zen hitzarmena sinatu. Haren ondoren, K2000k beste orientazio bat eman zion enpresaren birmoldaketari, eta hizkuntza-zaintza eta beste zerbitzu batzuk murriztu egin zituen. Horrek ekarri zuen Beatriz Zabalongo arduradun-kargutik kentzea –enpresaz kanpotik ematen baitzuen zerbitzua–, eta Josu Varela jartzea euskara-arduradun.

Handik gutxira, 2004ko udan, Edertrackek eta Irusoinen bikoizketa-atalak bat egin zuten, Mixer izenarekin, Euskal Telebistak bikoizketa zerbitzua kontratatzeke egin zuen lizitazioa aurkezteko. Lizitazioa Mixerri esleitu zitzaion, eta harrezkero berak hartzen du ETBk agintzen duen bikoizketa-lanaren % 80 gutxienez. Gainerakoa K2000ri agintzen zaio.

Euskara Zerbitzuaren PDCA

Bikoizketaren kontratua sinatuta, Mixer Euskal Telebistaren hornitzaile estrategiko bihurtu zen. Hala izanik, ETBk bere kalitate-dinamiketan txertatu zuen Mixer, eta urte horretan bertan, 2004an, Euskara Zerbitzuaren lehen PDCA batzarrean parte hartzera gonbidatu zuen. PDCA³⁷ ereduari jarraituta, Euskal Irrati Telebistaren hizkun-

34. IVARSSON, Jan (1992): *Subtitling for the Media*. Transedit HB, Stockholm. Ivarssonek garbi dio erdian lerrokatzea zinemako ohitura dela, desfokatzeko arazoei eragina. Telebistan, halako arazorik gertatzen ez denez, testua ezkerrean lerrokatzea gomendatzen du, aitzakiarik gabe.

35. *Euskadiko ikus-entzunezko sektorearen liburu zuria* (2003) prestatu zenean, 400 enpresa inguru ari ziren Euskal Autonomia Erkidegoan.

36. Hala gomendatzen zuen *Liburu zuria*-k.

37. PDCA akronimoa “plan”, “do”, “check” eta “act” ingeles hitzetatik dator. Hala esaten zaio Euskal Irrati Telebistan prozesuen etengabeko hobekuntzarako erabiltzen den ereduari.

tza-zaintza hobekuntzaren bidetik abiaraztea zen batzar haren helburua.

Bikoizketaren arlotik irten gabe, lehen batzar hark emaitza interesgarriak izan zituen. Batetik, *ETB 1entzat bikoizteko irizpide nagusiak* lantzea etorri zen. Funtsezko dokumentua da, lehen aldiz jarri baitziren idatziz “ETB 1entzako bikoizketan euskara batua erabili behar da” eta oinarritzko beste definizio, jarraibide eta erabaki batzuk. Bestetik, bikoizketaren aginte-koadroa osatzea erabaki zen. Koadroa bikoizketen kalitatearen jarraipena egiteko modu bat da, adostua, elkarlanean oinarritua, kontrolaren eredu zaharra ordezkatu duena. *Bikoizketan elkarlanean* orriak, esaterako, aginte-koadroan jaso dira, urteroko zeregin gisa. Kalitate-irizpideak ere definitu dira, eta orain tresna ahaltsu bat dago lan bakoitza objektiboki balioesteko.

Euskara Zerbitzuaren hurrengo PDCA batzarra, 2005ekoa, zatibitu egin zen, eta Bikoizketaren PDCA gainerako arloetatik askatu zen. Urte hartako erabakietatik, bi nabarmendu behar dira. Lehena, publizitateko hizkera lantzeko betekizuna jaso zela aginte-koadroan. Bigarrena, bikoizketako ahots-sorta berri eta zabaldu beharra zegoela.

Bide berriak

Ikus-entzunezkoak hizkuntzaz aldatzeko, lehen eta orain teknika berak erabiltzen dira. Teknikak aldatu ez badira ere, aplikatzeko moduak, ordea, bai.


Aupa, Etxebeste! (2005), Telmo Esnal eta Asier Altunarena, aspaldiko urteetan euskaraz egindako lehen film luzea izateaz gain, audiodeskribapena eskaintzen lehena ere izan da gure inguruan. Audiodeskribapena itsuentzako aukera bat da, deskribatzaile baten ahotsa eranstea datzana. Deskribatzaile horrek, pertsonaiek hitzik egiten ez dutenean, tokiak, mugimenduak, keinuak eta abar azaltzen ditu, erabiltzaileak ez dezan xehetasunik gal.

Supernanny ingelesa 2006ko udan hasi zen azaltzen Euskal Telebistan. Telerrealitatean, dokumentaletan bezala, ahots gainjarriak erabiltzen dira –narratzailearen partearako izan ezik–, baina horrek euskal ikusleei benetako emozio eta sentimenduez gozatzeko eragotziko zien. Hartara, azpidazketa eta ahots gainjarriak konbinatzea erabaki zen. Ahots gainjarriak protagonisten kontakizun eta azalpenetan erabili ziren. Azpidatziak, protagonistak haserre, zarataka, negarrez, barrez..., alegia, egoera emozionaletan agertzen zirenean. Horrez gain, egoeragatik berez ulertzen ziren hitzak, jatorrizkoan eta azpidatzi barik utzi zire. Ikusleen aldetik arrakasta izan zuen, eta atal gehiago programatu ziren uda osteko denboraldian.

Beste bide batzuk euskaraz urratu barik daude oraindino. Aipagarrienak: azpidazketa automatikoa, azpidazketa itxia –teletestuen bidez edo beste sistemaren baten bidez eskainia, nahi duen erabiltzaileak hauta dezan, eta nahi ez duenak pantaila garbi ikus dezan–, eta pantailan zeinu-mintzairaren interpretea txertatzea.

BIBLIOGRAFIA

- BARAMBONES, Josu; ZABALONDO, Beatriz (2006): *Ikus-entzunezko itzulpena*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- DIEZ URRESTARAZU, Rosa (2003): *ETB. El inicio de una nueva era*. Euskal Irrati Telebista, Iurreta.
- EUSKAL IRRATI TELEBISTA (1989): *Euskara (erabileraz) 1*. Barne-txostena.
- EUSKAL IRRATI TELEBISTA (1989): *Euskara (erabileraz) 2*. Barne-txostena.
- EUSKAL IRRATI TELEBISTA (1997): *1982 1997*. Euskal Irrati Telebista, Iurreta.
- LARRINAGA, Asier (2000a): “La subtitulación en ETB-1” *Proceedings of Mercator Conference on Audiovisual Translation and Minority Languages*. Mercator: 27-33.
- LARRINAGA, Asier (2000b): “La traducción en ETB-1” *Proceedings of Mercator Conference on Audiovisual Translation and Minority Languages*. Mercator: 139-147.
- TORREALDAI, Joan Mari (1985): *Euskal Telebista (eta) euskara(z)*. Elkar, Donostia.
- ZUBIZARRETA, Iñaki (1992): “Euskara ikasten” *Senez itzulpen-aldizkaria*, 13: 161-164.



Itzulpengintza eta bikoizketa Galizian

XOAN MONTERO DOMÍNGUEZ

Universidade de Vigo

Sarrera

Artikulu honetan saiatuko gara Galizian ikus-entzunezkoen itzulpengintzak izan duen historiaren berri ematen, eta esparru horretan diharduten itzultzaileen eguneroko errealitatea zein den azaltzen. Erkidego honetako ikus-entzunezkoen itzulpengintzaren praktikari erreparatuko diogu, zehazki TVGn (Televisión de Galicia) egiten denari, hori baita produktu bikoiztu –beraz, baita itzuli ere– gehien eskatzen duen erakundea. Gainera, bikoizketarako itzulpenaren arloa aztertuko dugu, Galizian hori delako gogokoena, bai TVGn, bai enpresa zinematografikoetan.

Jakinekoea da ikus-entzunezko produktuak galizierara itzultzea normalizazio-pro-

zesuko alor garrantzitsuenetako bat dela Galizian, nahiz eta, oraingoz behintzat, ez zaien asko interesatzen galizieraren arloko ikerlanetan dabiltzanei. Bitxia da gero: urtero artikulu andana bat argitaratzen da gure erkidegoan galizieraren erabileraren gaineko estatistikei buruz, baina apenas aztertzen den ume txikiengan zer eragin duten haurrentzako telesail bikoiztuek, eta zer garrantzi duen herri honetako berezko hizkuntzan mintzo direnentzat, baina nekazari-inguruneak izanik, hainbat maila sozialetako kideek galiziera ahoan darabiltela ikusteak. Gaur egun, TVG piztuz gero, galiziarrek ikus dezakete “telenobela” xumee-tan beren hizkuntza horretantxe aritzen direla ez soilik gure lurretako laborariak, baita enpresak zuzentzen dituztenak ere,

gaixotasunak sendatzen dituztenak, epaiketetan defendatzen gaituztenak... Monterok (2006: 112) aipatu bezala, sei, zazpi edo zortzi urteko umeek dituzten idoloetako bat, Shin Chan, galizieraz mintzo da, antzina Manuel Antoniok eta Castelaok Taragoña eta Rianxo artean gora eta behera ibilitako kaleen babespean sortua dela pentsarazteko moduko naturaltasunez, Shinnosuke Noharak gure herriko plazetan jolasten diren ume bihurrien maltzurkeria berbera erakusten duelako... hori bai, María Alonso Seisdedos¹ itzultzailearen, Shinnosuke hitza ematen dion Ana Lemos² bikoizketa-aktorearen eta telesailaren kapitulu gehienak zuzentzen dituzten Charo Pena eta Alfonso Valiño³ bikoizketa-zuzendarien lanari esker, zeregin horiek guztiak gauzatzen diren bikoizketa-estudioa ahaztu gabe, Sodinor alegia.

TVGren sorrera

Ikus-entzunezko produktuak galizierara itzultzen (zinema, telebista, produktu informatikoak, bideo-jokoak...) berrikiago hasi ziren Europako beste hizkuntza batzuetara baino. Hirurogeita hamarreko lehen urteetan hasi zen galiziera agertzen lehen aldikoz atzerrian sortutako filmetan, nahiz eta artean ezin zitekeen ikus-entzunezkoen itzulpenaz hitz egin zentzu hertsian. Demokrazia-garaian, eta batez ere Galiziako zine-klubetan lanari esker, galizieraren presentziaren susperraldi nabarmen bat izan zen zinema-ziklo, -erakusketa eta -lehiaketetan (Sáez, 2002: 38). Galiziera kartel, izenburu eta laburpenetako hizkuntza bihurtu zen zine-klubetan, bereziki 1984an Galiziako Zine-klubetan Federazioaren⁴ sorreratik aurrera.

Baina ezin daiteke hitz egin Galizian egindako bikoizketaz, galizieraz egindako bikoizketaz, TVG⁵ hizpidera ekarri gabe.

1. María Alonso Seisdedos *Shin Chan* marrazki bizidunen telesailaren itzultzailea da. Hizkuntza-bitartekari profesional izanik, hogei urte daramatza bikoizketarako gidoiak itzultzen.
2. Ana Lemos bikoizketa-aktoreak ahotsa ematen dio Shinnosuke Nohari *Shin Chan* marrazki bizidunen telesailan.
3. Alfonso Valiño Galiziako lehen bikoizketa-zuzendarietakoa da. Euskal Herriko K2000 bikoizketa-estudioan ikastaro bat egin ostean hasi zen bikoizketa lanetan. Valiñoren aburuz, 1993tik aurrera galizierarekiko ardura nabari zaio TVGri. Ordura arte, laurogeita hamarreko hastapenetan, fonetika erabat arrotza zen, egiturak gaztelaniazkoak, kalko ugari erabiltzen zen... Kanpo-ekoizpenaren zerbitzuaren sorrerak zuzentzeko bidean jarri zuen egoera hura, eta akuilu izan zen, lan-esparru hauetan aritu nahi zutenen profesionaltasunaren onerako. Zerbitzu horrek garbiketa handia eragin zuen, eta gaztelaniazko moldearen arabera fonetikaz mintzo zen aktore askok utzi egin zion bikoizketa-lanari. Aldi berean, figura profesional berri bat sortu zen bikoizketa-estudioetan: hizkuntza-zuzentzailea. Ordura arte, bi langile mota bi baino ez ziren enpresetan: itzultzailea eta bikoizle-egoiztzailea.
4. Federazioaren estatutuek galiziera jarduera guztietan hizkuntza ofizial izango dela adierazten dute.
5. Titulartasun publikoko sozietate anonimoa da, eta zenbait komunikabide kudeatzen ditu, horien artean TVG (Televisión de Galicia) eta RG (Radio Galega). TVG 1985eko uztailaren 24an hasi zen emititzen, San Marcosko instalazioetatik (Santiago de Compostela). Programazio erregularra urte hartako irailaren 29an hasi zen. Asteko emisio-orduen kopurua handituz joan izan da etengabe, eguneko 24 orduetara iritsi arte.

TVGren kudeaketa eta administrazioa bost sailetan (Zuzendaritza, Ingeniaritza Teknikoko Saila, Albistegien Saila, Programen eta Programazioaren Saila, Kirol Saila) eta lau lan-unitatetan antolatzen da. Lan-unitateak honako hauek dira: Kanpo Ekoizpena, Xabarin Club, Encontros eta Galicia TV Satélite.

TVG 1985ean sortu zen, hizkuntzaren erabilera suspertzeko eta normalizatzeko helburuekin; hura izan zen atzerriko ikus-entzunezko materiala galizierara itzultzeko lanetan hasi zen lehen erakundea. Beraz, ikus-entzunezko materiala galizierara itzultzea jarduera nahiko berria da, eta Galizian TVGrekin estuki lotua. Nolanahi ere, bi urte lehenago, komunikabideetan galizierara itzultzeko jarduerak arautu ziren Normalizazio Linguistikoko Legean (1983). Hain zuzen, 20. Artikuluko IV. Idazpuruak (*Galizieraren erabilera komunikabideetan*) honako hauek aipatzen ditu Galiziako Xuntaren betebeharren artean:

1. Filmak eta ikus-entzunezko beste bitarteko batzuk galizieraz ekoitzi, bikoiztu, azpidatzi eta ikusgai jartzeko bideak suspertzea.
2. Galizieraz egindako jarduera kulturalen, antzezpeneen eta bestelako ikuskizunen sorrera bultzatzea.

Entretenimenduaz eta informazioaz hornitzeaz gain, telebista autonomikoen funtzioa tokian tokiko hizkuntza garbitu eta araztea eta aldi berean duintzea da. “Bestalde, ez da ahaztu behar hizkuntzak ez direla era naturalean ikasten eskuliburuetan eta idatzietan ikuste hutsaren bidez, baizik eta ereduaren imitazio gehienetan inkontzientearen bidez” (Kabatek, 1991: 40). Beraz, TVGri dagozkion betekizunetako bat galizieraz ikasteko tresna izatea da.

Alabaina, telebistaren funtzio normalizatzailea handia izanagatik, ez dirudi TVGk helburu hori eraginkortasunez betetzeko aukera guztiak aprobeztatu dituenik. Hona hemen xede hori betetzen lagunduko luke ten zenbait proposamen:

- eskura duen baliabide oro erabiltzea, gure hizkuntza aberasten laguntzeko;
- esatari eta aurkezleak hautatzerakoan, haien fonetika kontuan hartzea eta garrantzia ematea;
- alhora uztea zentzurik ez duten gaztelaniazko programen eta galizieraz mintzo ez diren zenbait pertsonaia ospetsuren hitz merkeen emisioa;
- bitartekari linguistikoak zuzenean kontratatzea, edo, ezinezkoa bada, azpikontratazioaren lan-baldintza errealek zaintzea, lan-giro duina izango dutela bermatu ahal izateko;
- langile kualifikatuen bidez TVGrako egindako itzulpenen kalitatea zainduko duen zerbitzua sortzea.

Baina artikulua honetan galizierara bikoizteak sor ditzakeen zailtasun batzuez ere arituko garenez, nahitaezkoa da “kanpo-ekoizpeneko” zerbitzuari polikiago begiratzeari. Monterok (2005: 93-94) dioenez, zerbitzu horrek bere gain hartutako zereginen artean dago urtean bitan antolatzen diren ikus-entzunezko materialen nazioarteko ferietara joan –bat Estatu Batuetan izaten da, bestea Europan– eta produktu berriak eskuratzeari. Ondoren, FORTA (Erkidegoetako Irrati-Telebista Erakundeen Federazioa) arduratuko da telebistaz emango den materiala erosteari. TVGk materialaren eskubideak eskuratzen dituenean hasiko da “bikoizketarako itzulpen-prozesua Galizian” deitu dezakeguna. Prozesu horretan itzulzaileak egiteko erabakigarria du, hark zabalduko baitu bikoizketa-estudioaren bitartez azken hartzaileengana, hau da, tele-ikusleengana iristean amaituko den bide luzea.

Itzultzailearen zeregina

Hala, galizieraz nola beste edozein hizkuntzatan, ikus-entzunezko produktuak bikoizketarako itzultzeak zailtasun bereziak ditu, lan-esparru horretan aritu nahi duen profesionalak ekinean hasi aurretik ezagutu eta asimilatu beharrekoak, Rosa Camiña, Antón Dobao eta Benilda Castiñeiraren⁶ ustetan. Bikoizketarako itzulpenek (filmak, telesailak, marrazki bizidunak, dokumentalak, baita benetan itzulpen gaiztoa duten teledendak ere...) itzulpen literario, dibulga-zioko eta abarren ezaugarri berberak dituzte, oro har, baina baita beren gisako berezitasun batzuk ere. Jarraian, *Ikus-entzunezko testuen itzulpena* irakasgaiko ikasleek eta eremu horretan beren kasa hasi nahi dutenek ezagutu beharreko oztopoen berri ematen saiatuko gara:

- a) Ahozko itzulpenak dira, eta ahozko bi-tartekoen bidez jasoko dira. Jakina da era horretako itzulpen-aginduen ezauga-rrri nagusietako bat “ahozkotasuna” dela, hain zuzen hasiberriei gehien kostatzen zaizkien oztopoetako bat; izan ere, testu idatzi baten bitartez ahozko testua trans-mititu behar baitute. Horrelakorik ez da azpidazketan.

Alde sakonak daude sistema bien artean, lehe-nik eta behin itzulitako testuaren beraren erabile-ratik hasita: legenda publikoari zuzenean aurkez-ten zaio, eta, ondorioz, erregistro landuko arauaren arabera idatzi behar da, baina bikoizketa aktorea-

ren interpretazioaren oinarria baino ez da, eta ho-rrek askatasun handiagoa ematen digu pertsonaiek hitz egingo luketen moduan idazteko: “tu” eta “você” nahastuz; “está” erabili beharrean “ta”, eta “para um” erabili beharrean “prum” erabiliz; eta, haratago joanez, baita delako pertsonaiak portuge-sez hitz egitean egingo lituzkeen okerrak eginez ere. Alabaina, aitortzen dut ez dela erraza gurari-az trakets idaztea. (Rosenberg, 2003: 164).

Gainera, gure kasuan arazoa areagotu egiten du TVGk erabiltzen duen galiziera-ren aldaera bakarra estandarra izateak. Ca-miñak eta Sánchezek (2000: 43) dioten be-zala, logikoa da aldaera hori erabiltzea dibulgazio- eta informazio-saioetan, baina ez bikoizketan:

Kontuan hartzen badugu ikus-entzunezko produktu askok mundu erreala irudikatu nahi du-tela, haien adierazpidearen euskarri den hizkun-tzak ere errealtate horren isla izan behar luke. Ez da bidezkoa molde berbereko galiziera entzutera behartzea telebista-albistegien eta western baten ikusleak: errealtate desberdinak dira, eta pertso-naiek nortasuna hartzen dute erabiltzen duten hiz-keraren bidez. Alabaina, apenas entzuten diren [Galiziako] telebistan galizieraren berezko zenbait fenomeno: gheada, sisibasa*, arrunkeriak... eta al-daera dialektalak.

Gainera, inor ez da hasiko testua hartu eta papera irakurtzen (hala eginez gero, pa-rada izango luke gelditzeko, hausnarketa egiteko...). Ez: mezua hartzaileei automati-koki eta berehala iritsiko zaie, aktoreek au-rretiaz egindako antzezte lanaren bitartez. Hau da, hartzaileek ez dute inoiz itzulpena

6. Vigon 2004ko maiatzaren 19, 20, 21, 26, 27 eta 28an “Ikus-entzunezkoen itzulpenaren hastapenak: bikoizketa” izenpean an-tolatutako ikastaroko hitzaldiak.

* Itzultzailearen oharra: Gheada ‘g’ hasperendua ahoskatzeko era da, gaztelaniazko ‘j’ hizkiaren gisara. Sisibasa: ‘c’ eta ‘z’, ‘e’ eta ‘i’ hizkien aurrean audenean, ‘s’ hizkiaren soinuaz ahoskatzeko era. Biak ala biak Galiziako mendebaldeko dialektoen ezauga-riak dira.

jasoko hura egin zen moduan, baizik eta egokitze-etapan aldatu den eta, batez ere, aktoreek interpretatu, antzeztu duten eran. Hartzaileek itzulpena ontzat edo txartzat joko dute, hain zuzen ere, aktoreen bitartekaritzaren moldeetan; neurri batean, baita itzultzaileak egindakoaren arabera ere (itzultzailea ez da desagertu), baina erdibideko urrats horiek (egokitzapena eta antzezpena) nagusitzen dira itzulpena hautemateko orduan.

b) Ibilbide berezia egingo dute. Arestian esan dugun bezala, TVGk ikus-entzunezko materialaren eskubideak erosten dituenean hasten da bikoizketarako itzulpen-prozesua Galizian:

1. Bikoizketa-estudioa kontratatzea. TVGko kanpo-ekoizpeneko zerbitzuak Galiziako hirietako bikoizketa-estudioetara⁷ joko du: Estudio XXI, Área 5.1 eta Uno TV estudioak Coruñan daude; CTV, berriz, Santiagon, eta Sodinor, Vign.
2. Itzulpena agintzea. Bikoizketa-estudioei dagokie jatorrizko gidoiak eta zinta zinematografikoak itzultzaile autonomoei edota itzulpen-agentziei helarazteko ardura.
3. Zuzenketa linguistikoa bikoizketa-estudioan. Behin itzulita, gidoiak bikoizketa-estudioetara itzuliko dira,

bertan hizkuntzalariek zuzendu ditzaten (alabaina, gero eta gutxiago egiten da).

4. Aktoreei deitzea. Bikoizketa-estudioetako hizkuntzalariek zuzenketa-lana amaitu ondoren, gidoiak *takeatu* egingo dira (*taketan*⁸ zatituko dira), eta aktoreei deituko zaie, zuzendariaren aginduetara jarri eta bikoiztu ditzaten.
5. Zuzenketa linguistikoa TVGn. Bikoizketa amaitu ondoren, materiala TVGra itzuliko da bueltan, eta hor berriro zuzenduko dute beste hizkuntzalari batzuek, baina oraingoan baita alderdi fonetikoetan ere. Dobaok (1994: 47) azaldu bezala, bikoizketak produktu amaitu gisa iristen dira TVGra; beraz, asko jota oker nabarmenak zuzentzeko aukera emango lukeen kontrola bai, baina askoz gehiago ezin da egin. Gainera, zerbitzuko hizkuntzalari kopurua hutsaren hurrena da: bat baino ez. Ondorioz, TVGko produkzio kuantitatiboki handiena hankamotz geratzen da hizkuntza-aholku eta -kontrolaren ikuspegitik. Egile horren aburuz, dena dela, saio bikoiztuak ez dira kalitate linguistiko eskasenkoak. Kontuan hartzekoa da bikoizketa-estudioetako hizkuntzalariek ez dutela kontu fonetikorik azter-

7. TVGk berak banatzen du lana bikoizketa-estudioen artean. Berez, hautaketa-irizpideek guztien artean banatzearen alde jo behar lukete, betiere kontuan hartuta aurretiaz egindako lanak, itzultzaile, hizkuntzalari, aktore, egokitzaile eta bikoizketa-zuzendarien kopurua. Baina errealitatean irizpide ekonomikoek agintzen dute.

8. *Take*: horrela deitzen zaio bikoiztu beharreko gidioa banatzen den unitate bakoitzari. Gehienera ere bost lerro edo hogeita hamar segundo iraun dezake, ez gehiago. Bikoiztu beharreko gidoi guztiak zenbakiekin agertzen dira, eta *take* bakoitzak zenbaki bat izaten du.

tzen, gidoiak haien eskuetara iristen direnean oraindik ez daudelako bikoiztuta.

Alabaina, prozesu hori ez da beti sistematikoa, hainbatetan itzultzaileek ez dutelako jasotzen lana taxuz egin ahal izateko behar luketen material guztia. Batzuetan, onenean jarrita ere, zinta baino ez zaie iristen, eta gidoia belarriz atera behar izaten dute. Beste zenbaitetan, berriz, gidoia baino ez dute; horixe da aukerarik okerreana, beren zeregina betetzeko garrantzitsua faltako baitzaie: irudia eta soinua. Oso litekeena da film klasikoak itzultzaileengana gidoirik gabe heltzea, galdu egin direlako; bestelako eragozpenak ere badituzte: elkarrizketak ez dira garbi entzuten, zarata handia dute, digitalizatu gabeak dira. Interneten aurkituz gero, gaitzerdi, baina ez da hori ohikoena; ez, behintzat, hogeita hamarreko hamarkadako filmen kasuan, esaterako. Eskarmen-tua lagun, bikoizketarako aritzen diren itzultzaileek oso entzumen berezia garatzen dute, nahiz eta zintan ezer ulertu ez, zer esaten ari den antzemateko gaitasuna ematen diena.

c) Pertsonaiak karakterizatu egin behar dira, beren ezaugarri berezietan jantzi. Galiziera hizkuntza kontserbadorea da, eta nekazari eremuan gorde izan da bereziki. Camiñak eta Sánchezek (2000: 44) diotenez, film jakin batean inguru sozial jaso eta jantziko pertsonaiak eta klase apaleko eta hezkuntzarik gabekoak aurrez aurre agertzen direnean sortzen da koska. Nork hitz egingo du galizieraz hobeto: unibertsitate-irakasleak ala igeltseroak? Nork gordeko ditu interpola-

zioak, infinitibo jokatu, subjuntiboaren geroaldia...?

d) Filma ikusi egin behar da itzultzen hasi aurretik, eskatzen duen tonua harrapatu ahal izateko. Gehienetan, ikus-entzuzko gidoiak itzultzeko orduan garrantzitsuagoa da itzulpenari emandako tonua, jatorrizko testuarekiko fidelotasuna baino, edo gramatika eta sintaxi aldetik itzulpen biribila lortzea baino. Itzulpena gauzen transposizio hutsa baino zerbait gehiago da, eta, nahiz eta itzulpengintza ikasketetan behin eta berriz errepikatzen den “fidelotasunaren”, diskurtso testualaren, koherentziaren, gramatikaren eta abarren garrantzia, kontua ez da erabat horrela lan-merkatu honetan (hasteko eta behin, jatorrizko testua bera ere ez denez perfektua, eta hizkuntza desbirtuatu egiten duenez, itzultzaileak ere egin beharko du hainbatetan, eta betiere egiten duena oso ondo zainduta). Beraz, film osoa edo telesail jakin bateko hainbat kapitulu ikusten saiatu beharko dugu gaia ezagutzeko (zer kontatzen da? zer adierazi nahi du? nolako erritmoa eskatzen du?). Berrito ere eskarmentuak erakutsiko die itzultzaileei pelikula bakoitzak jarraibide berezkoak dituela; ez dela gauza bera frantsesetik itzultzea edo Britainia Handiko ingelesetik, Ameriketako ingelesetik, portuguesetik, gaztelanatik, eta abar; herrialde bakoitzak berezko erritmoa duela, eta emaitza desberdina izango dela. Esate baterako, jatorri frantseseko filmen itzulpenetako esaldiak jatorri amerikarra dutenak baino laburragoak izan ohi dira, frantses hizkuntza desberdina delako, bai, baina

batez ere desberdina delako mundua hautemateko frantsesen modua, elkarren arteko diskurtsua hautemateko modua (hori bera jakin behako lukete bikoizketa-aktoreek ere: haiek ere filma ikusi egin beharko lukete aurretiaz, baina ez da horrela jokatzeko, denbora premiagatik, irizpide ekonomikoengatik...). Dena dela, sarri askotan ez da ikusten filma, presagatik.

- e) Itzulpen komertzialak dira, eta merkatu-rako irizpideek agintzen dute (bikoizketa-prozesu osoan), beste itzulpen-mota batzuetan ez bezala: dibulgazioan, teknikoan eta abarretan. Negozioetarako eskatutako itzulpenak dira, eta horrek lana ahalik eta egokien egitea oztopatzen duten baldintza jakin batzuk ezartzen ditu; denbora-premia, esaterako. Argi-go erakusteko, imajina dezagun berrogeita hamar kapituluko telesail bat: guzti-guztiak ikusteko parada edukitzea litzateke egokiena, pertsonaia bakoitzaren ezaugarriez ohartu ahal izateko, zer gertatuko den eta nola bukatuko den jakiteko, eta abar, eta horri esker pertsonaia bakoitza bere ezaugarri linguistikoez jantzi ahal izateko. Baina ez da horrela gertatzen. Telesail horretatik gidoia eta, asko jota, lehen hiru kapitulu-luena zinta baino bidaltzen ez denez, nekez asmatuko dugu aurrerantzean zer gertatuko den; gerta liteke hogeita zazpi-garren kapitulura iristean holako edo halako pertsonaiari aurretiaz bestelako trazaren bat, beste molderen bat ez eman izana damutzea, baina ordurako berandu izango da.

Ikusten dugu, beraz, prozesua ez dela beti behar bezain ongi gauzatzen, eta sarri askotan emaitzak ere ez dira espero bezain onak. Alabaina, oro har, nahiko onak izaten dira, lan egiteko baldintzak kontuan hartzen baditugu. Aritzearen aritzeaz, itzultzaile profesionalek presaka lan egiten ikasten dute.

- f) Egokitu beharra dute. Itzulpena bikoizketarako egoki eginga bada, aldaketa gutxi egingo dizkiote egokitzeko orduan: aldaketa arinak, laburrak... Lan-esparru horretan aritu nahi duten itzultzaileek, aukeran, testuak egokitzen jakin behar lukete, eta itzulpena erritmo jakin baten arabera egin, egokitzeko ordua iristen denean aldatu beharrik izan ez dezaten, edo ahalik eta gutxien (salbuespenak salbuespen, esaterako: elkarren gainera datozen elkarriketez osatutako lan bereziki konplexuak, eta abar.).
- g) Funtsezkoa da erritmoa atzematea, jatorrizko hizkuntza eta kulturako erritmoa xede hizkuntza eta kulturaren islatzen asmatzea, nahiz eta jakin ez direla beti bat etorriko, ez azentuazioan, ez prosodian, ezta sentimenduan ere... Horixe da, funtsean, itzulpen orotan urrezko araua, eta bereziki ikus-entzunezkoetan. Beraz, egokitzeapena ez da pentsarazi nahi den bezain garrantzitsua. Besterik dira “bikoizketa-aretoko egokitzeapen finak”, non zuzendariak ‘kaixo’ esateko eska diezaiokeen aktoreari, interpretazioaren mesederako. Horrelako egokitzeapenak bikoizketa egiteko unean gauzatzen dira, baina ez dute ezertan aldatzen itzulpenaren xedea.

- h) Itzulpenen arrakasta aktoreen interpretazioan datza. Funtsezkoa da aktoreak interpretatzaile onak izatea, ikusleek begien aurrean dutenaz goza dezaten, belarrian hizkera naturala jaso dezaten, ikuskizuna taxuz ulertzeko lan berezirik eskatuko ez diena. Ezer baino lehen, hori itzulpenaren esku dago, baina gero aktoreen lanaren esku. Interpretatzaile onek badakite nola ahoskatu esaldiak, nola jokatu aktore protagonistaren rola, eta abar. Hori guztia egiten ez badakite, eta nahiz eta itzulpena oso ona izan, ez du ezertarako balioko, ez zaiolako hartzaileari behar bezala iritsiko. Egia esan, gaur egun parekatzeko modukoak dira gaztelaniaz eta galizieraz egiten diren bikoizketak. Litekeena da telesailetakoa galizierazko bikoizketari (dagoeneko ez dago hastapenetakoarekin konparatzerik⁹) oraindik ere bide luzea geratzea egiteko, baina marrazki bizidunetan, esaterako, galizierazko bikoizketa gaztelaniazkoa baino askoz hobea da, naturaltasunari eta adierazgarritasunari esker.
- i) Irudia-soinua-hitza multzoa. Guk, itzultzaileok, hitzekin lan egiten dugu, baina ikus-entzunezko lanen alderik garrantzitsuena irudia da (irudia hitzaren marko eta testuingurua da), eta kontuan hartu beharko dugu ezer baino lehen irudia

eta soinua den zerbait (irudiaren soinu-banda) itzuliko dugula; horrek baldintzatu egingo du itzulpena, eta itzultzaileak bi premisa horien zerbitzuan aritu behar du. Ez dugu esan nahi hitza irudiaren menpean jarri behar denik, baizik eta itzulpen-unitatea irudia-soinua-hitza uztarketak osatzen duela eta hiru osagaiek balio berbera dutela; itzultzaileak ez badu multzo hori bere osotasunean hartzen, haren lanak ez du nahi bezalako emaitzarik erdietsiko. Literatur itzulpenek oin-oharrak eta bestelako baliabideak onartzen dituzte, azalpenak emateko lagungarri. Ikus-entzunezkoetan ez dago era horretako baliabiderik (ezin dugu oin-oharrik erantsi), baina, bestalde, ez dugu horrelakorik behar, irudiak berak nahiko azalpen ematen duelako, eta itzultzaileak jakin behar du ezin duela hitzen bitartez erreduntzizari jo. Horren ondorioz, sarritan elkarriketak laburrak izaten dira; ikusleak irudia ikusi eta soinu-banda entzuten duenez, ez du behar hitzaren bitartez ikuskizuna azal diezaioten. Lehen begiratuan, pentsa daiteke horrek lagundu egiten diola itzultzaileari, baina bere aurkako arma bihur daiteke, askotan bizpahiru hitz soilen bitartez ikusleei zerbait iradokitzeke ahalmena garatu behar izaten delako.

9. Galizian, bikoizketa (Dobao, 2004: 386) Espainiako bikoizketa-ereduan integratuta sortu zen. Eredu horrek ordurako nolabaiteko ospea irabazia zuen, eta sektore profesional sortu berriak bere egin zezakeen nahitaezko erreferentzia bihurtu zen. Lehen bikoizketa-aktoreen prestakuntza-prozesuan Espainiako bikoizketaren ibilbidean ibilbide zabala egina zuten profesionalek hartu zuten parte. [...] Eredu espainiarra gureganatzean, nahastu egin genituen edozein hizkuntzatara bikoiztearen berezko auzi teknikoak, kasu guztietan nahitaez antzeko behar luketenak, eta hizkuntza jakin batera bikoizteak dituen ezaugarri bereizgarriak. Beste era batera esateko, espainierara bikoizteko arauak hartu eta unibertsaltzat jo dugu galizierara bikoizteak berezko lukeen ezaugarri berezi oro.

- j) Gaien aniztasuna. Lan-esparru horretan aritu nahi dutenek denbora-tarte laburrean edozein gairi buruzko dokumentazioa biltzen jakin behar dute. Hara, demagun film jakin bateko gai nagusia maitasuna dela (edo politika, edo arrazakeria, edo...) baina maitasunezko film horretako protagonista bat Zuzenbidea ikasten ari dela, adibidez, eta Lizentziadun Gradua lortzeko kontzentrazio-esparru nazietako juduen sarraskiari buruzko lizentzia-tesia defendatu behar duela; beraz, Alemaniako legediko zenbait artikulu irakurriko ditu, eta itzultzaileak gauza izan behar du horiek ulertzeko eta gure gizartera egokitzeko. Itzultzaileari ez zaio zilegi nahi duena edo ustez gutxi gorabehera ulertu duena adieraztea: bene-benetan protagonistak dioena eman behar du, eta gure kultura ekarri. Sarritan, dokumentazio-lan horretarako Interneten bidez molda daiteke, baina beste batzuetan ez dago profesionalengana jotzea beste aukerarik. Beraz, bikoizketarako itzultzaileei garrantzitsua zaie lagunak (informatzaileak) izatea ahalik eta jakintza-esparru gehienetan.
- k) Kultura-baliokidetasunak. Galizierara itzultzen diren telesail gehienak Estatu Batuetako kultura-errealitateak hartuak dira. Horietako txiste asko eta asko errealtate hari buruzkoak dira, hango politikariei, hango ohiturei buruzkoak... Itzultzaileek egokitu egin beharko dituzte txiste horiek, baina egokitzapen horiek oso ondo pentsatu behar dira. Ezin ditugu gure musikariak edo politikariak aipatu, filmak Estatu Batuetako errealtateak kontatzen badu. Batzuetan, irtenbidea izan liteke bai Galizian eta bai Estatu Batuetan, hau da, bietan ezaguna den eta aldi berean irria pitz dezakeen erreferentziaren bat aurkitzea.
- l) Hasieratik bukaerainoko berrikusketa. Espainiako estatuko fakultateren batean itzulpen- eta interpretazio-ikasketak bukatu ostean ikus-entzunezkoen itzulpenen merkatuan sartzen diren profesionalak badakite hartutako lanak berrikusi egin beharko dituztela, itzuli ondoren eta entregatu aurretik. Eta, halarik, azpimarratu egin nahi dugu berrikusketaren garrantzia are handiagoa dela, gure ustez, horrelako lanetan; izan ere, ez du balio zatika berrikusteak, ezta ahopeka egiteak ere. Ahots gora bikoizteko egina den produktu bat berrikusi behar dugu, eta, harrigarria eman dezakeen arren, gehienetan etapa honetan egiten da benetako itzulpen-lana, ez daukagulako aurrean gidoia, ez gaituelako baldintzatzen.
- m) Naturaltasunaren garrantzia. Testu itzuli orok xede hizkuntzari zor zaion berezko adierazpide naturala erdietsi behar luke, eta are gehiago ikus-entzunezkoek. Hori funtsezkoa da, bikoizleak *take* bakoitzari intonazio egokia emango badio. Kontuan hartuta irudiak lagunduko digula, ihes egin behar diegu errepikapenei eta erredundantziei... Ingelesak erruz jotzen du errepikapenera, baina galizieraz astun gertatzen da.
- n) Bikoizketaren berezko terminologia. Itzultzaileek ezagutu egin behar dituzte bikoizketa-estudioek lanerako erabiltzen

dituzten zeinuak, bikoizketa-aktore, -zuzendari eta -egokitzaileei lana erraztuko badiete. Beste artikuluko batean xeheago helduko diogu gaiari, baina oraingoan laburbildu egingo ditugu marka horiek, Xosé Castro Roig (2001: 287-298) oinarri hartuta:

- AD LIB: interpretazio-testu ez idatzia. Bikoizketa-aktoreak uneak eskatzen duen soinuaren bat egin behar duela adierazten du.
- *Ahapeka*: pertsonaia ahapeka hitz egiten ari dela adierazten duen terminoa.
- Ahoa: pantailan hitz egiten ari dela pertsonaiari aurpegiaren zati hori ikusten zaionean erabiltzen da termino hau.
- *FACE OFF*: pertsonaiak pantailan hitz egiten du, baina ez zaio ahoa ikusten.
- Animazioa: marrazki bizidunetako programa adierazteko terminoa, beste era batzuetakoen aldean; esaterako, *filmen* edo *dokumentalen* aldean.
- Atrila: bikoizketan, interpretatutako den testu itzuliaren euskarria.
- Bikoizketa: filma jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean antzetzuta eta grabatzeko ekintza.
- Bikoizketa-estudioa: filma bikoizteko grabazio-gelak dituen enpresa.
- Bikoizketa-zuzendaria: filmean lan egingo duten aktoreak aukeratzeaz eta filmaren zuzendaritza artistikoaz arduratzen den pertsona. Sarritan, zuzendaria egokitzaile ere bada.
- Deialdia: bikoizketa-estudioa aktoreak lanera deitzeko ekintza. Profesional horiei bi kontzepturen truke ordaintzen zaie batez ere: deialdiko eta *takeo*.
- Egokitzapena: filmaren sinkronia-prozesua, itzuli ondokoa.
- Gidoia: jatorrian, film jakin bateko aktoreek antzetzten duten testua da. Testuinguru horretan, filmeko testua adierazten duen termino generikoa da, elkarriketen zerrendari atxikia.
- Giroa: egoera jakin batek eskatzen duen berezko giroa sortzen duten giza-ahotsak.
- Koadroa: bideo-grabazioa osatzen duten irudietako bakoitza. Bideoeko segundoko bakoitzeko 25 koadro daude, 0tik 24ra zenbatuak.
- Moldaketa: bikoizketan, egokitzailearen deitzeko beste modu bat.
- Nahasketa: teknikariek soinu-banda eta galizierarako bikoizketa bateratzeko bikoizketa-estudioetan egiten duten prozesua.
- *OFFeko AHOTSA/OFF*: koadrotik edo pantailatik kanpoko ahotsa adierazten duen terminoa da.
- *ON SCREEN/ON*: *takea off*ean egiten ari den aktorea berriro pantailara itzultzen denean eta ikusleek berriro pertsonaiaren ahoa ikusten dutenean erabiltzen da.
- Sinkronia: itzulitako gidoia eta aktoreen ahoen mugimendua elkarrekin sinkronizatzeko ekintza.
- *Soundtrack*: soinu-banda adierazten duen ingelesezko terminoa. Banda edo pista horrek telesail edo film jakin

bateko soinuak, efektu bereziak eta musika biltzen ditu, baina ez elkarrizketetako ahotsak, horiek jatorrizko bertsio izeneko beste pista baten baitaude.

- /: etenaldia.

- //: etenaldi luzea.

- o) Itzulpenaren puntuazioa. Funtsezkoa da bikoizketarako itzulitako gidoietan. Bikoizleek puntuazioa dute gidari eta lagun gidoia irakurtzeko orduan: puntuazio markei jarraiki irakurri behar dute gidoia. Zenbat eta egokiago egin puntuazioa, orduan eta gehiago erraztuko diegu beren zeregina bikoizleei eta bikoizketa-zuzendariari. Horrelako lanetako marka bereziak ere kontuan hartu behar ditugu (etenaldiak, giroa, *ad lib*, eta abar), baina horrek ez du esan nahi etenaldia (/) adieraztean testu itzuliak eskatzen dituen koma, puntu eta koma edo puntuak kendu behar ditugunik.
- p) Galizieraren fonetika. Alderdi honetan gauzak ondo egin nahi izatera, itzultzaileak ondo jakin behar du galizieraz, baina ez ezagutza pasibo baten ildoan, baizik eta hizkuntzaren fonetika bere egin eta ahots-harietan sentituz. Bikoizketarako gidoiak egokitzeke modu bakarra gure hizkuntzaren bokalismoak, fonetika sintaktikoa eta abar ondo ezagutzea da.
- q) Izen berezien itzulpena. Aspaldi batean izenak ere itzuli egiten ziren Galizian bikoizketarako eginiko itzulpenetan. Gaur egun, logikoa den bezala, izenak ez dira

itzultzen. Alabaina, ideia oso errotua da hizkuntzalarien mentalitatean; hainbeste non, batzuetan interesgarria izan badaiteke ere, ez diren inoiz itzultzen. Adibide bat ematearren, pentsa dezagun telesail jakin bateko pertsonaia gehienek lore-izenak dituztela; ez ote litzateke normalizaziorako lagungarri izen horiek galizierara itzultzea? Holakorik gertatzen bada, itzultzailearen zeregina bikoizketa-estudioari bere aukeraren berri ematea da, bera baita prozesuaren barruan kultura bien jakitun bakarra.

Orain arte aipatutakoez gain, arazo nagusia lanbide honetan aritzen garenon eza gutzarik eza eta sentiberatasun linguistikoa urria dira. Jakina, irtenbidea ikastea, ikeretzea eta, batez ere, entzutea da; baina lanegoera eskasak (sarritan presaka egin behar da lana, behar beste denborarik gabe) ez digu uzten beti programa hori betetzen. Bestalde, zinemak izan behar du esparru horretatik bizi nahi duten itzultzaileen zaleatasun lehena eta nagusia. Itzuliko dituen gidoen zuzendariak ezagutu behar ditu, bere eskuetara iritsi baino lehenago. Eta, azkenik, egia da itzulpen mota orok aurretiazko praktika eskatzen duela lan ona egingo bada, baina kasu honetan aurretiazko praktika hori beharrezkoa ez ezik ezinbestekoa ere bada. Adibidez, itzultzaile hasiberriek dibulgazioko testuen esparruan kalitateko itzulpenak lor ditzakete, baina ikus-entzunezkoekin nekez lortuko dute gauza bera, aldeztatik ez badute film asko ikusi eta gidoi ugari itzuli.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- CAMIÑA PÉREZ, R. Ma.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, O. 2000 “La traducción de productos audiovisuales en la comunidad gallega”, in LORENZO, L.; PEREIRA RODRÍGUEZ, A. M. (ed.), *Traducción subordinada (I). El doblaje*, Vigo: Publicacións da Universidade de Vigo.
- CASTRO ROIG, X. 2001 “El traductor de películas”, in DURO, M. (koord.) *La traducción para el doblaje y lo subtitulado*, Madrid: Cátedra, 267-298. orr.
- DOBAO, X.A. 1994 “A lingua galega e a TVG. Situación actual e propostas para unha nova política lingüística (II)”, *Cadernos de Lingua*, 9. liburukia, Santiago de Compostela: Sotelo Blanco, 27-53. orr.
- DOBAO, X.A. 2004 “Dez teses para interpretar a dobraxe en Galicia”, in *A Trabe de ouro*, 56, Santiago de Compostela: Sotelo Blanco, 377-390. orr.
- KABATEK, J. 1991 “Interferencias entre galego e castelán: problemas do galego estándar”, *Cadernos de Lingua*, 4. zbka., 39-48. orr.
- MONTERO DOMÍNGUEZ, X. 2005 “Un achegamento á tradución para a dobraxe en Galicia”, in *Madrygal. Revista de Estudios Gallegos*, Madrid: Publicaciones Universidad Complutense de Madrid.
- MONTERO DOMÍNGUEZ, X. 2006 “Achegas para a tradución de produtos destinados á dobraxe cara ao galego”, in *Viceversa*, 12. Vigo: ATG-Departamento de Filoloxía Galega, Universidade de Vigo, 111-120. orr.
- ROSENBERG, R. 2003 *Conversas com tradutores. Balanços e perspectivas da tradução*, São Paulo, Parábola Editorial.
- SAEZ FERNÁNDEZ, L. 2002 *Criterios lingüísticos para a dobraxe e a subtitulación na Televisión de Galicia*. Karrera amaierako lana. Facultade de Filoloxía e Tradución, Vigo: Universidade de Vigo.

